

Haurrak babesik gabeko egoeretan daudenean esku hartzeko gida

SI Haurren, Gazteen eta Garapenerako Lankidetzaren Zorbitzua

AURKEZPENA

Gida hau egitea Gipuzkoako Foru Aldundiak 2002.urtean egindako "Gizarte babesik gabeko haur eta gazteak zaintzeko Plana" izenekoaren barruan aurreikusita dauden jardunetako bati emandako erantzuna da. Zehazki, honako helburu hau lortzeko egin nahi da Gida: "Jardun prozedura normalizatuak eta homogeenak garatzea, kasuen jakinarazpen, ebaluazio eta erabakitze faseetan".

Gidaren bitartez, udaletako eta lurralde gizarte zerbitzuek gizarte babesik gabeko egoeran dauden haurrekin egiten duten lana koordinatzeko, homogeneizatzeko eta bideratzeko laguntza eskaini nahi dugu, lan horren fase ezberdinetan: harrera, ikerketa, hasierako ebaluazioa eta esku hartzeko plana; eta horretarako, egiteko horietako bakoitzean erabil daitezkeen irizpideak, tresnak eta protokoloak eskaini nahi ditugu. Azken batez, Gida tresna izatea nahi dugu, Gizarte Zerbitzuek aipatutako egoeretan esku hartzeko orduan, daukaten kalitatea, arintasuna eta eragin kortasuna hobetzeko eta zerbitzuak koordinatzeko.

Era honetan dago Gida osaturik:

- Hasieran, hainbat atal daude, zehatz-mehatz deskribatzen dutenak zer den Babes Berezikoko haurrak eta Gizarte Babesik gabeko haurrak izatea (1), udaletako eta lurraldeko gizarte zerbitzuek zer eskumen dauzkaten gai horretan (2), eta kasu horietako faseetan jarraitu beharreko prozedura, jasotzen direnetik esku hartzeko plana landu eta gauzatzen den arte (3).
- Ondoren, eranskin batzuk daude, ataletan emandako informazioa osatzen dutenak, eta hainbat lan tresna eskaintzen dituztenak.
- Azkenik, protokoloak sartu dira, esku hartzeko faseetan, garrantzitsua den informazioa biltzeko.

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuko Gazteria Zerbitzuko Balorazio eta Orientazio Alorrean ari diren arduradun eta teknikariek eta Gipuzkoako hainbat eskualdetako udaletako gizarte zerbitzuetako ordezkariak eta Donostiako Udaleko ordezkariak osaturiko lan talde batek landu du Gida. Bestalde, Foru Aldundiaren enkarguz, Haurren Babe saren Ikerketarako eta Prestakuntzarako Dartington-i Elkarteko kideek koordinatu dute aipaturiko taldeak egindako lana.

Gida idazteko, lan taldea oinarritu da, bereziki, bestelako haur zerbitzuek –hala nola, Gazte la eta Leongo Juntako, Andaluziako edo Bizkaiko lurralde zerbitzuek eta Donostiako Gizarte Ongizateko Departamentuak – helburu bera lortzeko aldez aurretik landutako eta argitaratutako dokumentuetan. Horrez gain, udaletako gizarte zerbitzuek beren protokoloak ere jarri dituzte gida honetarako, beste zerbitzu batzuek aztertzeke aukera izan dezaten eta, interesgarriak direla iri tziz gero, egokitu eta beren ingurunean erabili ahal izateko.

© M.I. Arruabarrena, Dartington-ikoa, proiektuaren koordinatzailea.

© Lan taldea honako hauek osatu dute:

- Gipuzkoako zenbait udaletako gizarte zerbitzuetako teknikariak
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuko (aren) Gazteria Zerbitzuaren Balorazio eta Orientazio Taldea.

castellano

hasiera

aurkezpena

edukiak

aurkezpena

protokoloak

PDF dokumentuak ikusteko beharrezkoa duzu:



Haurrak babesik gabeko egoeretan daudenean esku hartzeko gida

Kasuen harrera, ikerketa, hasierako ebaluazioa
eta esku hartzeko plana

Gidaren helburuak eta edukia, eta Gida lantzeko prozedura

Gida hau egitea Gipuzkoako Foru Aldundiak 2002. urtean egindako “*Gizarte babesik gabeko haur eta gazteak zaintzeko Plana*” izenekoaren barruan aurreikusita dauden jardunetako bati emandako erantzuna da. Zehazki, honako helburu hau lortzeko egin nahi da Gida: “*Jardun prozedura normalizatuak eta homogeenak garatzea, kasuen jakinarazpen, ebaluazio eta erabakitze faseetan*”.

Gidaren bitartez, udaletako eta lurralde gizarte zerbitzuek gizarte babesik gabeko egoeran dauden haurrekin egiten duten lana koordinatzeko, homogeneizatzeko eta bideratzeko laguntza eskaini nahi dugu, lan horren fase ezberdinetan: harrera, ikerketa, hasierako ebaluazioa eta esku hartzeko plana; eta horretarako, egiteko horietako bakoitzean erabil daitezkeen irizpideak, tresnak eta protokoloak eskaini nahi ditugu. Azken batez, Gida tresna izatea nahi dugu, Gizarte Zerbitzuek aipatutako egoeretan esku hartzeko orduan, daukaten kalitatea, arintasuna eta eragin-kortasuna hobetzeko eta zerbitzuak koordinatzeko.

Era honetan dago Gida osaturik:

- Hasieran, hainbat atal daude, zehatz-mehatz deskribatzen dutenak zer den Babes Berezik haurrak eta Gizarte Babesik gabeko haurrak izatea (1), udaletako eta lurraldeko gizarte zerbitzuek zer eskumen dauzkaten gai horretan (2), eta kasu horietako faseetan jarraitu beharreko prozedura, jasotzen diren esku hartzeko plana landu eta gauzatzen den arte (3).
- Ondoren, eranskin batzuk daude, ataletan emandako informazioa osatzen dutenak, eta hainbat lan tresna eskaintzen dituztenak.
- Azkenik, protokoloak sartu dira, esku hartzeko faseetan, garrantzitsua den informazioa biltzeko.

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuko Gazteria Zerbitzuko Balorazio eta Orientazio Alorrean ari diren arduradun eta teknikariek eta Gipuzkoako hainbat eskualdetako udaletako gizarte zerbitzuetako ordezkariak eta Donostiako Udaleko ordezkariak osaturiko lan talde batek landu du Gida. Bestalde, Foru Aldundiaren enkarguz, Haurren Babesaren Ikerketarako eta Prestakuntzarako Dartington-i Elkarteko kideek koordinatu dute aipaturiko taldeak egindako lana.

Gida idazteko, lan taldea oinarritu da, bereziki, bestelako haur zerbitzuek –hala nola, Gazte- la eta Leongo Juntako, Andaluziako edo Bizkaiko lurralde zerbitzuek eta Donostiako Gizarte Ongizateko Departamentuak– helburu bera lortzeko alde aurretik landutako eta argitaratutako dokumentuetan. Horrez gain, udaletako gizarte zerbitzuek beren protokoloak ere jarri dituzte gida honetarako, beste zerbitzu batzuek aztertzeko aukera izan dezaten eta, interesgarriak direla iriziz gero, egokitu eta beren ingurunean erabili ahal izateko.




1

Gizarte Zerbitzuek zaindu beharreko biztanleak: Babes Berezia Behar duten Haurrak eta Gazteak


➡ **NORTZUK DIRA?**

1. 18 urtetik beherakoak,
2. Gipuzkoako lurralde historikoan erroldatuak, edo egoiliar egonkorak nahiz behin-behinekoak direnak (erroldatuta egon edo ez, legezko bizilekua eduki edo ez),
3. Oinarrizko premiak bete gabe dituztenak, ondoko arrazoiak direla eta:



➡ **NOIZ ESKU HARTU BEHAR DUTEN UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUEK, ETA NOIZ LURRALDEKO GIZARTE ZERBITZUEK?**¹

Egoera horietako bakoitzaren definizio zehatza I. Eranskinean aurki daiteke.



¹ Babes berezia behar duten haurren egoerak definitzeko, gida honetan erabilitako terminologia eta 1/96 Legean proposatutakoa desberdinak dira, zehazkiago "arrisku" kontzeptuari dagokionean. Gaur egun adierazita dagoen bezala, kontzeptu hori orokorregia da eta barne hartzen ditu oso desberdinak diren egoerak. Dokumentu honetan, indarrean dagoen legediak ezarritakoa ezaguturik eta onarturik, terminologia zehatzagoa erabili nahi izan dugu eta, aurrekoaren aldean kontraesanik izan gabe, Gizarte Zerbitzuetako profesionalentzat erabilgarriagoa izatea espero dugu.



2

**Eskumenen eta egitekoen banaketa,
Babes Berezia Behar duten
Haurren kasuetarako**

► UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUEN ESKUMENAK:

1. Lehen mailako prebentzioaren inguruko programak eta jarduketak garatzea, lehen mailako arreta eskaintzen duten gainerako zerbitzuekin batera, eta horiekin koordinatuta.
2. Programak eta jarduerak garatzea, babes berezia behar duten haurren egoerak goiz antzematea eta jakinaraztea sustatzeko.
3. Haurrek paira litzaketen arrisku eta babesik gabeko egoeren jakinarazpen guztiak jasotzea, partikularrek, profesionalak edo horretan eskumena duten lurralde zerbitzuek eginda, berehalako babes jarduketa behar duten jakinarazpenak kanpo daudelarik; horiek Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuko Gazteria Zerbitzura desbideratuak izango dira, eta zerbitzu horiek bere gain hartuko dituzte.

Kasu horiek ikertzea¹, Foru Aldundiaren eskumenaren barruan egon daitezkeenak izan ezik, hurrengo atalean zehazturik dagoenaren arabera.

Babesik gabeko kasuen ebaluaketa egitea², Foru Aldundira desbideratuak izan direnak eta erakundeak bere gain hartu dituenak izan ezik.

4. Larritasun kasuetan, larrialdiko babes neurriak ezartzeko beharra baloratzea, eta hala bada, neurri horiek bultzatzea.
5. Lehen mailako arreta eskaintzen duten gainerako zerbitzuekin batera, eta era koordinatuan, “zailtasun” egoeran dauden familientzat bigarren mailako prebentziorako programa zehatzak garatzea.
6. Gizartearen ikuspegitik egokiak ez diren edo gizarteratutzat jo ezin diren jokabideak dituzten haur eta gazteentzat, prebentzio eta esku-hartze goiztiarren programak garatzea.
7. Familietan esku hartzeko programak garatzea, babesik gabeko egoera arin edo ertaina pairatzen duten haurrak dituzten familientzat.
8. Familiarekin bizi diren eta arrisku edo babesik gabeko egoeran dauden haurrei zuzeneko laguntza eta arreta eskaintzeko jarduketak eta ekintzak garatzea.
9. Komunitateko eta beste maila batzuetako administrazio zerbitzuek beren gain har dezaten eta zerbitzuok koordinatuta daitezkeen sustatzea, haurrek pairatzen dituzten larritasun arin eta ertainak diren arrisku eta babesik gabeko egoeretan esku hartzeko.

¹ Ikertzea: Babes Berezia behar duen kasuren bat izan litekeena antzeman ondoren, informazioa jasotzea, hurrengo helburuak betetzearren: (1) babesik gabeko egoera badagoela egiaztatzea, eta (2) haurrak pairatutako kaltearen larritasuna baloratzea.

² Ebaluaketa: Informazioa jasotzea helburu hauek betetzeko: (1) babesik gabeko egoerari lotuta dauden kausak edo alderdiak identifikatzea, (2) horiek haurren gain dituzten ondorioak ebaluatzea, (3) familiaren alderdi positiboak eta defizitak identifikatzea, (4) haurrak eta familiak dituzten laguntzaren edota tratamenduaren beharrak zehaztea, eta (5) gurasoak gaitzeko pronostikoa zehaztea.

➔ FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK:

1. Babesteko berehalako jarduketa eskatzen duten babesik gabeko egoerei buruzko jakinarazpenak jasotzea.
2. Hurrengo ikertzea: (a) Babesik gabeko egoeren aurkako jarduketa berehala behar duten eta Foru Aldundiari zuzenean jakinarazi zaizkion ustezko babesik gabeko egoera larriak; (b) Foru Aldundian bertan, babes espedientea irekita daukaten kasuak; (c) adingabe atzerritarrak, bakarrik daudenak; (d) sexu abusuaren susmoak dauden egoerak, adierazle oso zehatzak dituztenak³; eta (d) lurraldeko inongo udalerritan⁴ erroturik ez dauden familiei buruzko jakinarazpenak.
3. Babesik gabeko egoera larria dagoen kasuetan, larrialdiko babes neurriak hartzeko beharra baloratzea.
4. Hurrengo kasuak ebaluatzea: (a) babesik gabeko egoera larria, eta (b) Lurraldeko inongo udalerritan erroturik ez dauden familiek pairatzen duten babesik gabeko egoera.
5. Babesteko neurri legalak hartzea: Tutoretza eta zaintza.
6. Hartzeko behin-behineko eta behin betiko zerbitzuak garatzea (familia harrera, egoitza harrera, adoptatzea).
7. Familia hartzailleak izan daitezkeen gaitasuna/egokitasuna baloratzea (familia adingabearena ez izan edo familia hedatua izan), babes espedientea daukaten adingabeentzat.
8. Familia eta egoitza harrerak formalizatzea, eta gero horien segimendua egitea eta laguntza teknikoa ematea.
9. Barruko nahiz nazioarteko adopzioen eskaerak kudeatzea eta ondorengo segimendua egitea.
10. Familiatan esku hartzeko programak garatzea, babesik gabeko egoera larria pairatzen duten, aldi baterako haurrarendik bereizturik dauden edo bereizketa gertatzeko arrisku handia daukaten familientzat.
11. Tratamendu programa zehatzak garatzea, sexu abusua gertatu den kasuetarako.
12. Emantzipatzeko prestakuntza eta laguntza programak garatzea, babes sistema utzi behar duten edo uzten ari diren gazteentzat.
13. Atzerritarrak diren eta bakarrik dauden adingabeei arreta eskaintzea.
14. Komunitateko eta beste maila batzuetako administrazio zerbitzuek beren gain har dezaten eta zerbitzuok koordina daitezten sustatzea, haurrek pairatzen dituzten babesik gabeko egoera larrietan esku hartzeko.
15. Udaletako gizarte zerbitzuei aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea, bereziki konplexua den neurrizko babesik gabeko egoeren kasuetan, edo agintariak parte hartzea beharrezkoa den kasuetan esku hartzeko.

³ Ikus II. Atala, "Sexu abusuaren susmoen aurrean esku hartzea".

⁴ Udalerritan batean "erroturik" egoteaz ulertzen dugu familia batek bertan bizileku egonkorra edukitzea (bizileku egonkorra edukitzea da bizileku horretan hiru hilabetez gutxienez irautea), udalerritan horretan finkatzeko borondatea edukitzea, seme-alabak bertako eskolara bidaltzea edo bidaltzeko borondatea edukitzea. Familiaren legezko egoera zein den ere (errolaturik egon edo ez; egoitza baimena eduki edo ez, e. a.), udaletako gizarte zerbitzuek hartuko dituzte beren gain kasu horien jakinarazpena, ikerketa eta ebaluaketa. Errotze hori ez dagoen kasuetan –pasadizoko biztanleek hitz egin daiteke, hortaz– ikerketa eta ebaluaketa Foru Aldundiaren esku egongo dira.

➡ ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN BESTE ESPARRU BATZUEN ESKUMENAK:

Administrazio publiko guztiek hurrengo jarduketak burutu behar dituzte:

1. Dituzten eskumen zehatzetan oinarrituta, haurren eta beren familia ingurunearen eskubideak bermatu, bai eta dituzten oinarrizko premiak bete ere (esate baterako, osasuna; bizitzeko baldintzak dituen etxebizitza; eskolatzea; osasun mentalaren arazoak daudenean arreta eskaintzea; minusbaliotasun fisiko edo psikikoak daudenean, edo ikastean atzerapenak gertatzen direnean laguntza espezialdua eskaintzea).
2. Gizarte zerbitzuetan, babes berezia behar duten haurrak badaudela jakinaraztea.
3. Eskumenak gauzatzean, komunitateko tresna eta baliabideek zailtasun egoeran dauden familiei bereziki laguntzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, babesik gabeko egoerarik gerta ez dadin.
4. Gizarte zerbitzuekin lankidetzan aritzea, babes berezia behar duten haurrak daudenean zerbitzu horiei esleitu zaizkien egitekoetan (prebentzioa, atzematea, ikertzea eta ebaluatzea, esku hartzea).



3

**Babes Berezia Behar duten Haurrak
daudenean esku hartzeko prozesua**



4

Esku hartzeko prozesuaren deskribapena

I. Atala

Jakinarazpenak jasotzea

Eskema orokorra

1. Helburuak	29. or.
2. Nork jaso behar ditu jakinarazpenak?	29. or.
3. Erantzun beharreko jakinarazpenak	29. or.
4. Lortu beharreko informazioa	30. or.
5. Egin beharrekoa	30. or.
6. Larritasun egoerak	31. or.
7. Beste zerbitzu batzuetara desbideratzea	33. or.
8. Harremana informatzen duenarekin	33. or.
9. Jakinarazpen eta jasotze protokoloak	33. or.
10. Kasuaren espedientean sartu beharreko informazioa	34. or.

BABESIK GABEKO EGOERA IZAN DAITEKEENAREN JAKINARAZPENA JASOTZEA


Jakinarazpena udaletako gizarte zerbitzuen bitartez jasotzen da. lurreko Gizarte Zerbitzuek jasoko dute jakinarazpena salbuespena diren hurrengo kasuetan: berehalako babes neurria beharrezkoa dela ematen duenean; babes espediente irekita daukaten familiak daudenean; atzerritarrak eta bakarrik dauden adingabeak daudenean; sexu abusua gertatu dela sumatzen denean, gainera oso adierazgarriak diren adierazleak daudenean; eta inongo udalerritan erroturik ez dauden familien kasuetan.
(ikus 2 atala)



Kasuari buruzko hasierako informazioa erdiestea
(ikus 4. atala)
Espediente irekirik ote dagoen egiaztatzea



Informazioa analizatzea, jakinarazitako egoera gizarte zerbitzuen (GZ) eskumenekoa den edo izan daitekeen zehaztearren



1. JASOTZEAREN HELBURUAK

1. Haurren bat babesik gabeko egoeran egon daitekeela jakinarazi nahi duen edonori, profesional nahiz erakundeari, arreta eskaintzea.
2. Adierazitako egoera gizarte zerbitzuek beren gain hartu behar duten edo har dezaketen zehaztea.

2. NORIK JASO BEHAR DITU JAKINARAZPENAK?

Haurren arrisku edo babesik gabeko egoerari buruz egon daitezkeen jakinarazpenak jasotzea udaletako gizarte zerbitzuei dagokie. Zuzenean Foru Aldundira iristen diren jakinarazpenak udaletako gizarte zerbitzuetara desbideratuko dira bertan ikertuak izan daitezzen, Foru Aldundiak beste jarduketa mota batzuk ezartzea erabakitzen duen kasu bereziak izan ezik. Zehazki, Foru Aldundiak hurrengo kasuetan onartuko du jakinarazpena jasotzea eta horien ikerketa egitea:

- Jasotzean dagoen informazioaren arabera, berehala burutu beharreko babes jarduketa, ustez babesik gabeko egoera larria denean.
- Babes espedientea irekita daukaten familiak direnean.
- Atzerritarrak diren eta bakarrik dauden adingabeak direnean.
- Sexu abusua¹ oso era zehatzean azaltzen duten adierazleak daudenean (ikerketa egin ondoren abusua egiaztatu gabe geratzen baldin bada, eta bestelako babesik gabeko egoera larriatik atzematen ez baldin bada, kasua udaletako gizarte zerbitzuetara desbideratuko da, ebaluazioarekin eta esku-hartzearekin jarraitzeko, egokia bada).
- Jakinarazpenak inolako udalerritan “erroturik” ez dagoen familia dela adierazten duenean (ikus “errotzea” zer den azaltzen duen hurrengo paragrafoa).

Udalerriri batean “erroturik” egoteaz ulertzen dugu familia batek bertan bizileku egonkorra edukitzea (bizileku egonkorra edukitzea da bizileku horretan hiru hilabetez gutxienez irautea), udalerriri horretan finkatzeko borondatea edukitzea, seme-alabak bertako eskolara bidaltzea edo bidaltzeko borondatea edukitzea. Familiaren legezko egoera zein den ere (errolaturik egon edo ez; egoitza baimena eduki edo ez, e. a.), udaletako gizarte zerbitzuek hartuko dituzte beren gain kasu horien jakinarazpena, ikerketa eta ebaluazioa. Errotze hori ez dagoen kasuetan –pasadizoko biztanleez hitz egin daiteke, hortaz–, ikerketa eta ebaluaketa Foru Aldundiaren esku egongo dira.

Udaletako eta lurraldeko gizarte zerbitzuek bermatu behar dute beren zerbitzuetara iristen diren jakinarazpen guztiei arreta eskainiko zaiela berehala.

3. ERANTZUN BEHARREKO JAKINARAZPENAK

Aldi baterako edo era egonkorrean, udalerritan edo Gipuzkoako lurralde historikoan bizi diren eta arrisku edo babesik gabeko egoeran aurki daitezkeen 18 urtetik beherako haur eta gazteei buruzko jakinarazpen edo salaketa guztiak onartuko dira (baita pasadizokoak, legez kanpoko egoiliarak, e. a. ere).

Jakinarazpen guztiak onartuko dira, nola egiten diren kontuan hartu gabe (bertaratuta, telefonoz, idatziz), eta informazioa ematen duenak bere burua identifikatu ala ez (hala ere, ez da bul-tzatuko jakinarazpen anonimoak egitea).

¹ Ikus II. Atala: “Sexu abusuaren susmoen aurrean esku-hartzea”

4. LORTU BEHARREKO INFORMAZIOA

Kasua **jasotzen den hasierako unean**, hurrengo informazioa lortzen saiatu behar da:

- Haurra, bere gurasoak edo legezko arduradunak, eta familia nukleoaren beste kide batzuk identifikatzeko datuak.
- Informatzailea edota desbideraketa egiten duena identifikatzeko datuak.
- Jakinarazpenaren arrazoia: Guraso edo legezko arduradunek haurraren aurrean duten jokabidea; haurraren kaltearen edo oinazearen adierazle fisiko edo jokabidekoak ikustea; familiak dituen beste arazo adierazgarri batzuk.
- Informatzaileak edo beste pertsona batzuek adingabearen edota familiaren egoeraren aurrean burututako ekintzak, eta izandako erantzuna.
- Guraso edo legezko arduradunen eta informatzaile edo desbideraketa egiten duenaren artean dagoen harremanaren ezaugarriak.
- Gurasoek edo legezko arduradunek jakinarazpenaren berri ba ote daukaten. Horren berririk ez badaukate, zein izan daitekeen horien erreakzioa.
- Haur edota familiari buruzko informazioa eman dezaketen beste pertsona edota zerbitzu batzuk identifikatzea eta non aurkitzen diren.

5. EGIN BEHARREKOA

1. Lehenik eta behin, adingabeak edo familiak jakinarazpenaren jasotzailea den zerbitzuan espediente irekia daukan egiaztatuko da.
2. Dagoen informazioa aztertuko da, **adierazitako egoera gizarte zerbitzuen eskumenekoa den edo izan daitekeen zehazteko**. Une horretan ez da beharrezkoa egiaztatzea egoera gizarte zerbitzuen eskumenekoa den edo ez; nahikoa da baloratzea egoera hori zerbitzuen eskumenekoa izan daitekeela. Erabaki hori hartzeko, "Babes Berezia behar duten Haur eta Gazteak" izenburuko I. Eranskinean adierazitako irizpideak kontuan hartuko dira.
3. Egin beharreko jarduketara zehaztuko da:
 - Jakinarazpena udaletako gizarte zerbitzuek jasotzen dutenean:
 - a) Zerbitzuak ez du kasua bere gain hartuko, babes berezia behar duen haurra ez dela erabaki delako.
 - b) Ez da ikerketarik egingo, babes berezia behar duen haurra ez dela erabaki delako; baina, beste behar eta arazo batzuk daude familian, eta horregatik kasuari beste egoera bat esleituko zaio zerbitzuan.
 - c) Udaletako Gizarte Zerbitzuak kasua bere gain hartuko du, babes berezia behar duela uste delako, eta ikerketa edo ebaluazioari ekingo zaio.
 - d) Kasua zuzenean desbideratuko da Foru Aldundira.
 - Jakinarazpena Foru Aldundian jasotzen denean:
 - a) Zerbitzuak ez du kasua bere gain hartuko, babes berezia behar duen haurra ez dela erabaki delako.
 - b) Ez da ikerketarik egingo, babes berezia behar duen haurra ez dela erabaki delako; baina, beste behar eta arazo batzuk daude familian, eta horregatik kasuari beste egoera bat esleituko zaio zerbitzuan.
 - c) Foru Aldundiak kasua bere gain hartuko du, babes berezia behar duela uste delako, eta ikerketa edo ebaluazioari ekingo zaio.
 - d) Kasua zuzenean desbideratuko da udaletako gizarte zerbitzuetara, ikerketa edo ebaluazioa egin dadin.

4. Jakinarazpena jaso ondoren egin beharreko hurrengo urratsa **lehentasun maila** esleitzea da, horren arabera ikerketa egiteko. Lehentasuna zehazteko, jakinarazpena jaso duen teknikariak haurra pairatzen ari den, edo paira dezakeen, kaltearen larritasunari buruzko hasierako balorazioa egingo du.

Gerta daiteke jakinarazpena jasotzean emandako informazioa nahikoa ez izatea babes gabeko egoeran egon daitekeen haurra eta bere familia aurkitzeko; horrelakoetan, ertzaintzari emango zaio horren berri, aurkitu eta identifikatuak izan daitezten. Kudeaketa horien emaitzen zain egongo da, eta horren arabera erabakiko da zer egingo den. **Hiru hilabeteko** epean jarduketara horiek eskatutako informazioa eskaintzen ez badute, kasua itxi egingo da.

<i>Lehentasun Maila</i>	<i>Ikerketa osatzeko denbora epeak²</i>
<p>1. mailako lehenetasuna (kasu larriak) Eskura dagoen informazioaren arabera, haurraren oinarriko osasun edo segurtasuna arrisku handi eta zuzenean dagoela edo egon daitekeela uste da, eta ez dago informazio hori gezurtatzen duen beste iturri bateko daturik.</p>	Berehala ekingo zaio ikerketari. Ikerketa bukatuko da hiru egun naturaletan, gehienez ere.
<p>2. mailako lehenetasuna Haurrak pairatzen duen babesik gabeko egoerari buruzko informazioa eskasa da, baina jasotako datuek adierazten edo sumarazten dutenez, ez dirudi haurraren oinarriko osasuna edota segurtasuna arrisku bizi eta zuzenean daudenik edo egon daitezkeenik.</p>	Jakinarazpena jaso ondoren, lau asteko epean, gehienez ere, bukatu behar da ikerketa.
<p>3. mailako lehenetasuna (zuzenean joko da ebaluaketara, edo "Balorazioa esku-hartzean" fasera) Haurrak pairatzen duen babesik gabeko egoerari buruzko jakinarazpena jasotzean dagoen informazioak behar diren datu guztiak ditu, eta haurraren oinarriko osasun edota segurtasuna bermaturik daudela adierazten duten datu fidagarriak daude.</p>	Ez da beharrezkoa ikerketa egitea. Kasua zuzenean joango da ebaluaketara (jakinarazpena jaso ondoren lau asteko epean, gehienez ere, egin behar da), edo "Balorazioa esku-hartzean" fasera, familietan esku hartzeko talde edo programa batean.

6. LARRITASUN EGOERAK

Hurrengoak dira haurraren osasun eta bizirako arrisku bizia izan daitezkeen eta larrialdiko babes neurriaren beharra izan dezaketen egoeretako batzuk:

- Gurasoak edo legezko arduradunak ez daude haurra zaintzeko prest, edo haurrak ez du etxean geratu nahi.
- Alkohol sindrome fetala edo abstinentzia sindromeaz jaiotako umea da (salbuespena dira metadonaren tratamendua egiten ari diren amen seme-alabak).
- Haurra ez dago asebeteta gutxieneko behar fisikoei dagokienez (janaria, jantziak, babesa eta zainketa medikoa; eta gurasoek edo legezko arduradunek ez dute horren ardura hartu nahi, edo ez dira horretarako gai (a) bitarteko ekonomikoak baldin badituzte ere, edota (b) arazo hori konpontzeko eskaintzen zaizkien diru laguntzak edo bestelako laguntzak errefusatzeko dituztelako).
- Haurrak behar duen gutxieneko zainketa eskaintzeko gurasoek edo legezko arduradunek gaitasunik ez daukatela ziurtatzen duten froga psikologiko edo medikoak daude, eta

² Ez daude barne, dituzten berezko ezaugarriak direla-eta, ikerketa osatzeko epe luzeagoa behar duten sexu abusuen kasuak.

kasuaren ebaluaketa egiten den bitartean ez dago defizit hori estaltzeko baliabiderik (esate baterako, familia, baliabide publikoak).

- Tratu txar fisikoak edo elikatzeko arduragabekeria haurra hiltzeko arriskuan jartzeko bezain larriak direla egiaztatzen duten froga medikoak daude.
- Haurrak tratu txarrak behin eta berriro jaso dituela ziurtatzen duten froga medikoak daude, tratatu gabeko lesioak aurkitu direlako, eta dauden lekuan edota dituzten ezau-garriak ikusita, tratu txarren ondorioa direla dirudi.
- Tratu txarren edo abandonu egoeraren froga mediko edo psikologikoak daude, eta esku hartzen ez bada, haurraren bizirako arriskutsua daiteke; bestalde, haurren gurasoek edo legezko arduradunek uko egiten diote edozein laguntza motari.
- Haurrak emoziozko kalte larriak jasan ditu, gurasoengandik edo legezko arduradunengandik pairatzen dituen tratu txarren edo abandonu emozionalaren ondorioz, eta guraso edo legezko arduradunek haurra errefusatzan dute edo ez dira haurra babesteko edo laguntzeko gauza.
- Guraso edo legezko arduradunek haurra hilko dutela mehatxatu dute ahoz, edo hiltzen saiatu dira (lesio larriak gertatu ez badira ere). Azterketa medikoek haurra nahita pozoi-tzeko saiok egin direla frogatzen dute, edo haurraren gorputzean arma hilgarriaz eraso egin dutela edo pisu handiko objekturen batekin behin eta berriro jo egin dutela adierazten duten seinaleak daude.
- Haurrak bere buruari min egingo diola adierazten du, eta guraso edo legezko arduradunek ez dute neurririk hartzen hori saihesteko edo gerta ez dadin.
- Berriro ere, tratu txar edo abandonu egoera larria gertatu da, familiari laguntza zerbitzuak eskaini ondoren.
- Haurrak sexu abusuak jasan ditu, senideren baten edo familiaren ezagunen baten aldetik, eta guraso edo legezko arduradunek ez dute ezer egin haurra babesteko.
- Gurasoek edo legezko arduradunek haurra sexualki esplotatzen dute, edo prostituzioan jardutera behartzen dute.

Familiaren barruko sexu abusuak gertatzen direnean, abusua egiten duena etxean bizi baldin bada, edota haurrarengana erraz iritsi badaiteke, beharrezkoa izango da larrialdiko babes neurriak hartzea, hurrengo egoeretan:

- Haurra babesten duen pertsona heldurik ez dagoenean, eta abusuak egiten dituen guraso bat edo legezko arduradun bat denean.
- Aitak eta amak edo legezko arduradunek abusuak egin dituztenean.
- Sexu abusua indarkeriaz egin denean, edo haurrari lesio fisikoa egin diotenean.
- Haurrari larriak diren lesio fisikoak egin ondoren, tratamendu edo azterketa medikoaren beharra izan duenean, eta abusuak egin dituen etxean oraindik bizi denean, edo haurrarengana iritsi daitekeela uste denean.
- Abusuak egiten dituenak haurra hiltzeko edo kalte fisikoa egiteko mehatxua egin dionean, bere desioak betearazteko edo abusua pairatzen duela ez adierazteko.
- Abusua gauzatzean, ekintza arraroak edo erritualak egin direnean (esate baterako, haurra gatibu egon da, edo enemak jarri dizkiote).
- Abusuak egin dituenak haurra ezgaitu duenean drogak edota alkohola emanda.
- Abusurik egiten ez duen guraso edo legezko arduradunak haurrari sinisten ez dionean, eta abusuak egiten dituenak babesten duenean edo harekiko loturak mantentzen dituenean.

Sexu abusuak egiten direnean, larrialdiko babes neurriak hartzeko beharra eta familia harremanak kautelaz etetea ere aintzat hartu beharko litzateke seriooki, hurrengo egoeretan:

- Abusua egiten dela onartzen ez denean.

- ➡ Abusua egiten ez duen gurasoak anibalentzia adierazten duenean haurrak abusan izan duen jarreran (esate baterako, abusua gertatu dela baina haurrak eragin edo bulztatu duela uste du).
- ➡ Abusua egiten ez duen gurasoak haurrari sinisten dionean, baina ezkontidearen aldetik tratu txarrak jasotzen dituenen, zalantzagarrria den babes irudia delarik, hortaz.
- ➡ Abusua egiten ez duen gurasoak haurtzaroan sexu abusua pairatu eta argi eta garbi adierazten duenean artegasun edo kezta bere seme-alaba babesteko orduan.
- ➡ Biktima haurdun geratu denean sexu abusuaren ondorioz, eta babes emozionalik ez daukanean.
- ➡ Biktimari sexu bidez kutsatzen den gaixotasuna erantsi zaionean, eta abusuak egin dituen ezezaguna izanik ere, etxean bizi dela sumatzen denean.
- ➡ Haurrak etxetik irten nahi eta hala eskatzen duenean.

Babesik gabeko egoera larriaren ondorioz haurraren oinarritzko osasun eta osotasunerako arrisku larria eta berehalakoa dagoela baloratu baldin bada, lurraldeko Gizarte Zerbitzuek baloratu beharko dute, lehenik eta behin, arrisku horri aurre egitea dagoen, familiaren etxebizitzatik irtetea ez diren larrialdiko babes neurrien bitartez. Larrialdiko neurri gisa haurra bere senideengandik bereiztea erabakiko da, bakar bakarrik, haurraren oinarritzko osasun eta osotasunerako arrisku larria eta berehalakoa egonda, beste neurri batzuk erabiliz konpontzerik egon ez denean. **Ahal bada, babes neurria hartu baino lehen, elkarrizketa egingo da haurraren guraso edo legezko arduradunekin.** Etxetik berehala irtetea erabakiko da (familia hedatuarekin, harrera familia batekin bizitzeko, edo harrera egoitza batera joateko, egoeraren arabera), kautelazko neurri gisa. Ondoren, kasuaren ebaluazioa egingo da, eta neurri horien ordezkoko beste neurri batzuk ere baloratuko dira.

Haurra familiaratik aldi baterako bereizteko beharra dagoenean, ahalegin guztiak egin beharko dira neurri hori gurasoek edo legezko arduradunek nahiz adingabeak aldeztu aurretik onartzen. Hori baldintza garrantzitsua da neurriak arrakasta izan dezan, eta haurraren eragin traumatikoa gertatzea saihesten dadin.

7. BESTE ZERBITZU BATZUETARA DESBIDERATzea

Beste zerbitzu batzuetara egiten diren desbideraketak horren arrazoiak argi eta garbi deskribatzen dituen idatzizko txostenaren bitartez egingo dira beti. Txostenaren kopia bat gorde beharko da kasuaren espedientean edo karpetan.

8. HARREMANA INFORMATZEN DUENAREKIN

Komenigarria da Gizarte Zerbitzuek (udalerrri nahiz lurraldekoek) hasieran demanda egin edo informazioa eman duenari –profesionala izan edo ez– familiari laguntza ematen ari zaiola ahoz edo idatziz adieraztea, eta adingabearen inguruan azaldutako interesa eta zerbitzuarekin izandako kolaborazioa eskertzea. Nolanahi ere, haurrak eta bere familiak daukaten intimitate eskubidea errespetatu beharko da, eta informazioaren konfidentzialtasuna mantendu egingo da.

9. JAKINARAZPEN ETA JASOTZE PROTOKOLOAK

Gida honen bukaeran, hainbat jakinarazpen eta jasotze protokolo aurki daitezke, lurralde historikoko zenbait udalerritan erabiltzen ari direnak. Horietako batzuk Lehen Mailako Arreta alorreko profesionalen artean banatu dira, idatzizko jakinarazpenak egiteko (jakinarazpen protokoloak), eta beste batzuk Gizarte Zerbitzuetako profesionalak erabiltzen dituzte, jakinarazpenek dakarten informazioa jasotzeko (jasotze protokoloak).

Protokolo horiek adibideak besterik ez dira, eta nahierara zuzendu egin daitezke, erabili nahi diren zerbitzuetako baldintza berezietara egokitzearren.

10. KASUAREN ESPEDIENTEAN SARTU BEHARREKO INFORMAZIOA


Informazioa jasotzen duen zerbitzuak kasu bat babes bereziaren barruan sar daitekeela (bai udalerriko bai lurraldeko Gizarte Zerbitzuen aldetik) erabakitzen duenean, berehala irekiko da espediente bat, eta bertan jasoko da dagoen informazioa (horretarako gida honetan proposatutako protokoloak erabil daitezke) nahiz egingo diren idatzizko jakinarazpen guztiak.

II. Atala

Sexu abusuaren susmoen aurrean esku hartzea



SEXU ABUSUEN ADIERAZLE MOTAK



SEXU ABUSUA ANTZEMATEKO ADIERAZLEAK¹

1. SEXU ABUSUAREN ADIERAZLE GUZTIZ ZEHATZAK

1. Guraso irudiek (edo beste pertsona heldu batzuek) haurrarekin dituzten sexu portaerak, edo haurrak ikusten dituenak, erabat desagokiak direla adierazten duen informazio fidagarria dago.
2. Haurrak berak adierazi du sexu abusua pairatu duela.
3. Txosten mediko batek abusua egin dela egiaztatzen du, edo abusua egitearen susmoak azaltzen ditu.
4. Haurraren gan hurrengo adierazle fisikoetakoren bat aurki daiteke:
 - Lesioak sexu organoen edo uzki aldean:
 - Emamintzean gertatu berri diren edo orbainen ondorio diren urratuak.
 - Emamintzaren diametroa cm bat baino zabalagoa izatea.
 - Baginako muki mintzaren urratua edukitzea.
 - Uzkiaren dilatazioa eta uzki esfinterra hipotonikoa izatea.
 - Handituak, gorrituak eta lesioak edukitzea, hazka egitearen ondorioz.
 - Baginatik edota uzkitik odol jarioak izatea.
 - Sexu organoen infekzioak, edo sexu bidez kutsatzen direnak (sifilia, blenorragia, jaiotzean ez zeukan hiesa, kondiloma puntazorrotzak –garatxo genitalak ere izendatuak–, baginako fluxu infekziosoa, haurraren flora arruntean ohikoak ez diren germenak aurki daitezkeelarik –klamida, trikonomak–).
 - Haurdun egotea.

2. EGON LITEKEEN SEXU ABUSUAREN ADIERAZLEAK

(Kontuan hartu behar da beti egon litekeen sexu abusuaren hipotesia, seguruena egia izango delako)

1. Adin horretako haurraren ezohikoak diren jokabide hipersexualizatuak edota autoerotikoak²:
 - Masturbazio konpulsiboa (horretaz ohar daiteke, hori delako haurraren interes handiena pizten duen jarduera, edo haurrak denbora gehien horretan ematen duela; baita ere, masturbatzeari utzi ezin diolako, ekintza gaitzetsi lezakeen irudi bat aurrean egonda ere).

¹ Intebi, I. eta Osnajanski, N. (2003). Maltrato de niños, niñas y adolescentes. Detección e intervención. ISPCAN – Familias del Nuevo Siglo.

² Jokabide hipersexualizatuak adierazten dute haurrak helduen sexu jokaeren ezohiko ezagutza duela, eta erotizatze goiztiarra daukela. Denbora laburrean eta ahal den ziurtasun handinez, esploratzeko jokaera ez kaltegarriak direla edo larriagoa den zerbait gertatzen ari dela desberdindu ahal izatea oso lagungarria da sexu abusua antzeman ahal izateko. Horregatik, nahastea edo eztabaida sortu ohi duten alderdi batzuk argituko ditugu:

- Haur guztiek, 4 eta 5 urte bitartekoak direnean, interesa adierazten dute sexu gaietan, eta galderak egiten dituzte anatomiaren sexu desberdintasunari buruz, eta umeak nola jaio eta nola osatzen diren jakin nahi izaten dute.
- Adin horren ingurukoak diren haur guztiek aztertzen dute euren gorputza, eta jakin-mina sortzen die gurasoenak (batez ere bere sexuak ez direnenak). “Medikutan” jolasten dira, euren sexu organoak aztertzen eta ukitzen dituzte. Jakin-mina sortzen diete, halaber, emakumeen bularrek edo helduen sexu organoek.
- Bai jakin-minak bai haurren jolas sexuak alde erogenoekin lotuta dauden sentrazioak aztertzei aukera eskaintzen diete (barne dago masturbazioa), eta garapenaren aldi arruntaren barruan daude.

- Edozein adinetan egokiak ez diren jokaerak (esate baterako, abereen sexu organoak aztertzea –bereziki ondostea–; edo haien zuloetan objektuak sartzen saiatzea).
 - “Medikutan”, “nobietan” edo “aitaxo eta amatxotan” jolastea, aldagarri bitxi bat eginda: sexu abusua pairatzen duten hurrek proposatzen duten jolasetan beti azaltzen dira ahoko sexua, uzki edo baginako koito, sexu organoetako zuloetan objektuak sartzea edo elkarri masturbatzea irudikatzen duten irudikapenak edo ekintza zehatzak.
 - Indar fisikoa edo behartze psikologikoa erabiltzea, jolas sexualetan beste haur batzuek parte hartzea lortzeko.
 - Sexualizatzeko goiztiarra: jolas sexual goiztiarrak, adin horretan ezohikoa den sexuaren aurreko jakin-mina adierazten dutelarik.
 - Askoz ere txikiagoak diren edo eboluzioaren beste une batean dauden beste haur batzuekin sexu jolasak egitea.
 - Helduengana era bitxian hurbiltzea: helduaren sexu organoak ukitzen edo usaintzen saiatzea; makurtuta dagoen pertsona batengana atzetik hurbiltzea eta, jarrera horretan egonda, kopula mugimenduak egitea; ohean, helduaren gainean jartzea eta koitoaren mugimenduak egitea; musua ematen duenean, mingaina sartzea eskatzea, edo sartzen saiatzea.
 - Nerabeengan: Sexu promiskuitatea, prostituzioa, gehiegizko sexu inhibizioa.
2. Haurrak adin horretan ezohikoak diren sexu ezagupenak edukitzea.
 3. Haurraren gurasoetako batek edo senideren batek sexu abusua gertatzen ari den susmoak adierazten ditu.
 4. Haurrarekin bizi diren helduek haurrarekin duten sexu portaerak egokitasunaren aldetik “zalantzazkoak” direla adierazten duen informazioa dago edo hori sumatzen da.

3. SEXU ABUSUAREN ADIERAZLE ZEHAZTASUN GABEAK

(Desoreka horiek ez daukate kausa harremanik sexu abusuarekin, eta sor daitetzke sexu abusurik egon gabe; baina, estres handiko egoerekin lotura estua dutenez, desoreka horiek susmagarriak dira. Kontuan hartu eta baloratu behar da beti sexu abusuaren hipotesia)

1. Adierazle fisikoak:
 - Zenbait desoreka psikosomatikoak, hala nola, sabelaldean behin eta berriro errepikatzen den mina edukitzea, eta kausa organikorik ez duten buruko minak edukitzea.
 - Elikaduraren desorekak (nerbio bulimia eta anorexia).
 - Atzeragarriak diren fenomenoak, esate baterako, enuresi eta enkopresia, esfinterrak kontrolatzea jadanik lortu duten haurrengan.
 - Gemuaren infekzioak behin eta berriro hartzea, identifika daitekeen kausa organikorik edo kanpikorik gabe.
2. Adierazle psikologikoak eta jokabidezkoak:
 - Goiz haurtzaroan (hiru urtetik beherakoak):
 - Uzurtasun soziala.
 - Jarduera mailan aldaketak egotea, portaera erasotzaile edo atzeragarriekin batera.
 - Pertsona edo egoera jakinen aurrean azalpenik ez duen beldurra adieraztea.
 - Loaren erritmoan arazoak edukitzea.
 - Eskolaurreko haurrengan:
 - Trauma osteko estresaren sindromea.
 - Hiperaktibitatea.
 - Enuresi eta enkopresia.
 - Loaren desorekak (amesgaiztoak, gaueko izua).
 - Fobiak edota beldur handiak.
 - Hainbat motatako jokaera konpultsiboak.
 - Fenomeno disoziatiboak.

- Eskolako haurren eta aurre nerabeengan:
 - Aurreko adin-aldietan azaldutako edozein desoreka.
 - Bat-batean sortzen diren eta adieraztezinak diren ikasteko zailtasunak edo errendimenduaren arazoak.
 - Etxetik ihes egitea.
 - Deigarria den herabetasuna, edo aitzitik, etsaitasun eta oldarkortasun handia, etxean, edota lagun eta ikaskideekin.
 - Gainmoldaera, pseudoheldutasuna.
 - Arazoak aginte irudiekin, eta adierazgarria den helduenganako mesfidantza handia.
 - Lapurreta txikiak.
 - Maiz gezurrak esatea.
 - Etsipen eta tristura sentimenduak.
 - Eskolan ohiko ordutegitik kanpo geratzeko joera.
- Nerabeengan:
 - Indarkeriazko portaerak, nerabearen osotasun fisikorako arriskutsuak direnak.
 - Uzkurtasuna gainmoldaera.
 - Etxetik ihes egitea.
 - Drogak kontsumitzea.
 - Delinkuentzia.
 - Bere buruari ebaketak egitea eta erasotzaileak diren bestelako jokaerak.
 - Bere burua hiltzen saiatzea.
 - Desoreka disoziatiboak.
 - Elikadura jokaeraren desorekak (anorexia, bulimia).


III. Atala

Ikerketa

Eskema orokorra

1. Helburuak	47. or.
2. Nork egin behar du ikerketa?	47. or.
3. Zein egoeratan egin behar den ikerketa?	47. or.
4. Espedientea irekitzea	49. or.
5. Jarraitu beharreko prozedura	49. or.
6. Babesik gabeko egoera badagoen zehaztea	50. or.
7. Babesik gabeko egoeraren larritasuna eta errepikatzeko dauden aukerak ebaluatzea:	
7.1. Larritasuna ebaluatzea	51. or.
7.2. Babesik gabeko egoera berriro gertatzeko dauden aukerak ebaluatzea	52. or.
8. Ikerketaren ondoren jardutea	56. or.
9. Kasuaren erantzukizun nagusia zein zerbitzura den zehaztea: tako ala Lurraldeko Gizarte Zerbitzuena	57. or.
10. Espedientean sartu beharreko informazioa	58. or.

JAKINARAZPENA JASO ONDOREN, EGIN BEHARREKO URRATSAK: IKERKETA FASEA



1. HELBURUAK

1. Babesik gabeko egoera dagoela egiaztatzea.
2. Egoeraren larritasuna, errepikatzeo dauden aukerak, eta haurren oinarrizko osasun eta osotasunak dauden arriskua baloratzea.
3. Larrialdiko neurriak hartzeko beharra baloratzea, eta egokitzea, beharrezkoa bada.

2. NORR EGIN BEHAR DU IKERKETA?

Ikerketa Udaletako Gizarte Zerbitzuen ardura da, hurrengo egoeretan izan ezik: (a) zuzenean Foru Aldundian jakinarazi diren eta ustez babesik gabeko egoera izanik, horren aurkako jarduketa berehalakoa eskatzen duten babesik gabeko egoera larrien kasuak; (b) babes espedientea Foru Aldundian bertan irekita daukaten kasuak; (d) atzerritarrak diren eta bakarrik dauden adingabeak; (e) sexu abusuen adierazle oso zehatza daukaten kasuak¹, eta (d) lurraldeko inongo udalerritan erroturik ez dauden familiei buruzko jakinarazpenak², Foru Aldundiak ikertuak izango direnak.

Ikerketa lan zaila eta konplexua izan daiteke, hortaz, garrantzitsua da ikerketa egin behar duten profesionalak horretarako egokia den prestakuntza edukitzea:

- Haurren Babesean berariazko prestakuntza (legezko ingurunea; babesik gabeko egoeren adierazleak; tratu txarrak ematen dituzten edo arduragabeak diren familien dinamika eta ezaugarriak; haurrengan sortzen dituzten eraginak).
- Babesik gabeko egoeran dauden familiekin eta haurrekin lanean aritzeko alde aurreko esperientzia.
- Ikerketan sor daitezkeen zailtasun bereziei aurre egiteko berariazko entrenamendua (esate baterako, familiakoek informaziorik eman nahi ez izatea).
- Haurrei egiten zaizkien elkarrizketetan berariazko prestakuntza, ezin garrantzitsuagoa baita familia barruko sexu abusua egiten dela susmatzen denean, kasu horiek ikertzeko.
- Nortasun ezaugarri jakin batzuk: heldutasuna, malgutasuna eta enpatiarako gaitasuna.
- Beste profesional batzuen babesa edo laguntza teknikoa (talde lanaren edo kanpoko aholkularitzaren bitartez), bereziki zailak eta konplexuak diren kasuetarako.

Hoberena da ikerketa gizarte lan eta psikologiaren alorrekoak diren eta gorago aipatutako ezaugarriak dituzten profesionalak osaturiko taldeek egitea.

3. ZEIN EGOERATAN EGIN BEHAR DA IKERKETA?

Ikerketa hurrengo egoeretan egin behar da:

- a) Haur batek gurasoen edo legezko arduradunen aldetik egokia ez den tratua jasotzen ari dela edo jasotzea litekeela dioen informazioa dagoen guztietan.
- b) Haur batek beste heldu edo adingabeen aldetik erasoak edo egokia ez den tratua pairatzen ari dela edo pairatzea litekeela dioen informazioa dagoen guztietan, haurren guraso edo legezko arduradunak haurra babesteko gauza ez direlarik, edo zailtasun handiak dituztelarik.

¹ Ikus gida honetako II. Zatia: "Sexu abusuen susmoen aurrean esku hartzea"

² Udalerrri batean "erroturik" egoteaz ulertzen dugu familia batek bertan bizileku egonkorra edukitzea (bizileku egonkorra edukitzea da bizileku horretan hiru hilabetez gutxienez irautea), udalerrri horretan finkatzeko borondatea edukitzea, seme-alabak bertako eskolara bidaltzea edo bidaltzeko borondatea edukitzea. Familiaren legezko egoera zein den ere (errolaturik egon edo ez; egoitza baimena eduki edo ez, e. a.), udaletako gizarte zerbitzuek hartuko dituzte beren gain kasu horien jakinarazpena, ikerketa eta ebaluaketa. Errotze hori ez dagoen kasuetan –pasadizoko biztanleez hitz egin daiteke, hortaz– ikerketa eta ebaluaketa Foru Aldundiaren esku egongo dira.

c) Adingabea eskolara ez agertzea, maiz edo era orokorrean.

Egoera horietako batzuetan, jakinarazpena jasotzean eskuratutako informazioa nahikoa izango da, une horretan egiten diren galdera garrantzitsuenei erantzuteko, hala nola: ba al dago babesik gabeko egoerarik?; zer-nolako larritasuna dauka?; arriskuan al dago haurra?. Beste batzuetan, aldiz, informazioa ez da osaturik egongo, eta Gizarte Zerbitzuek bildu beharko dute informazioa. Informazioa biltzeko presak kasuak dirudienek daukan larritasunaren arabera izango da:

<i>Lehentasun maila</i>	<i>Ikerketa osatzeko denbora epeak³</i>
<p>1. mailako lehentasuna (kasu larriak) Eskura dagoen informazioaren arabera, haurraren oinarrizko osasun edo segurtasuna arrisku handi eta zuzenean daudela edo egon daitezkeela uste da, eta ez dago informazio hori gezurtatzen duen beste iturri bateko daturik.</p>	Berehala ekingo zaio ikerketari. Ikerketa bukatuko da hiru egun naturaletan, gehienez ere.
<p>2. mailako lehentasuna Haurrak pairatzen duen babesik gabeko egoerari buruzko informazioa eskasa da, baina jasotako datuek adierazten edo sumarazten dutenez, ez dirudi haurraren oinarrizko osasuna edota segurtasuna arrisku bizi eta zuzenean daudenik edo egon daitezkeenik.</p>	Jakinarazpena jaso ondoren, lau asteko epean, gehienez ere, bukatu behar da ikerketa.
<p>3. mailako lehentasuna (zuzenean joko da ebaluaketara, edo "Balorazioa esku-hartzean" fasera) Haurrak pairatzen duen babesik gabeko egoerari buruzko jakinarazpena jasotzean dagoen informazioak behar diren datu guztiak ditu, eta haurraren oinarrizko osasun edota segurtasuna bermaturik daudela adierazten duten datu fidagarriak daude.</p>	Ez da beharrezkoa ikerketa egitea. Kasua zuzenean joango da ebaluaketara (jakinarazpena jaso ondoren lau asteko epean, gehienez ere, egin behar da), edo "Balorazioa esku-hartzean" fasera, familietan esku hartzeko talde edo programa batean.

Beste egoera batzuetan, ez da beharrezkoa izaten ikerketa prozesu osoa, gida honetan definituta dagoen moduan, egitea; halakoetan, hala ere, adingabeek izan duten zaintza eta arreta mailari buruzko informazioa gutxienez jaso beharko litzateke. Kasu horietan, Gizarte Zerbitzuetara iristen den hasierako informazioak ez du babesik gabeko egoera zuzenean adierazten, haurrak edo familiak dituzten arazoak baizik. Oso litekeena da, kasu horien portzentaje batean, arazo horiek oraindik antzeman ez den babesik gabeko egoerari lotuta egotea. Horregatik, kasu horien aurrean aurkitzen direnean, Gizarte Zerbitzuek informazioa lortu beharko lukete, haurra, familian, egokia den tratua jasotzen ari den edo ez jakiteko. Ondokoak dira egoera horiek:

d) Udaletako Gizarte Zerbitzuek ezagutzen dituzten edo antzeman dituzten kasuak, kasu horiei dagokienez adingabeek moldatzeko arazo pertsonal, eta familian, eskolan edota gizarteantean moldatzeko arazo esanguratsuei buruzko informazioa dagoelarik.

³ Se exceptúan los casos de abuso sexual, en los que, por sus características particulares, puede requerirse un plazo de tiempo superior para completar la Investigación.

- e) Udaletako Gizarte Zerbitzuek lagundutako familiak, hurrengo arrisku ezaugarrietako bat edo batzuk dituztenak:
- Seme-alabak dituzten eta iraganean babesa jaso duten aita edo ama izatea, beste seme edo alaba bat izan dutenak.
 - Iraganean babesa jaso duten gazteak, seme edo alabarik izan dutenak eta gurasoen egitekoa betetzeko ustez eragin negatiboa sor diezaieketen zailtasunak edo mugak dituztenak.
 - Guraso irudiak, osasun mentalaren arazoak, emoziozko ondoeza edo desoreka edo heldutasunik eza dituztenak.
 - Gaitasun intelektualak mugaturik dauzkaten aitak edo amak.
 - Alkohol, droga edo farmako gehiegi hartzen dituzten edo horren susmoak sortzen dituzten aitak edo amak.
 - Gazteak diren aitak eta amak, laguntzarik gabeak.
 - Seme-alabei mugak jartzeko, eta seme-alabak behar bezala gainbegiratzeko zailtasun handiak dituzten aita eta amak.
 - Jarduera baztertzaille edo ilegaletan (prostituzioa, adibidez) aritzen diren helduak dituzten familiak.
 - Jokaera bortitzak dituzten aitak eta amak.

4. ESPEDIENTEA IREKITZEA

Ikertuko diren kasu guztien espedientea ireki egingo da (salbuespena da espedientea jada irekita dagoenean). Ikerketa egin ondoren, ez babesik gabeko egoerarik ez horren arriskurik ez dagoela egiaztatzen baldin bada, espedientea itxi egingo da.

5. JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Zenbait kasutan, hasierako informazioak argi eta garbi adieraziko du babesik gabeko egoera dagoela eta baita daukan larritasuna ere, hori argi eta garbi frogatzen duten agiriak edo testigantza eztaba daezinak daudelako (adibidez, tratu txar edo abandonuari buruzko txosten medikoa, edo horren lekukoak). Beste batzuetan, hasierako informazioak babesik gabeko egoera egon daitekeela adieraz dezake, baina, dauden datuak lausoak edo osatu gabeak dira, edo ez dago guzti fidagarriak diren segurtasunik. Horrelakoetan, ikerketaren lehenengo helburua datu horiek egiaztatzea izango da, eta babesik gabeko egoera dagoen argi eta garbi zehaztea.

Hori erdiesteko, hurrengo prozedura beteko da:

1. **Kasuaren aurrekariak zerbitzuan** aztertuko dira. Dagoen informazioa berraztertuko da. Informazioari buruzko zalantzarik sortuz gero, beharrezkoa izango da informazioa alderatzea eta egiaztatzea. Behar izanez gero, demanda jarri edo informazioa eman duen lehenengo pertsonarekin harremanetan jarriko da.
2. **Larritasun kasuetan, haurra edota familia dagoen lekura joango da teknikaria,** gertatutakoari buruzko informazio zuzena biltzearen, eta haurraren egoera baloratzearen. Beharrezkoa edo gomendagarria dela uste baldin bada, zerbitzuko beste teknikari baten edo segurtasun indarren laguntza eskatuko da.
3. **Foru Aldundian eta familia lehenago bizi izan den udalerrietako gizarte zerbitzuetan, informazioa** eskatuko da, kasuaren espedientea dagoen eta lehenago haurrek egiaztatutako tratu txarrak pairatu dituzten jakiteko, tratu txar mota eta horien larritasuna zehazteko, abusuak egin dituenak identifikatzeko, eta kasuan egin diren esku-hartzeak ezagutzeko. Era berean, garrantzitsua da egiaztatzerik egon ez zen tratu txarren susmoei buruzko informazioa jasotzea.
4. Ahal den guztietan, hobe da espedienteetako informazioa jaso ondoren, **guraso edo legezko arduradunengana** jotzea, ikerketa egiten ari dela jakinarazteko, haiei buruzko informazio

zuzena biltzeko, eta aurreikusten diren pausuen berri emateko. Pertsona horiek aurkitu ezin direnean edo elkarrizketa nahita saihesten dutenean bakarrik aintzat hartuko da elkarrizketa ez egitea (hori egin beharreko txostenean adierazi beharko da).

5. Familia eta haurraren egoerari buruzko informazioa eman lezaketen **iturri guztien** gaineko informazioa jasoko da: osasun zerbitzu, eskola, haurtzaindegi, ertzaintza, eta abarri buruzkoa.
6. Egokia bada, hurrengoak ere elkarrizketatuko dira:
 - **haurra**,
 - **lekukoak**, lekukorik egon bada, tratu txar edo abandonu egoera ikusi duena, eta
 - familia nukleoaren beste kide batzuk, senideak edo familiaren ezagunak.

Ikerketan, **OSO GARRANTZITSUA DA susmoa adierazten duen haurraren egoera baloratzeaz gain, familiaren etxean bizi diren gainerako anai-arreben edo beste haur batzuen egoera baloratzea, bereziki oso gazteak direnen egoera.**

Ezin garrantzitsuagoa da une horretan jasotzen den informazioa (a) nahikoa, (b) fidagarria izatea eta (c) behar bezala dokumentaturik egotea, era horretan ziurta baitaiteke egiten diren balorazioak eta ateratzen diren ondorioak zuzenak izatea.

6. BABESIK GABEKO EGOERA BADAGOEN ZEHAZTEA

Babesik gabeko egoera badagoen bi adierazle motaren bitartez zehaztu daiteke:

1. **Betetzen ez diren haurraren oinarritzko beharrei buruzko informazioaren bitartez** (ikus adierazleak, atal honi dagokion eranskinean):

Haurren beharrak

- **Behar fisikoak:**
Elikadura, tenperatura, higiena eta lo egitea.
Benetako arriskuetatik babestea eta osotasun fisikoa.
Osasuna mantentzeko edo suspertzeko era egokian zaintzea.
- **Behar kognitiboak:**
Jarduera fisikoa esploratzailea eta estimulatzailea. Zentzumen estimulatzailea. Esperientzia berriak ematea.
Heziketa garapena estimulatzeko.
Errealitatea ulertzea eta era ez formalean ikastea, helduarekin batera egiten dituen behaketa eta jardueren bitartez.
- **Emozio eta gizarte beharrak:**
Guraso irudiekin elkarrekintza, berezkoa eta atsegingarria.
Segurtasun emozionala; gurasoekiko harremanetan emozio laguntza eta segurtasuna sentitzea.
Maitasuna eta onarpena.
Jarduteko eta imitatzeko helduen ereduak edukitzea, osasuntsu eta irisgarriak direnak.
Egokiak diren aginte irudiak edukitzea. Haurraren jokaeran diziplina, gida eta orientabidea agertzea.
Adinari egokitutako kontrol sendoa.
Irakaskuntza egokia eta pixkanakakoa, jokaerara molda daitezkeen mugak garatzera bideratuta.
Norberaren jokaeraren eta gizarte jokaeraren ohiturak eratzeko laguntza. Balio moralak irakastea.
Gizarte harremanen sare bat eta ingurunearekin elkarrekin edukitzea. Ingurunearekin jolas elkarrekin.
Pixkanaka parte hartzea eta autonomia edukitzea. Autonomia pixkanaka erdiesteko aukera eta indarra ematea.
Gizarte elkarrekin sor daitezkeen arazoak konpontzen laguntzea. Irudizko arriskuetatik babestea.

2. Gurasoak **erasoren** bat egiten ari direla edo **haurrari dagokionez arduragabeak direla** dioen informazioaren bitartez, hau da, hurrengo egoeretakoren bat gertatzen ari da (ikus definizioa eta adierazleak, atal honi dagokion eranskinean):

Haurrek pairatzen dituzten tratu txarren edo abandonuen tipologiak

- Tratu txar fisikoak
- Abandonua edo arduragabetasun fisiko edo kognitiboa
- Tratu txar psikologikoak edo emozionalak
- Abandonu psikologikoa edo emozionala
- Sexu abusua
- Sexu esplotazioa
- Delinkuentziara bultzatzea
- Galbideratzea, guraso eredu asozialen aldetik
- Lan esplotazioa
- Jaio aurreko tratu txarrak
- Haztean organikoa ez den atzerapena
- Munchausen sindromea ahalordez

Gurasoak haurren edo nerabearen jokaera kontrolatzeko gauza ez izatea.

Bi adierazle mota horiek (Haurren beharrak eta Tratu txarren eta abandonuaren tipologiak), berez, gauza bera definitzeko bi modu edo ikuspegi desberdin dira eta, hortaz, **familia bakoitzean gertatzen dena hoberen deskribatzen duten adierazleak erabili ahal izango dira**. Bi adierazle motetako edozein nahikoa izan daiteke berez, babesik gabeko egoera zehazteko.

7. BABESIK GABEKO EGOERAREN LARRITASUNA ETA BERRIRO GERTATZEKO AUKERA EBALUATZEA

7.1. Larritasunaren ebaluazioa

Babesik gabeko egoeren larritasuna ebaluatzeko, kontuan hartuko dira hurrengo irizpideak:

Larritasuna ebaluatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak

A. BABESIK GABEKO EGOERAREN LARRITASUNA:

1. Aurkitzen den **tratu txarren edo abandonuaren tipologia**. Hurrengoak dira larritasun handikotzat hartuko diren kasuak, beste edozein zirkunstantzia alde batera utzita:
 - Sexu abusua (larriak izango dira ondokoak: sexu abusua, adingabeen gurasoek abusua egin dutenean; beste pertsona batzuek egindako sexu abusua, gurasoek haurra abusu gehiagotik babesteko gauza ez direnean, edo gauza ote diren zalantza handiak daudenean).
 - Gurasoek edo legezko arduradunek uko egitea.
 - Sindrome alkoholiko fetala edo abstinentzia sindromea dutela jaiotako haurrak (Metadonaren tratamendua jasotzen ari diren amen seme-alabak izan ezik).
 - Delituzko ekintzak eta prostituzioa egitera eragindako edo sexu esplotazioa pairatzen duten haurrak.
 - Sadikoak diren tratu txarrak.
 - Sei urtetik beherakoak zaintzeko arduragabekeria larria.
2. **Babesik gabeko egoeraren maiztasuna, kronikotasuna eta maila.**

3. **Haurren adina:** Haurra zenbat eta txikiagoa izan -bereziki sei urtetik beherakoak badira- orduan eta larriagoa iritzi behar zaio babesik gabeko egoerari, haurra egoera horren ondorio negatiboen aurrean ahulagoa delako.
4. Haurren **gorputzaren atal jakin batzuetan lesio fisikoak** egotea (aurpegia, burua, barruko lesioak, uzkia, sexu organoak), edo babesik gabeko egoeraren ondorioz haurrak **ospitaleratu edo tratamendu medikoa behar izatea**.
5. Haurraren **oinaze, mugatze, gaitasun eza edo gizarteratze eza adierazten duten sintoma nabarmenak** aurkitzea. Adibidez:
 - Haur txikiengan, garapenean atzerapen nabarmena.
 - Jokaeraren eredu arbuigarria, edo inhibizio handia eta gizarte uzkurtasuna.
 - Jokaera bortitza, disruptiboa edo bere buruarentzat edo besteentzat arriskutsua dena.
 - Haurrak bere rola betetzerakoan eragina duten hiperaktibitate jarraibideak maiztasunez azaltzea edo kronikoak izatea.
 - Bere buruaz beste egiten saiatzea, edo horri buruzko adierazpenak egitea. Bere buruari kalte egiteko joera eta jokabideak.
 - Droga edo alkohola maiz kontsumitzea edo horien menpekotasuna izatea.
 - Etxetik edo eskolatik maiztasunez ihes egitea.
 - Delituzko jokaeretan parte hartu duela adierazten duten lehenagoko edo egungo txostenak.
 - Nahasmendu psikiatriko larria edukitzea, diagnosis daukana.
6. Haurren ingurunean, **babes edo kontrol alderdiak** egotea, gurasoen edo legezko arduradunen jokabideak izan lezakeen eragin negatiboa indarrrik gabe uzten dutenak (esate baterako, haurra babesten duten senideak).

B. FAMILIA ERREHABILITAZIOA EGITEKO PRONOSTIKOA

7. **Babesik gabeko egoerari lotutako alderdien larritasuna, kronikotasuna eta konpontzeko zailtasuna** (adibidez, gurasoek osasun mentalaren arazoak edukitzea, luzatzen diren toxikomaniak).
8. **Familiaren barruan kontrolatu gabeko bortizkeria egotea** eta horren maila.
9. **Guraso edo legezko arduradunek adierazten duten haurrarekiko lotura mota eta lotura hori** nola antzematen den. Guraso edo legezko arduradunek seme-alabaren ongizateaz adierazten duten interesa.
10. Familia egoerak haurraren sortzen duen edo sor dezakeen eragin negatiboaren aurrean **guraso edo legezko arduradunek adierazten duten kontzientzia maila**.
11. **Guraso edo legezko arduradunek** seme-alabaren aurrean agertzen duten jokaera eta seme-alabarekin duten harreman mota **aldatzeko motibazioa**.
12. Errehabilitazio prozesuan, familiari laguntza emateko **beharrezkoak diren baliabideaz** baliatzea.

C. GURASO EDO LEGEZKO ARDURADUNAK ZERBITZUEKIN ELKARLANEAN ARITZEA

13. Guraso edo legezko arduradunak irekita egotea, eta Gizarte Zerbitzuek eta parte hartzen duten beste zerbitzu batzuek **esku hartzearen onarpen maila**.

7.2. Babesik gabeko egoera berriro gertatzeko dauden aukerak ebaluatzea

Behin babesik gabeko egoera egiaztatuta dagoenean, haurrak pairatzen duen egoeraren **arriku-garritasuna** baloratu beharko da, hau da:

- (1) Etorbizunean tratu txar gehiago edo abandonua berriro gertatzeko dauden aukerak, eta
- (2) Errepikatze horrek izaera gogorra edukitzeko eta haurraren osasun eta segurtasuna arrisku larrian jartzeko dauden aukerak.

“Arriskugarritasuna” ebaluatzeak etorkizunari buruzko iragarpena egitea esan nahi du, familiaren iraganaz eta orainaz dagoen informazioan oinarrituta. “Arriskugarritasun” kontzeptua garrantzitsua da, larrialdiko babes neurria hartzea beharrezkoa den ala ez zehazten duelako. Oro har, larrialdiko babes neurria hartzea beharrezkoa den ala ez baloratzen da haurra babesik gabeko egoeraren ondorioz pairatzen ari den, edo paira dezakeen kaltearen larritasunari buruz egindako ebaluazioaren arabera. Hurrengo puntuak dira horretarako oinarri hartu behar direnak:

- Gurasoen jokaeraren larritasuna, larritasun hori nagusiki bizitasunaren, maiztasunaren eta iraupenaren ondorioa izaten baita.
- Babesik gabeko egoerak haurraren eragin dituen edo eragin ditzakeen ondorio fisiko, kognitibo eta/edo sozialak.
- Haurrak bere burua defendatzeko edo egoera horretatik ihes egiteko daukan gaitasuna; hau da, bere burua babesteko gaitasuna (bere burua defendatzea, autonomia, kanpoko laguntza eskatzea).

Hurrengoak dira **haurraren kalte larriak sortzeko aukera handiagoa** eragin lezaketen egoera batzuk:

- Tratu txar/abandono egoeraren ezaugarriei dagokienez:
 1. Sexu abusuaren kasuak (definizioz, kasu mota honetan, haurraren oinarritzko osasun eta segurtasunerako arrisku handia dagoela uste da), izaera sadikoa duten tratu txarrak edozein adinetan, eta tratu txarrak egitea edo abandonua (fisikoa edota emozionala) gertatzen direneko egoera larriak, bi urtetik beherako haurraren.
 2. Tratu txarren eredu kronikoa egotea, haurraren lesio larriak sortu dituen.
 3. Haurrari azken aldiz egindako tratu txarrak jakinarazpena egin aurreko sei asteetako epean gertatu izana.
 4. Haurrak lesio fisikoak edukitzea biziarentzat arriskutsuak izan daitezkeen zonetan (aurpegi, sudurra, burua, barruko lesioak), edo sexu organoetan (uzkia, genitaletan).
 5. Abusua egin duenak lehenago tratu txar larriak egin dituela edo familian tratu txar larriak gertatu direla egiaztatzea (beste neba-arreba batzuekin, edo haur berarekin).
- Ahulago egiten duten haurraren ezaugarri batzuei dagokienez:
 6. Abusuak egiten dituen haurraren iristeko oztoporik ez egotea, haurra defenda dezakeen heldurik ez dagoelarik, abusatzaileak berriro erasotzen badu edo horrekin mehatxatzen badu.
 7. Familia nukleokoak ez diren pertsonak sarritan ikusi ezin dituzten eta bost urtetik beherakoak diren haurrak (bereziki, urte batetik beherakoak direnak).
 8. Bost urtetik beherako haurrak, edo bost urtetik gorakoak baina helduen etengabeko laguntza edo ikuskaritzarik eduki gabe bere burua zaindu edo babestu ezin dutenak.
 9. Jokaera arazoak dituzten eta guraso/tutore/zaintzaileengan estres maila handia sortzen duten haurrak. Koliko larriak, negarraldi luzeak, jateko edo lo egiteko ohitura irregularrak dituzten umeak.
 10. Euren rola behar bezala egiteko erabateko ezgaitasuna daukaten eta diagnostikatutako emozio desorekak edo muga kognitiboak dituzten haurrak.
- Haurra zaintzea beren gain hartzen duten helduen ezaugarriei dagokienez:
 11. Haurraren beharrei erantzuteko guraso/tutore/zaintzaileak daukan gaitasuna guztiz mugatzen duen ezintasun fisiko, intelektuala edo emozio desoreka izatea, iraunkorra edo behin-behinekoa izan, baina etorkizun hurbilean hobetzeko posibilitaterik ez duena.

12. Aita edo ama nerabea, bere ingurunean laguntza positiborik ez duena, edo familia hedatuarekin bizi dena, eta ingurune horretan haurraren ardura inork argi eta garbi bere gain hartzen ez duenean.
13. Guraso/tutore/zaintzaileak haurra hazteko daukan gaitasunean urritasun larriak egotea, haurrari dagokionez itxaropen guztiz desegokiak edukitzea, eta haurraren estimulazio, ikaste eta emozio beharrak ez ezagutzea.
14. Indarra eta zigor fisikoa erabiltzea diziplina eta botere metodo gisa. Behin eta berriro ahoz erasotzea.
15. Guraso/tutore/zaintzaileak guraso eginkizuna betetzeko eta haurra behar bezala zaintzeko gaitasunik ez edukitzea, drogamenpekotasuna daukalako. Tratamenduari uko egitea. Haurdunaldian eta umea jaiotzean droga abusua, horri atxikitako sintomatologiaz.
16. Delitu batzordea, beste heldu edo adingabe batzuen aurka indarkeria fisiko edo sexuala erabiltzeagatik. Haurraren oinarrizko eta ikuskatzeko gutxieneko beharrei erantzuteko gaitasun eza, delitu jokaera edo jokaera antisoziala daukalako.
17. Guraso/tutore/zaintzaileak haurtzaroan tratatu txarrak edo abandonua pairatu izana, edo gurasoen eredu positiborik eduki ez izana.
18. Guraso/tutore/zaintzaileak haurrarekiko loturarik ez adieraztea. Haurra beti era negatiboan antzematea; haurrak egiten dituen ekintza desegokiak nahita egin dituela pentsatzea.

➡ Familia ingurunearen ezaugarriei dagokienez:

19. Senar-emazteen arteko bortizkeria, bikotekideen artean maitasun komunikaziorik ez egotea, haurra senar-emazteen gatazketan erabiltzea, guraso/tutore/zaintzaile nagusiak bikote harreman ugari, laburrak eta ezegonkorrak edukitzea.
20. Tratu txarren Batzordea, aita edo ama biologikoaren bikote kidearen aldetik. Haurra zaintzean bikote kideak eragin negatiboa sortzea.
21. Etxebizitzan, oinarrizko bizigarritasun baldintzarik ez egotea (osasun, ekipamendu, espazio baldintzak). Haurraren osasun eta osotasun fisikorako arriskua egotea. Etxebizitza maizegi aldatzea.
22. Familiak erabiltzeko moduko laguntza sistemarik ez egotea, gizartean erabat bakarturik egotea. Gizarte edo familia harremanetan gatazka handiak gertatzea.

➡ Guraso/tutore/zaintzaileek esku-hartzearen aurrean emandako erantzunari dagokionez:

23. Guraso/tutore/zaintzaileek haurrak kaltea pairatu duela edota tratatu txarrak ematearen jokaera desegokia dela ez jakitea. Kasuan esku hartzen saiatu diren profesionalen aurrean erantzun erasotzailea ematea edo errefusa agertzea.
24. Guraso/tutore/zaintzaileak kontzientziatuta egonda ere, aldatzeko ezintasuna egotea.

V. Eranskinean, "Arriskugarritasuna ebaluatzeko irizpideak" izenburuko tresna aurki daiteke. Bertan, balorazio hori egiteko argigarriak izan daitezkeen aldagaiak zerrendaturik agertzen dira:

- a) Tratu txar/abandono egoeraren ezaugarriak:
 - Tipologia/k
 - Tratu txararen edota abandonuaren gogortasun edota maiztasuna
 - Denboran daukan gertutasuna
 - Lesio fisikoak egotea eta horien kokapena
 - Tratu txar/abandonoa lehenago eragin izanari buruzko txostenak
- b) Haurraren ezaugarriak, tratatu txarren edo abandonuaren eragin negatiboek ahulago egin dezaketanak:
 - Abusuak egiten dituen haurraren gaitasuna iritsi ahal izatea
 - Adina, eta komunitateak haurra ikusten duen maiztasuna
 - Haurrak bere burua babesteko eta zaintzeko daukan gaitasuna
 - Haurraren jokaeraren ezaugarriak
 - Haurraren osasun mentala eta estatus kognitiboa

- c) Guraso rola betetzeko gaitasuna muga dezaketen gurasoen edo legezko arduradunen ezaugarriak:
- Gaitasun fisiko, intelektual eta emozionalak
 - Adinari lotutako gaitasunak
 - Gurasoen gaitasuna eta haurrei dagokionez daukaten itzaropena
 - Haurrarekin erabilitako diziplina eta zigor metodoak
 - Drogak edota alkohol gehiegi hartzea
 - Jokaera bortitza, antisozialaren historia edo delituena.
 - Tratu txarrak edota abandonua pairatu izana
 - Gurasoen eta haurraren arteko elkarreragina
- d) Familia ingurunearen ezaugarriak::
- Bikotekideen harremana
 - Ordezko lagun edo gurasoaren presentzia
 - Etxeko egoera
 - Gizarte laguntzarako iturriak
- e) Guraso/tutore/zaintzaileak noraino dauden jakitun arazoa dagoela eta noraino dauden motibatuta aldatzeko, eta beste zerbitzu batzuek lehenago esku hartzean emandako erantzuna:

Garrantzitsua da kontuan hartzea ikerketan ez dela beharrezkoa aldagai horietako bakoitzaren ebaluazio sakona egitea, helburua baita arriskugarritasuna handiagotzen edo txikiagotzen duten alderdi jakin batzuk (a) badauden edo ez dauden, eta (b) alderdi horiek daukaten maila zein den jakitea.

Aipatutako tresnak aldagaien zerrenda orokorra dauka; aldagaiak era diskriminatuan erabili behar dira, eta egoera bakoitzari egokituta, hurrengo kontuan hartuta:

- Kasu guztietan ebaluatzeko garrantzitsuak diren aldagaiak daude; esate baterako: haurrak bere burua babesteko eta laguntzeko daukan gaitasuna; haurraren adina; haurraren emozio egoera eta jokaera. Hala ere, beste alderdi batzuk bereziki aurkitzen dira tratu txarren edo abandonuaren tipologia jakin batzuetan. Esate baterako, lesio fisikoak egotea eta haien kokapena ezin dira erabili tratu txar edo abandonu emozionalaren kasuetan, eta tratu txar fisikoaren egoeretan, ordea, garrantzitsuak diren datuak dira.
- Tresnak haurraren “arriskugarritasun” egoera ebaluatzeko argigarriak izan daitezkeen aldagaiak identifikatu besterik ez du egiten; hau da, tresna erabiltzen duen profesionala ziur egon daiteke, ez duela ahaztu garrantzitsua den informazioa. Tresnak ez du inolako “puntuaketarik” edo “diagnosi zuzenik” ematen. Tresnan jasotako informazioa interpretatzea bitarteko horiek erabiltzen duen profesionalaren egitekoa da. Horretarako, garrantzi handikoa izango litzateke hurrengo irizpideak kontuan hartzea:

“Arriskugarritasuna ebaluatzea” helburu duen tresna interpretatzeko irizpideak

Arriskugarritasuna ebaluatzea oso lan konplexua da. Balorazioa egiteko, “arriskuaren alderdi” guztiak aztertu behar dira, ondokoa aintzat hartuta:

- Iraupena (egonkorra, zirkunstanziala); gogortasuna (arina, ertaina, handia); malgutasuna (aldagarria, aldaezina); eta kontrolagarritasuna (kontrolagarria, kontrolaezina).
- Familiar eta familiaren ingurunean dauden arrisku alderdien arteko elkarrengana. Alderdi batzuk ez dira berez oso arriskutsuak, baina beste alderdi batekin edo batzuekin batera daudenean, haien eragin negatiboa biderkatu egin daiteke.
- Familia barrukoak edo kanpokoak diren faktoreak, haurraren gaitzak **babes efektua** sortu eta, ondorioz, arrisku maila jaitsi dezaketenak. Ildo horretan, hainbat alderdi daude gainerako arriskugarritasun faktoreen eragin negatiboa indarrik gabe utzi edo arin ditzaketenak, hala nola, (a) familiari gizarte babesa eskaintzeko iturriak egotea, (b) guraso edo legezko arduradunen eta haurraren artean maitasun lotura egotea, eta (c) guraso edo legezko arduradunek tratatu txarrean izandako erantzukizuna onartzea, eta laguntza edo errehabilitazio zerbitzuekin kooperatzea.
- Alderdietako batek duen larritasun maila oso handia izatea, eta horrela, beharrezkoa ez izatea beste alderdi batzuk kontuan hartzea. Ondokoa izan daitezke, esate baterako: (a) guraso edo legezko arduradunetako batek ezin du jardun era egokian, substantzia gehiegi hartzen dituelako (drogak, alkohola), edo psikopatologiaren edo ezgaitasuna eragiten duten beste alderdi batzuen ondorioz; edo (b) babesik gabeko egoera ezin larriagoa izan da.
- Familiari eskaintzea dagoen tratamendua edo zerbitzu multzoa, arriskugarritasun maila jaisten lagun dezaketenak.

8. IKERKETAREN ONDOREN JARDUTEA

Behin ikerketa bukatu denean, **kasu bakoitza sailkatu beharko da hurrengo mailen arabera:**

- Babesik gabeko egoera larria
- Neurrizko babesik gabeko egoera
- Babesik gabeko egoera arina
- Babesik gabeko egoeraren susmoa⁴
- Egiaztatu gabeko kasua⁵, baina haurrak edo familiak dituzten zailtasunak ikusita, Gizarte Zerbitzuek esku hartzea beharrezkoa da.
- Egiaztatu gabeko kasua, Gizarte Zerbitzuek esku hartzea beharrezkoa ez delarik.

Susmo kasuetan (zalantzazkoetan), jarduteko plangintza bat eratuko da, hurrengo alternatibetako bat edo biak barne hartzen dituen:

- Haurrarekin eta familiarekin harremanetan dauden beste zerbitzu batzuekin batera kasuaren segimendua antolatzea, sei hilabeteko epean, gehienez, eta/edo
- Kasua “Balorazioa Esku-hartzean” fasera bideratzea (Ikus Ebaluazioari buruzko atala, 6.2 puntua), sei hilabeteko epean, gehienez ere.

Sei hilabete horien ondoren, babesik gabeko egoera egiaztatu ez baldin bada, kasua birsailkatu egin beharko da, modu honetan: e) Egiaztatu gabeko kasua, baina haurrak edo familiak dituzten zailtasunak ikusita, Gizarte Zerbitzuek esku hartzea beharrezkoa da, edo f) Egiaztatu gabeko kasua, Gizarte Zerbitzuek esku hartzea beharrezkoa ez delarik.

⁴ Babesik gabeko egoera adierazten duten hainbat datu eta ebidentzia daude, baina, lortutako frogak edo ebidentziak ez dira nahikoak babesik gabeko egoera dagoen ondorioztatzeko edo baieztatzeko.

⁵ Ikerketaren emaitzek ez dute babesik gabeko egoera gertatu dela dioen ebidentziarik, edo horietan oinarrituta ez dago babesik gabeko egoeraren susmorik.


Ikertu behar diren kasu guztietan, ikerketa burutu duen teknikariak beharrezkoa den **protokoloa** bete-ko du, eta kasuaren espedientean sartuko da.

9. KASUAREN ERANTZUKIZUN NAGUSIA ZEIN ZERBITZURENA DEN ZEHAZTEA: UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUENA EDO LURRALDEKOENA

Ikerketaren ondoren, ikerketa burutu duen zerbitzuak baloratuko du zein zerbitzuri dagokion kasuaren erantzukizun nagusia hartzea, hurrengo irizpideen arabera:

Udaletako Gizarte Zerbitzuak

Udaletako	⇒	Babesik gabeko egoeran egoteko arriskua.
Gizarte	⇒	Babesik gabeko egoera arinak edo ertainak direnak.
Zerbitzuak	⇒	Haurrek guraso edo legezko arduradunen kontrolarik kanpo dauden baldintza edo arazo sozio-ekonomikoek eragin dituzten oinarrizko beharrak bete gabe dituztenean, eta egoera horrek tutoretza edo zaintzaren beharrik ez daukanean.



Foru Aldundira desbideratuko dira hurrengo kasuak:

Foru Aldundia	<p>Egoera batean, babesik ezaren tipologiak antzeman diren eta "larria" sailkapena emateko baldintza guztiak betetzen dituzten kasu guztiak (ikus Babes ezaren tipologiei buruzko eranskina), guraso edo legezko arduradunek arazoa dagoelako kontzientzia nahikorik ez dutenean, eta/edo zerbitzuekin elkarlanean aritzeko nahia adierazten ez dutenean.</p> <p>Sexu abusua dagoela susmatzen denean, edo egoera egiaztatuta dagoenean (familia barruko sexu abusua izan, nahiz familiarik kanpoko sexu abusua izan eta guraso edo legezko arduradunak haurra gerta litezkeen abusetatik babesteko gauza ez direnean, edo horretarako daukaten gaitasunak zalantzak sortzen dituztenean).</p> <p>Gurasoek edo legezko arduradunek uko egitea.</p> <p>Sindrome alkoholiko fetalaz edo abstinentzia sindromeaz jaiotako haurrak (metadona tratamendua egiten ari diren amen kasuak izan ezik).</p> <p>Delituzko ekintzak eta prostituzioa egitera eragindako edo sexu esplotazioa pairatzen duten haurrak.</p> <p>Oinarrizko beharrak bete gabe dauzkaten haurrak, edo babesik gabeko egoeraren tipologiaren bat pairatzen dutenak, eta horren ondorioz, hurrengo arazoetako bat edo batzuk dituztenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ume txikiengan, garapenaren atzerapen nabarmena. Jokaeraren eredu arbuigarria, edo inhibizio handia eta gizarte uzurtasuna. - Jokaera bortitza, disruptiboa edo bere buruarentzat edo besteentzat arriskutsua dena. - Haurrak bere rola betetzerakoan eragina duten hiperaktibitate jarraibideak maiztasunez azaltzea edo kronikoak izatea. - Bere buruaz beste egiten saiatzea, edo horri buruzko adierazpenak egitea. Bere buruari kalte egiteko joera eta jokabideak. - Droga edo alkohola maiz kontsumitzea edo horien menpekotasuna izatea. - Etxetik edo eskolatik maiz ihes egitea. - Delituzko jokaeretan parte hartu duela adierazten duten lehenagoko edo egungo txostenak. - Nahasmendu psikiatriko larria edukitzea, diagnosia daukana.
----------------------	---

Udaletako gizarte zerbitzuetako teknikariek kasuren bat Foru Aldundira bideratzeko zalantzak dituztenean, aholkua eskatzeko harremanetan jarri ahal izango dira (a) Eskualdeko Laguntza Taldeetako Haur Babesaren teknikariek; edo, hori ezinezkoa balitz, (b) Foru Aldundian kasuak jasotzeaz arduratzen diren teknikariek.

10. ESPEDIENTEAN SARTU BEHARREKO INFORMAZIOA

Ikerketa egin bitartean bildutako informazioa, eta hortik ateratako ondorioak kasuaren espediente-an jasota geratuko dira. Horretarako, gida honen bukaeran proposatzen den protokoloa erabili ahal izango da. Era berean, egiten diren idatzizko jakinarazpen guztien kopiak artxibatuko dira.


IV. Atala

Hasierako Ebaluazioa

Hasierako ebaluazioa

1. Helburuak	63. or.
2. Nork egin behar duen ebaluazioa	63. or.
3. Denbora epeak	64. or.
4. Adierazpen orokorrak	64. or.
5. Bildu beharreko informazioa	
5.1. Hasierako ebaluazioa egiteko gidoi orokorra	65. or.
5.2. Haurra ebaluatzea	66. or.
6. Informazioa baloratzea	
6.1. Baloratu beharreko alderdiak eta pronostikoa zehaztea	68. or.
6.2. Pronostikoa “zalantzarria” denean, edo ebaluazioa edo ikerketa luzatzea beharrezkoa denean: “Balorazioa Esku hartzean” fasera desbideratzea	69. or.
6.3. Familiaren gaikuntzarako denbora epeak	70. or.
7. Ebaluazioari buruzko txostena	71. or.

IKERKETAREN ONDOREN EGIN BEHARREKO URRATSAK: HASIERAKO EBALUAZIOA



1. HELBURUAK

1. Arrisku egoera edo babesik gabeko egoerei lotuta egon daitezkeen banako, familia eta gizarte alderdiak eta familiaren funtzionamenduak dituen alderdi positiboak identifikatzea.
2. Arrisku egoera edo babesik gabeko egoerak haurraren garapen fisiko, kognitibo, psikologiko edota sozialean eragindako ondorioak zehaztea.
3. Haurrak eta bere familiak dituzten tratamendu eta babes beharrak zein diren zehaztea.
4. Babesik gabeko egoera dagoenean, gurasoak edo legezko arduradunak gaitzari buruzko pronostikoa zehaztea.

2. NORK EGIN BEHAR DUEN EBALUAZIOA

Udaletako Gizarte Zerbitzuen zeregina da hurrengo egoerak ebaluatzea:

- Babesik gabeko egoeraren arriskua eta babesik gabeko egoeraren arrisku arina dagoenean, familia arazok nolabaiteko larritasuna daukatenean eta banaka esku hartzeko plangintza beharrezkoa izan daitekeela uste denean.
- Neurrizko babesik gabeko kasu guztiak.

Lurraldeko Gizarte Zerbitzuen zeregina da hurrengo egoerak ebaluatzea:

- Babesik gabeko egoera larria.
- Lurraldeko inongo udalerritan erroterik¹ ez dauden familietan gertatzen den babesik gabeko egoera neurritzkoa denean.
- Inongo udalerritan erroterik ez dauden familietan gertatzen den eta arina den babesik gabeko egoera, familia arazok nolabaiteko larritasuna daukatenean eta banaka esku hartzeko plangintza beharrezkoa izan daitekeela uste denean.

Ikerketarako bezala, garrantzitsua da ebaluazioa burutu behar duten teknikariek horretarako egoia den prestakuntza edukitzea:

- Haurren Babesean berariazko prestakuntza (legezko ingurunea; haurren babesik gabeko egoeraren kausak; tratu txarrak ematen dituzten edo arduragabeak diren familien dinamika eta ezaugarriak; haurrengan sortzen dituzten eraginak).
- Babesik gabeko egoeran dauden familiekin eta haurrekin lanean aritzeko alde zurreko esperientzia
- Ikerketan sor daitezkeen zailtasun bereziei aurre egiteko berariazko entrenamendua (esate baterako, familiakoek informaziorik eman nahi ez izatea). Ebaluatzeko tresnak eta teknikak ezagutzea.
- Haur eta nerabeak ebaluatzean eta pronostikoan berariazko prestakuntza.
- Nortasun ezaugarri jakin batzuk: heldutasuna, malgutasuna eta enpatiarako gaitasuna.
- Beste profesional batzuen babesa edo laguntza teknikoak (talde lanaren edo kanpoko aholkularitzaren bitartez), bereziki zailak eta konplexuak diren kasuetarako.

Hoberena da ikerketa gizarte lan eta psikologiaren alorrekoak diren eta gorago aipatutako ezaugarriak dituzten profesionalak osaturiko taldeek egitea.

¹ Udalerrri batean "erroterik" egoteaz ulertzen dugu familia batek bertan bizileku egonkorra edukitzea (bizileku egonkorra edukitzea da bizileku horretan hiru hilabetez gutxienez irautea), udalerrri horretan finkatzeko borondatea edukitzea, seme-alabak bertako eskolara bidaltzea edo bidaltzeko borondatea edukitzea. Familiaren legezko egoera zein den ere (eroldaturik egon edo ez; egoitza baimena eduki edo ez, e. a.), udaletako gizarte zerbitzuek hartuko dituzte beren gain kasu horien jakinarazpena, ikerketa eta ebaluaketa. Errotze hori ez dagoen kasuetan –pasadizoko biztanleez hitz egin daiteke, hortaz– ikerketa eta ebaluaketa Foru Aldundiaren esku egongo dira.

3. DENBORA EPEAK

Hasierako ebaluazioa hasi eta sei aste baino denbora-epe laburragoan bukatu beharko litzateke. Salbuespenak dira “Balorazioa Esku Hartzean” fasera bidalitako kasuak, horien ebaluazioa egiteko aldia sei hilabetera gehienez ere luza daitekeelarik.

4. EBALUAZIOARI BURUZKO ADIERAZPEN OROKORRAK

Ebaluazioa burutzeko, garrantzitsua da hurrengo jarraibideak kontuan hartzea:

Ondokoak dira egin beharreko oinarrizko urratsak:

- Kasuaren espedientean jadanik bilduta dagoen informazioa aztertzea.
- Jaso beharreko informazio osagarria zein den zehaztea.
- Kontsultatu beharreko informazio iturriak hautatzea, iturri horietako bakoitzetik hartuko den informazioa, zein hurrenkera jarraituko den eta erabiliko den informazioa jasotzeko metodoa(k) zehaztea.
- Informazioa jasotzea.
- Behin eta berriro eta etengabe ebaluatzea planifikatutako prozedura mantentzea edo prozeduran aldaketak egitea egokia den.
- Jasotako informazio guztia aztertzea, eta prozesuari berriro ekitea bigarren puntuari hasita.

Ebaluazioaren oinarria izango da informazio osatua, eguneratua eta alderatua jasotzea:

- Osatua izateak esan nahi du familiakoek iraganean izandako eta oraingo funtzionamenduari buruzko informazioa eduki behar dela era honetan: (1) banakoari buruzko informazioa, (2) familia osoari buruzkoa, eta (3) gizarte alorrari dagokiona.
- Eguneratua izateak esan nahi du familiaren egoerari buruzko informazioa gehitu dela, ebaluazioa egin den unean.
- Alderatua izateak esan nahi du iturri ezberdinak daudela, elkarren arteko loturarik ez dutenak, jasotako informazioa egiazkoa eta fidatzekoa dela egiaztatzen dutenak.

Ebaluazioan, familiaren arazo edo gabeziei buruzko informazioaz gain, alderdi positiboei buruzkoa ere jaso behar da.

Ebaluazioak hurrengo informazioa jaso behar du: arrisku egoerak edo babesik gabeko egoerak, garapen arlo guztietan –fisiko, sozial, kognitibo eta emozionalean–, haurraren izandako eraginaren gainekoa.

Tratu txarrak haurraren izandako eragina banaka ebaluatu beharko da, haurraren eboluzio unearen arabera, eta haurrak dituen ezaugarrien arabera. Horrez gain, erreala den eta ikus daitekeen kaltea ez ezik sor litekeen kaltea ere –hau da, etorkizunean haurrak paira dezakeena– kontuan hartu beharko da. Ildo horretan, gogoratu behar dugu babesik gabeko egoera pairatzen duten haur asko daudela, ebaluazioa egitean mina edota ondoeza adierazten duen sintoma nabarmenik ez dutenak. Hori, hala ere, ez da kaltea gertatzen ari ez denaren seinale, aitzitik, sintomak oraindik ikusgarriak ez direlako izan daiteke eta.

Nolanahi ere, gogoratu behar dugu, bestalde, oso kaltegarriak diren familia inguruneetan bizi diren baina “babes” baldintzak dituzten haurrak ere badaudela (esate baterako, haurrarentzat garrantzitsua den helduren bat egotea, eta heldu horrekin maitasun lotura positiboa izatea; gizarte ingurune positiboa; gaitasun intelektualak), eta baldintza horiei esker garapen osasuntsua lor dezaketela. Hortaz, ondoez edo babesik gabeko egoeraren sintomarik ez egotea ere garapen osasuntsuaren isla izan daiteke.

Azken hori tratu txarrak egiten diren kasu guztietara zabal daiteke, familia barruko sexu abusuan izan ezik. Kasu horietan, ebaluazioa egitean auresuposatu behar da, haurrak ondoeza adierazten duen sintomarik daukan edo ez alde batera utzita, oso larria den kaltea jasaten ari dela, eta kalte horretatik babestu beharra dagoela.

Ebaluazioan, halaber, hurrengo sartu behar da: **haurrak jasan duen edo jasan dezakeen kaltearen aurrean guraso edo legezko arduradunek daukaten kontzientzia mailaren balorazioa; egoera horretan guraso edo legezko arduradunek daukaten erantzukizuna; eta arazoak haiengan sortzen ari diren eraginaren kontzientzia maila**. Beste iturri batzuetatik lortutako informazioaz gain, arazo horiek zuzenean aztertu beharko dira guraso edo legezko arduradunekin egiten diren ebaluazio elkarrizketetan.

5. BILDU BEHARREKO INFORMAZIOA

5.1. Hasierako ebaluazioa egiteko gidoi orokorra

Jarraian, hasierako ebaluazioa burutzeko garrantzitsua izan daitekeen informazioa aurkeztuko dugu. Kasu guztietan ez da beharrezkoa izaten informazio guztia biltzea. Kasu bakoitzean, ebaluaziorako eta erabakia hartzeko garrantzitsua den informazioa zein den zehaztu beharko da. Hortaz, jarraian zerrendatutako informazio puntuak gidoi bideragarri gisa ulertu beharko da.

Ebaluazioari buruzko txostena egiteko gidioa (ikus deskribapen zehatzagoa ebaluazioari dagokion eranskinean)

1. Txostena egiten duen teknikariaren identifikazio datuak
2. Txostenean azterzen diren haurrak eta familia identifikatzeko datuak
3. Txostena egiteko kontsultatu diren iturriak eta erabilitako metodologia
4. Kasuaren historia gizarte zerbitzuetan. Zerbitzuak ebaluazioari ekin aurretik burututako prozesuaren deskribapena.
5. Adingabeari/adingabeei eragina sortu dion/dien babesik gabeko egoeraren inguruko datu egiaztatuak
6. Familiari buruzko informazioa:
 - Egoera sozio-ekonomikoa: etxebizitza, lan egoera, ekonomia egoera, familiako hel-duen hezkuntza eta kultura maila
 - Familiakoen egoera pertsonala:
 - osasun fisikoa,
 - funtzionamendu psikologikoa, emozio egoera eta jokaera ezaugarriak.
 - Haurren eskola arloa, eta egoera kognitiboa
 - Gurasoen historia pertsonala. Familia aurrekariak
 - Egun, familia hedatuarekin duten harremana (guraso/tutoreek eta hurrek)
 - Bikote harremanak
 - Gurasoen eta seme-alaben arteko harremana: atxikimendu harremana; gurasoek hurrez uste dutena eta dituzten itxaropenak; diziplinaz uste dutena eta diziplina gauzatzea; gurasoen arteko eginkizun banaketa, hurrei begira
 - Anai-arreben arteko harremana
 - Gizarte harremanak eta aisialdia (guraso/tutoreak eta haurrak)
 - Estres sortzaileak
 - Dauden familia eta gizarte laguntzak
7. Guraso/tutoreek arazoaren aurrean daukaten kontzientzia maila, eta aldatzeko motibazioa
8. Balorazioa (ikus hurrengo puntua: Informazioa baloratzea)
9. Bideratzea

Haurra familia ingurunetik bereiztea egokia dela irizten denean, hurrengo gaietarako buruzko informazioa biltzen saiatuko da:


- Egokia bada, haurrak bere historia pertsonala eta familiakoa nola antzematen duen zehaztea. Bereiztearen aurrean, zein jokoera daukan edo nola antzematen duen.
- Guraso/tutoreek banantzearen aurrean adierazten duten jokoera edo nola antzematen duten.
- Banaketak irauten duen bitartean haurra zaintzea bere gain har dezaketen familiakorik badagoen zehaztea.

5.2. Haurra ebaluatzea

Lehen adierazi dugun bezala, ebaluazioak jaso behar duen informazioa **arrisku egoerak edo babesik gabeko egoerak**, garapen arlo guztietan –fisiko, sozial, kognitibo eta emozionalean–, **haurraren izandako eraginaren** gainekoa izango da.

Ikerketa hori hainbat modutan egin daiteke, kasu bakoitzean egokiena dena zein den kontuan hartuta; baina, oro har, egokiena den prozedura hurrengoa da:

Haurra ebaluatzeko prozedura



Haurra ebaluatzeko 1. urratsa emateko prozedura hurrengoa izan daiteke:

Ebaluatzeko arloa	Lortu beharreko informazioa	Informazio iturria	Metodoa
Garapen fisikoa	<p>Garapena eta egungo egoera, pisuari eta garaieran dagokienez. Zainketa medikoen maiztasuna eta egokitasuna.</p> <p>Haurrak bere gaitasuna mugatzen duten gaixotasun fisiko kroniko edota larriak, zentzumen edo mugimendu urritasunik badaukan. Ezintasun maila.</p> <p>Jasotako zainketa fisikoen egokitasuna (elikkadura, higijene, jantziak, ikuskapena, lo egiteko ohiturak, artiskuetatik babestea, eta abar), eta zainketa horietan gabeziak izatearen ondorioz haurrak osasun arazoak badituen.</p> <p>Arazo fisikoak egonez gero: horien hasiera eta iraupena; kontrol medikorik badagoen; behar den tratamendua, eta abar. Familiako gainerako kideengan sortutako ondorioak edo eraginak.</p>	<p>Pediatra</p> <p>Haurtzaindegiko edo ikastetxeko profesionalak</p>	<p>Elkarriketa</p>
Garapen kognitiboa	<p>Gaur egun, haurrak daukan ikaskuntza mailaren historia eta egoera.</p> <p>Muga intelektuallik badaukan.</p> <p>Garapen kognitiboan arazorik badagoen; arazo horien arrazoiak; izandako tratamendua; eboluzioa eta pronostikoa. Arazoek daukaten eragina haurrak egin ohi dituen jardueretan.</p> <p>Haurtzaindegira edo ikastetxera ez doazen haur txikiak baldin badira:</p> <p>Bilakaera egitekoen lorpena</p>	<p>Haurtzaindegiko edo ikastetxeko profesionalak</p> <p>Pediatra</p> <p>Haurra zuzenean behatzea (Gizarte Zerbitzuetako teknikariak berak, edo haurraren inguruneak den eta prestatuntza daukan norbaitek eginda)</p>	<p>Elkarriketa</p> <p>Haur osasuntsuaren kontrolen protokoloa</p> <p>Garapen itemak behatzea²</p>
Garapen emozional eta soziala	<p>Haurrak etxean eta eskolan daukan jokaeraren egokitasuna.</p> <p>Haurrak jokaera arazorik badaukan (adibidez, objektu edo pertsonen aurreko jokaera bortitzak, hiperaktibitatea, oldarkortasuna, eskolara ez joatea, inesak, delituzko jokaerak).</p> <p>Emozio arazoan adierazgarriak izan litezkeen sintomak (adibidez, autoestima baxua, bere buruaz beste egiten saiatzea edo horren mehatxua adieraztea, gogo aldatzearen bat-bateko aldaketak). Lo, elikkadura edo esfinterak kontrolatzeko arazoak, eta abar.</p> <p>Haurrak era arruntean funtzionatzea oztopatzen duten desoreka psikologikorik badagoen; desorekaren historia; tratamendua; eboluzioa eta pronostikoa.</p> <p>Psikologia edo jokaera arazoek haurraren eta gainerako senideengan sortutako eraginak.</p> <p>Haurtzaindegira edo ikastetxera ez doazen haur txikiak baldin badira:</p> <p>Eboluzio eginkizunen lorpena</p>	<p>Haurtzaindegiko edo ikastetxeko profesionalak</p> <p>Gurasoak</p> <p>Haurraren behaketa zuzena</p>	<p>SDQ aplikatzea (irakasleen eta aita/amen bertsioa). Beharrezkoa bada, elkarriketa, informazio osagarria lortzeko.</p> <p>Garapen itemak behatzea³</p>

² Eginkizun horretarako, Gizarte Zerbitzuek Eskualde Taldeen laguntza teknikoa izango dute.

³ Ikus V. eranskina.

6. INFORMAZIOA BALORATZEA

6.1. Baloratu beharreko alderdiak eta pronostikoa zehaztea

Behin informazioa bildu denean, informazio hori aztertu beharra dago, hurrengo puntuak zehazteko:

Arrisku edo babesik gabeko egoeraren **larritasuna**.

Haurraren egoera: arrisku egoerak edo babesik gabeko egoerak haurraren ongizatean eta garapenean izan duen edo izan dezakeen eragina.

Familiaren zailtasunekin eta babesik gabeko egoerarekin zerikusia daukaten alderdiak ("**arrisku alderdiak**"), alderdi horiek noraino diren **aldagarriak edo aldaezinak**, **egonkorrak edo behin-behinekoak**, eta **daukaten elkarreragina**. "Arrisku alderdien" ondorio negatiboa indarrrik gabe utz dezaketen eta haurrak edo familiak dauzkaten alderdi positiboak ("**babes alderdiak**").

Gurasoen edo legezko arduradunen **kontzientzia** maila, haurra pairatzen ari den, edo paira dezakeen kaltearen aurrean; haiengan eragina sortzen duten arazoaren aurrean daukaten kontzientzia maila, eta **aldatzeko motibazioa**.

Familia egoera Gizarte Zerbitzuek esku hartu gabe zuzentzeko dauden aukerak, era horretan haurraren egoera hobetzeko.

Gurasoen edo legezko arduradunen errehabilitazio pronostikoa (hau da, haurraren beharrei behar bezala erantzuteko gai izan daitezkeen eta haren segurtasun eta ongizatea ziurta ditzaten dauden aukerak) eta horretarako beharrezkoak izan daitezkeen **denbora epeak**.

Funtsean, **gurasoen gaikuntzarako dauden aukerei buruzko pronostikoa** hurrengo irizpideen arabera zehaztu behar da⁴:

Gurasoen gaikuntzari buruzko pronostikoa bideratzeko irizpideak

1. Gurasoek arazoaren aurrean daukaten kontzientzia maila
2. Gurasoak aldatzeko motibatuta badauden
3. Lehenagoko esku hartzei emandako erantzuna
4. Familia arazoaren kronikotasun maila
5. Gurasoek daukaten ezgaitasun maila
6. Babesik gabeko egoerari lotuta dauden familiaren arazoak daukaten aldagarritasun maila.
7. Familia barruko bortizkeria maila
8. Gurasoen eta seme-alaben artean dagoen maitasun lotura
9. Haurrari egindako kaltearen larritasuna
10. Haurrak dituen arazoak

1. Gurasoek arazoaren aurrean daukaten kontzientzia maila

Gurasoek (a) babesik gabeko egoeraren eta arazoaren ondorioz haurra pairatzen ari den kaltearen aurrean adierazten duten kontzientzia maila, eta (b) haurraren eragina sortzen duten babesik gabeko egoeraren eta arazoaren konponketan daukaten erantzukizuna noraino onartzen duten. Gurasoek arazo horien aurrean kontzientziarik ez adieraztea edota arazo horiek konpontzeko erantzukizunik beren gain hartu nahi ez izatea, aldatzen ez badira, pronostiko negatiboa adierazten duten ezaugarriak dira.

2. Gurasoak aldatzeko motibatuta dauden

Gurasoek dituzten arazoaren aurrean jakitun egoteak eta euren erantzukizuna dela onartzeak ez du esan nahi egoera hori aldatzeko gai direnik edo aldatu nahi dutenik. Pronostiko positiboa egiteko ezinbestekoa den alderdia da gurasoek motibazioa adieraztea, eta haien jokaera eta seme-alabekin dituzten harremanak aldatzeko nahia jakinaraztea.

⁴ Edukia liburu honetatik atera da: Arruabarrena, M.I. eta De Paúl, J. (1994). Maltrato a los niños en la familia. Evaluación y tratamiento. Madril, Pirámide.

3. **Lehenagoko esku hartzei emandako erantzuna**
Adingabeen egoera hobetzarren proposatuta, Haur Zerbitzuak, Udaletako Gizarte Zerbitzuek edo beste zerbitzu batzuek lehenago egindako esku hartzei gurasoek emandako erantzuna. Gurasoek esku hartze horietan elkarlanean ez aritzeak eta horretan ez sarzteak pronostiko negatiboa adierazten du.
4. **Familia arazoek kronikotasun maila**
Tratu txarren egoera kronikoa duten familiek –hainbat belaunalditara ere zabal daitekeelarik- pronostiko zaila daukate. Aitzitik, kronikoak ez diren kasuek –tratu txarrak familia krisialdi baten ondorioz gertatzen direnean– pronostiko hobea daukate.
5. **Gurasoek daukaten ezgaitasun maila**
Gurasoek daukaten ezgaitasun pertsonalaren maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta arazo handiagoak izango dira horien errehabilitazioa egiteko orduan. Ezgaitasun mota batzuek ere pronostiko negatiboa adierazten dute: (a) buruko atzerapen larria; (b) pronostiko negatiboa duten desoreka psikikoak; eta (c) iraunkorrak diren eta eboluzio negatiboa daukaten toxikomania edo alkoholismo arazoak.
6. **Babesik gabeko egoerari lotuta dauden familiaren arazoak daukaten aldagarritasun maila.**
7. **Familia barruko bortizkeria maila**
Bortizkeria maila oso handia eta kontrolaezina daukaten familiek zailtasun handiak izaten dituzte errehabilitaziorako.
8. **Gurasoen eta seme-alaben artean dagoen maitasun lotura**
Tratu txarrak egiten dituzten gurasoek haurraren maitasun loturarik erakusten ez dutenean, edo tratu txarra gurasoak haurrari dion arbuioaren isla denean, pronostiko negatiboa egiten da.
9. **Haurrari egindako kaltearen larritasuna**
Zenbat eta larriagoa izan haurrak pairatzen duen kaltea, hau da, zenbat eta larriagoa izan babesik gabeko egoera, orduan eta negatiboagoa izango da pronostikoa.
10. **Haurrak dituen arazoak**
Haurrak jokaera antisoziala edota delituzko jokaera (lapurreta, drogak hartzea, ihesak eta abar) diren arazo larriak dituztenean (kopuruaren eta handitasunaren ikuspegitik), familiaren errehabilitazioa lortzeko pronostikoa zailagoa da.

6.2. “Zalantzazko” pronostikoa denean edo, ebaluazioa edo ikerketa luzatu behar direnean: “Balorazioa Esku Hartzean” fasera desbideratzea

Zenbait kasutan, hasierako ebaluazioaren ondoren, zaila izan daiteke gurasoen errehabilitaziorik buruzko pronostikoa zehaztea; “zalantzazko” pronostikoak dira horiek, eta guraso edo legezko arduradunei tratamendua jasotzeko aukera ematen zaienean bakarrik argitu ahal izango da errehabilitatzeko aukerarik dagoen edo ez. Kasu horiek familiekin esku hartzen duten taldeetara bideratu ahal izango dira, **sei hilabetez gehienez** tratamenduan egon daitezen; epe horren amaieran pronostikoa definitu ahal izatea da helburua. Esku Hartzeko Plangintzan, egoera hori “Balorazioa Esku Hartzean” fasea izendatuko da.

Halaber, hurrengoak dira “Balorazioa Esku Hartzean” fasera desbideratu ahal izango diren kasuak, bertan sei hilabete gehienez emateko:

- ➡ Ikerketa eginda, babesik gabeko egoera baieztatzerik egon ez den baina gertatzen ari delako susmoak dauden kasuetan. “Balorazioa Esku Hartzean” fasearen helburu nagusia susmo horiek baieztatzea edo baztertzeta izango da (kasu horietan, hala ere, esku hartzeko helburuei ekitea dago, aldi berean).
- ➡ Gurasoen eskumenen balorazioa egitea –hau da, guraso irudiek haurra zaintzea eta, kasua bada, babes beharrak beren gain hartzeko daukaten gaitasuna– beharrezkotzat jotzen denean.

6.3. Familiaren gaikuntzarako denbora epeak

Familia gaitzeko denbora epea aldatu egingo da familiaren gaitasun eta arazoaren arabera. Epe hori sei hilabete eta lau urte bitartean zehaztu daiteke (muga hertsirik ez dutelarik); hala ere, zenbait familiak kanpoko gizarte eragileen laguntza eta gainbegiratze iraunkorrak behar dituzte, haurrak emantzipatu arte. Hori islaturik dago P. Crittendenek⁵ egindako hurrengo sailkapenean:

Familia motak	Ezaugarriak
Independente eta egokiak	Familia horiek seme-alaben beharrei erantzuteko gauza dira, beren gaitasunak erabilia eta lagunen, senideen eta bilatzen eta erabiltzen dituzten zerbitzuen laguntza dutelarik. Gai dira arazo eta krisialdiei irtenbideak emateko.
Krisien aurrean ahulak direnak	Familia horiek aldi bateko laguntza behar dute (6-12 hilabete) unean uneko arazoak konpontzeko; bestela, era independentean eta egokian jokatzeko. Krisia bultzatzen dezaketen gertaeren artean, hurrengoak aurki daitezke: eragozpenen bat daukan seme-alabaren bat jaiotzea; dibortzioa; lana galtzea; familiakoren bat hiltzea, eta abar. Familia ahul gisa sailkatzea arazoari ematen dion irtenbidearen ezaugarrietan oinarrituta dago, eta ez krisiak egotean.
Epe ertainean laguntza behar dutenak	Arazo anitz dituzten familiak dira, gaitasun zehatzetarako laguntza edo alderdi jakin batzuetan terapia behar dutenak. Esku-hartzeak urte bat eta lau urte bitartean iraun dezake. Esku-hartzea amaitzen denean, familiak komunitateko laguntza zerbitzuak normaltasunez erabiliz era independentean eta egokian jardun ahal izatea espero izaten da,
Epe luzera laguntza behar dutenak	Familia horien aurrean, ezin da espero eskaintako zerbitzuen laguntzaz era independente eta egokian jardun ahal izatea. Hala ere, laguntza jarraitua izanda, familiak seme-alaben oinarritzko behar fisiko, intelektual, emozional eta ekonomikoak erantzutea dauka. Baliteke laguntza hori behar izatea seme-alabak handitu arte. Familia horien adibide dira hurrengoak: amak atzerapen mentala edo depresio desoreka daukanean, edo gurasoetako batek alkohol edo droga gehiegi era kronikoan hartzen duenean.
Egokiak ez direnak	Esku hartzeko zerbitzuak ez dira nahikoak familia horiek seme-alaben oinarritzko beharrei erantzutea erdiesteko, ez orainean ez etorkizunean. Haurrak betiko banandu beharko dira familiarengandik.

Irizpide orokor gisa (salbuespenak egon badaitezke ere) hurrengoa baieztatu daiteke: **tratamendu trinkoa jasotzen ari den familiak gutxienezko adierazgarritasuna daukan aldatetarik egiten ez baldin badu tratamenduaren lehenengo hamar hilabeteetan, tratamendua bukatutzat eman beharko da, ezin baita aurreikusitako aldatetarik epe labur edo ertainean.**

⁵ Crittenden, P. (1992). The social ecology of treatment: Case study of a service system for maltreated children. *American Journal of Orthopsychiatry*, 62, 22-34.

Nolanahi ere, baloratu beharko da **guraso irudien errehabilitazioa egiteko aurreikusitako epeak haurraren beharrekin bateragarriak diren**. Ildo horretan, haur txikiak dituzten familientzako denbora epeak derrigorrez izango dira haur handiagoak dituzten familientzako ezarritakopak baino luzeagoak.

7. EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA

Gida honen bukaeran, ebaluazioari buruzko txostena egiteko eredu orientagarria. Ebaluazioa egiten den guztietan, ebaluazioari buruzko txostenaren idatzizko kopia gorde beharko da espedientean.

V. Atala

Esku hartzeko Plana lantzea eta abian jartzea

Eskema orokorra

1. Esku hartzeko Plana lantzeko denbora epeak	77. or.
2. Planaren edukia	77. or.
3. Esku hartzeko Plana lantzeko irizpide teknikoak	
3.1. Esku-hartzeak duen helburu nagusiaren definizioa	78. or.
3.2. Erabili beharreko irizpide teknikoak	80. or.
4. Plana berraztertzea	82. or.
5. Kasua koordinatzen duen zerbitzua aldatzea	82. or.

EGIN BEHARREKO URRATSAK HASIERAKO EBALUAZIOAREN ONDOREN: ESKU HARTZEKO PLANA LANTZEA ETA ABIAN JARTZEA

ERANTZUN BEHARREKO GALDERAK:

1. Zeintzuk dira lortu nahi diren azken helburuak?
2. Zer arazori heldu behar zaio?
3. Zein ordenan?
4. Zeintzuk dira beharrezkoak diren baliabideak ?

Erantzunak familiarekin eta parte hartzen duten gainerako zerbitzuekin adostu behar dira



Esku hartzeko Planak daukan protokoloa bete



PLANA GAUZATU ETA ALDIRO BERRAZTERTU

Plana era formalean berraztertu, sei hilabetean behin gehienez, lau urtetik gorako haurrak direnean,
eta lau hilabetean behin gehienez, lau urtetik beherako haurrak direnean.

Erantzun beharreko galderak:

1. Helburuak lortzen ari dira?. Ezezkoan, zergatik?
2. Aldaketarik egin behar da Planean?, zer aldaketa?
3. Babesik gabeko egoeraren larritasun maila aldatu da?, kasua koordinatzen duen zerbitzuan aldaketarik egin behar da?

A) LARRITASUNA AREAGOTU EGITEN DA ARIN EDO ERTAINA IZATEARI UTZITA → UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUETATIK FORU ALDUNDIRA DESBIDERATU

B) LARRITASUNA ARIN EDO ERTAINERA JAISTEN DA, HANDIA IZATEARI UTZITA → FORU ALDUNDITIK UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUETARA DESBIDERATU



GIZARTE ZERBITZUEK KASUAN ESKU HARTZEAREN BUKAERA

1. ESKU HARTZEKO PLANA LANTZEKO DENBORA EPEAK

Ebaluazioa bukatzeko, esku hartzeko plan bat landu behar da, kasuan zerikusia daukaten alderdiek (familia, esku hartu duten beste profesional batzuek eta abarrek) negoziatua izango dena. Plan hori idatzi egin beharko litzateke ebaluazioa bukatu eta bi asteko epean gehienez ere.

2. PLANAREN EDUKIA

Esku hartzeko Planak lau oinarrizko galderari erantzun nahi die:

1. Zein dira haurrarekin eta familiarekin erdietsi nahi diren azken helburuak?
2. Zeintzuk dira horretarako konpondu behar diren arazoak?
3. Zein da arazo horiei heltzeko ordena?
4. Zeintzuk dira behar diren baliabideak?

Esku hartzeko Plana hurrengo informazioa daukan protokolo batean gauzatzen da:

Esku hartzeko Planaren barruan sartu beharreko informazioa

1. **Haurraren eta haren familiaren identifikazio datuak:** Adingabearen eta familiaren izen-deiturak, espediente zenbakia, espedientea ireki den data.
2. **Izatezko aurrekariak,** barne sartuko dira hurrengo oinarrizko datuak: zerbitzuak esku hartzeko dauden arrazoiei buruzkoak; informazioa jasotzea, ikertzea eta ebaluatzeak osaturiko prozesuari buruzkoak: jakinarazpena egin duena, datak, prozesuaren ardura duten teknikariak, babesik gabeko egoera mota eta daukan larritasuna, haur eta familiari buruzko informazio adierazgarrienari buruzko informazioaren laburpena, kasuaren pronostikoa eta justifikazioa.
3. **Lehenago hartutako babes neurriak (egokia bada).**
4. **Banandu beha dagoen eta Foru Aldundiaren esku dauden kasuetan: hartu beharreko babes neurriak eta neurriak gauzatzeko baldintzak** (adibidez, neurri legala, erabili beharreko baliabidea, aurreikusten den bereizketaren iraupena, seme-alaben eta gurasoen arteko harremana).
5. **Esku-hartzean, haurra eta familia hartzen dituzten zerbitzuak eta programak duten helburu nagusia:**
 - a) **Udaletako Gizarte Zerbitzuak direnean:**
 - Balorazioa esku hartzean
 - Guraso edo legezko arduradunengan arazoaren aurrean kontzientzia sortzea eta aldatzeko motibazioa
 - Familia zaintzea: Gurasoen gaikuntza
 - Adingabeei berariazko laguntza ematea
 - Laguntzea, segimendua egitea edota haurraren eta familiaren egoera kontrolatzea.
 - b) **Lurraldeko Gizarte Zerbitzuak direnean:**
 - Balorazioa esku hartzean
 - Familia zaintzea: Gurasoen gaikuntza
 - Familia zaintzea: Familia osagarria
 - Aldi baterako bereiztea eta familiarekin berriro elkartzeko (jatorrizko familiarekin)
 - Behin betiko bereiztea eta beste familia batean sartzea (jatorrizko familiak bisita egin dezakeelarik edo jatorrizko familiaren bisitarik gabe)
 - Behin betiko bereiztea eta prestakuntza emantzipaziorako
 - Behin betiko bereiztea eta espezializatutako egoitza ingurunean sartzea.
6. **Haurrarekin eta familiarekin lortu nahi diren helburu orokorrak.**
7. **Helburuak lortzeko denbora epea.**
8. Beharrezkoak diren **baliabide edota zerbitzuak**, bai haurarentzat bai familiarentzat.
9. Haurrarekin eta familiarekin finkatutako **akordio eta konpromisoak**.
10. **Kasuaz arduratzen den zerbitzua eta koordinazioa egiten duen teknikaria.**
11. **Kasua berraztertzeko dagoen denbora epea.**

3. ESKU HARTZEKO PLANA LANTZEKO IRIZPIDE TEKNIKOAK

3.1. Esku-hartzeak duen helburu nagusiaren definizioa

Udaletako Gizarte Zerbitzuek esku hartzean, nagusi diren eta haurra eta bere familia barne har ditzaketen programei izenburua ematen dieten bost helburuetako bat eduki behar dute:

Programaren izena	Helburua
<i>Balorazioa Esku Hartzean</i> (gehieneko iraupena: sei hilabete)	<ul style="list-style-type: none"> a) Kasuari buruzko ikerketa osatzea, babesik gabeko egoerarik badagoen baieztatzerik edo ukatzerik egon ez denean ("Susmoa" dagoenean); aldi berean, esku hartzeko helburu zehatzak landu daitezke. b) Gurasoen gaitasunak ebaluatzea. c) Ebaluazioa zalantzazko pronostikoaz bukatzen denean, esku-hartzea laburra izatea, pronostikoa argitzen saiatzeko.
<i>Guraso edo legezko arduradunengan arazoaren aurrean kontzientzia sortzea eta aldatzeko motibazioa</i> (gehieneko iraupena: sei hilabete)	Guraso edo legezko arduradunengan dituzten arazoaren kontzientzia sorraraztea eta aldaketa prozesu batean sartzeko prestasun nahikoa bultzatzea. Aldaketa lortzeko esku-hartzeari ekiteko beharrezkoak diren baldintzak zehaztea.
<i>Familia zaintzeko programa: Gurasoen gaikuntza</i> (batezbesteko iraupena: bi urte; hala ere, kasu batzuetan, beharrezkoa izan daiteke lau urtera luzatzea)	<ul style="list-style-type: none"> a) Gurasoak edo legezko arduradunak gaitzea, guraso eginkizuna behar bezala bete dezaten. b) Babesgabetasunaren arrisku handiko egoera bukatzea; familia batasuna mantentzea; haurra familian behar bezala zainduta dagoela bermatzea; babesik gabeko egoera etorkizunean berriro gertatzeko dagoen arriskua kentzea edo murriztea.
<i>Adingabeei berriazko laguntza ematea</i> (iraupen mugarik gabe)	Esku hartzean, helburu nagusia da familian dauden adingabeei banakako eta berriazko laguntza ematea (horretarako diren baliabide berezietan, eta horretan ari diren profesional espezializatuek parte hartuko dutelarik). Esku har daiteke, eta aldaketa helburuak egon daitezke, guraso edo legezko arduradunekin; baina, hori garrantzitsua bada ere, bigarren mailakoa da aurreko beharrekina alderatuta.
<i>Laguntzea, segimendua egitea edota haurren eta familiaren egoera kontrolatzea</i> (iraupen mugarik gabe)	Ez dago aldatzeko esku hartzerik, adiera hertsian. Egon daitezkeen helburuak: (a) Familia zaintzeko programa baten ondoren lortutako aldaketen egonkortasuna ebaluatzea; (b) aldaketa horiek mantentzea indartzea eta laguntzea, trinkoa ez den esku-hartzearen bitartez; eta (d) haurrak zaintzeko orduan eragin negatiboa daukaten arazoak prebenitzea edo goiz antzematea.

Beste alde batetik, **Lurraldeko Gizarte Zerbitzuek** esku hartzea hurrengo xedeetako bat lortzera bideratuko da:

Programaren izena	Helburua
<i>Balorazioa Esku Hartzean (gehieneko iraupena: sei hilabete)</i>	<p>a) Kasuari buruzko ikerketa osatzea, babesik gabeko egoerarik badagoen baieztatzerik edo ukatzerik egon ez denean ("Susmoa" dagoenean); aldi berean, esku hartzeko helburu zehatzak landu daitezke.</p> <p>b) Gurasoen gaitasunak ebaluatzea.</p> <p>c) Ebaluazioa zalantzazko pronostikoaz bukatzen denean, esku hartzea laburra izatea, pronostikoa argitzen saiatzeko.</p>
<i>Familia zaintzeko programa trinkoa: Gurasoen gaikuntza¹</i>	<p>a) Gurasoak edo legezko arduradunak, guraso eginkizuna behar bezala bete dezaten, gaitzera bideratutako aldaketa prozesuan era aktiboan parte har dezaten lortzea.</p> <p>b) Babesgabetasunaren arrisku handiko egoerari bukaera ematea; familia batasuna mantentzea; haurra familian behar bezala zainduta dagoela bermatzea; egoera bera etorkizunean berriro gertatzeko dagoen arriskua kentzea edo murriztea.</p>
<i>Familia zaintzeko programa trinkoa: Familia osagarria</i>	<p>a) Guraso edo legezko arduradunei osagarria eskaintzea, edo haiek ordezkatzeko, beharrezkoa bada, guraso eginkizuna betetzeko mugaturik daudelako, haurrak etxean mantenduta.</p> <p>b) Babesgabetasunaren arrisku handiko egoerari bukaera ematea; familia batasuna mantentzea; eta haurra familian behar bezala zainduta dagoela bermatzea;</p>
<i>Aldi baterako bereiztea eta familiarekin berriro elkartzea²</i>	Babesgabetasuna gertatzen den edo zaintza onartu den egoeran, (1) haurren osotasuna eta segurtasuna babestea, familia inguruetik aldi baterako bereiztuta, eta (2) haurra jatorrizko familiarekin lehenbailehen eta behin betiko itzuli ahal izateko, familian beharrezkoak diren baldintzak leheneratzea.
<i>Behin betiko bereiztea eta beste familia batean sartzea (familia hedatuan edo beste familia batean)</i>	Babesgabetasun egoeran, (1) haurren osotasuna eta segurtasuna babestea, familia inguruetik behin betiko bereiztuta, eta (2) haurra egonkorra den beste familia ingurune batean sartzea sustatzea (jatorrizko familiarekin harremanak izanda, edo izan gabe).
<i>Behin betiko bereiztea eta prestakuntza emantzipaziorako</i>	Inongo famili nukleora era egonkorrean sar ez daitezkeen babestutako adingabeen kasuan, (1) guraso eginkizunak era subsidiarioan betetzea, eta (2) haurra, helduen bizimodu independentea garatu ahal izateko, beharrezkoak diren trebetasun ez hornitzea
<i>Behin betiko bereiztea eta espezializatutako egoitza ingurunean sartzea</i>	Inongo famili nukleora era egonkorrean sar ez daitezkeen eta etorkizunean bizimodu autonomoa egitea eragozten dieten beharrak edo patologia bereziak (adibidez, adimen urritasuna, garun lesioak) dituzten babestutako adingabeen kasuan: (1) euren behar berezietara egokitutako egoitza ingurunean sartzea bultzatzea

¹ Familia zaintzeko programa trinkoetan parte hartzen duten familien portzentaje handiak, behin programa bukatu denean, gaitzeko hain trinkoak ez diren edo laguntza, segimendua eta kontrola eskaintzen duten programen beharra izango dute, Udaletako Gizarte Zerbitzuen barruan.

² "Aldi baterako bereiztea eta familiarekin berriro elkartzea" Programan parte hartzen duten familien portzentaje handiak, behin programa bukatu denean, gaitzeko hain trinkoak ez diren edo laguntza, segimendua eta kontrola eskaintzen duten programen beharra izango dute, Udaletako Gizarte Zerbitzuen barruan.

Adin gabeko edota familia bakoitza derrigorrez egongo da atxikita azaldutako programetako bati, eta horrela adierazita egongo da Esku hartzeko Planean.

Kontuan hartu behar da programek definitzen dutela esku-hartzeak duen **helburu nagusia**, eta bestalde onartu egin behar da programa bakoitzak beste programa batzuekin zerikusia daukaten helburu zehatzei ere heldu beharko diela. Ildo horretan, "Familia zaintzeko Programa: Gurasoen gaikuntza" izenekoan dauden familien kasuan, esate baterako, esku-hartzeak duen helburu nagusia guraso edo legezko arduradunekin jardutea da; hala ere, seguruena, haurrei ere zuzendutako esku hartzeko programak garatuko dira. Desberdintasuna da esku-hartzeak dituen helburu **nagusia** eta **bitarteko edo bigarren mailako helburuak** zein diren zehaztea.

3.2. Erabili beharreko irizpide teknikoak

Haurrei zuzendutako gizarte zerbitzuen helburua haurren ongizatea eta euren oinarrizko beharrak beteko direla ziurtatzea da, babeseko behar berezia daukaten haurrenak batik bat (babesik gabeko egoera pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden haurrak). Helburu hori erdiestea jarduketa guztien azken xedea izan behar da. Horretarako, jardun beharko da haurrekin, eta baita haren ingurunean ere, eta ez da inoiz ahaztu behar arretaren jomuga nagusia haurra dela, eta haurraren interesek lehentasuna izango dutela erabakitzeko orduan, beste guztien gainetik.

Haur gehienen oinarrizko beharrak beteta edukitzeko dagoen ingurunerik aproposena familia da, ahal delarik haurraren jatorrizko familia. Bestalde, atxikimendu irudi egonkorra edukitzea ("familia" bat) haur guztiek daukaten oinarrizko premia da. Horregatik, haurrak babesik gabeko egoeretan daudenean, udaletako nahiz lurraldeko gizarte zerbitzuek aintzat hartu beharko duten esku hartzeko lehenengo aukera izango da haurra bere familian mantentzea, horretarako aitak eta amak guraso eginkizunetarako gaitu beharko dituztelarik, seme-alabei zainketa egokia eskain diezaieten.

Bereiztea proposatu ahal izango da, bakar bakarrik, haurraren ongizatea familia egoitzan ziurtatzeko ezintasuna egiaztatzen denean, hurrengo baldintzetako bat edo batzuk ematen direlako:

- Adingabea bizi den egoeraren edo jasaten ari den tratu txarraren arriskugarritasuna.
- Haurraren ahultasun handia.
- Guraso edo legezko arduradunik ez edukitzea, edo horiek ondoan ez edukitzea.
- Guraso edo legezko arduradunek haurra behar bezala zaintzeko daukaten ezgaitasuna, edo gaitasun guztiz mugatua.
- Guraso edo legezko arduradunek haurra zaintzean dituzten urritasunen aurrean kontzientziarik ez edukitzea.
- Guraso edo legezko arduradunak elkarlanean ez aritzea udaletako Gizarte Zerbitzuek edo lurraldekoek esku hartzean.
- Guraso edo legezko arduradunek haurra zaintzeko konpromisoaren aurrean adierazitako fidagarritasunik eza.
- Guraso edo legezko arduradunek eurek adieraztea kontrola gal dezaketela edota adingabeari kalte larria egin diezaioketela.
- Familia ingurunean, haurra babes dezakeen pertsonarik edo kontrol alderdirik ez egotea.

Haurraren babesgabetasuna aitortu edo zaintza beren gain hartu aurretik, lurraldeko Gizarte Zerbitzuek dokumentuen bitartez ziurtatu eta zuriu beharko dute ezin dela aukeratu haurra familiaratik bereiztea saihesten duen eta haren osasun eta segurtasuna bermatzen duen beste alternatiba bat. Ahal den guztietan, babes neurria hartu baino lehen, elkarriketa egingo da guraso edo legezko arduradunekin eta haurrekin.

Haurra bere familiarengandik bereiztu beharra dagoenean, lehentasuneko alternatiba izango da adingabea "Aldi baterako bereiztea eta familiarekin berriro elkartzeari" Programaren barruan sartzea, hurrengo salbuespenak daudelarik:

- ➡ guraso edo legezko arduradunek haurrak zaintzeko dituzten betebeharrei uko egiten dietenean;
- ➡ babesgabetasuna sortu duten alderdiak aldaezinak direla argi eta garbi egiaztatzen denean;
- ➡ familiaren egoera aldatzeko lehenago saioak egin eta emaitza onik izan ez dutenean, eta horrek ez du esan nahi egindako esku-hartzea nahikoa edo egokia izan ez denik, kasuaren beharrak ikusita;
- ➡ guraso edo legezko arduradunek inolaz ere onartzen ez dutenean errehabilitazio edo tratamendu prozesurik, guraso erantzukizunak betetzeko gaikuntza lortzera bideratuta, edo prozesu horretan sartu ezin direnean, eta
- ➡ haurraren interesa jatorrizko familian berriro sartzearen aurkakoa denean,

Inoiz ez da haurra “Behin betiko bereiztea” Programan sartuko, baldin eta lehenago, jatorrizko familia laguntza eta tratamendu zerbitzuez horniturik, argi eta garbi ziurtatu ez bada, edo ziurtatzen saiatu ez bada, guraso edo legezko arduradunak ez direla gai izango haurra zaintzeko, dituen beharren arabera, edota guraso edo legezko arduradunek horretarako beharko luketen denbora epea ez dela adingabearen beharrekin bateragarria.

Salbuespenak badaude ere, hamabi urtetik beherako haurra familiarengandik aldi baterako edo behin betiko bereizten denean, aukera egokiena beste familia batek hartzea izaten da, (behin-behineko harrera, aldi baterako bereizten bada; eta behin betiko harrera edo adopzioaren aurreko harrera, behin betiko bereizten bada). Ohiz kanpo, hamabi urtetik beherako haurrak egon beharko dira egoitza harreran. Arau hori zehatz-mehatz bete behar da sei urtetik beherako haurrekin. Adin horretako haurrak egoitza harreran jartzea kaltegarria izan daiteke, albuespenak badaude ere. Albuespenak behar bezala justifikaturik egongo dira, eta xehetasun guztiez baloratu egingo ditu erabaki horiek hartzen dituen arduradun taldeak. Sei urtetik beherako haurrak egoitza harrerara bideratuak direnean, neurriak ez luke izan behar hiru hilabete baino gehiagoko iraupenik; denbora hori igarotakoan, haurra familia batean sartu beharko litzateke (ahal bada, bere familian, eta ezinezkoa bada, beste familia batean).

Familia harrerara bideratutako kasuetan, lehenik eta behin kontuan hartu beharko da beti familia hedatuaren aukera. Aukera horrek haurraren interes eta beharrei erantzuten badie, lehenetasuna izango du, beste familia batean hartzearen aurrean. Babes neurri bat –adopzioa edo beste familia batean hartzea, adibidez– proposatzen denean, beharrezkoa da behar bezala egiaztaturik geratzea familia hedaturik ez dagoela, edo familia hedatuaren interesik eza, edo egokitasun edo gaitasunik eza.

Familia berriro elkartzea ezinezkoa dela, edo haurrarentzat komenigarria ez dela egiaztatzen denean, beste familia ingurune bat bilatu beharko da haurrarentzat, egonkorra dena, adopzio edo behin betiko harreraren bitartez. Erabaki hori ahal den epe laburrenean hartu behar da, eta edonola ere, inoiz ez da Haurren Zerbitzuaren esku-hartzea hasi eta bi urtetik gorakoa izango, lau urte baino gehiagoko haurrarentzat, eta urte batetik gorakoa, lau urtetik beherako haurrarentzat.

Haurra behin betiko sartzeko familia ingurunerik lortzerik ez dagoenean (adibidez, adinagatik, jokaera arazo zehatzak dituelako), lurraldeko Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea bideratu beharko da, baita ere, gurasoen eginkizunak betetzera: (a) adingabea adinez nagusia denean, helduen munduan sar dadin prestakuntza ematea, eta (b) adingabeak minusbaliotasun larriak eta ezgaitasuna sortzen diotenak dituelako horrelakorik bete ezin bada, ingurune edo zentro espezializatuan sartzeko saiatuko da.

Haurra bere familiarekin itzultzea aurreikusten den ala ez alde batera utzita, haurrak bere jatorrizko familiarekin maitasun loturak dituztenean, lotura horiek mantendu beharko dira, betiere haurraren interes eta ongizateari erantzuten diotenean. Gizarte zerbitzuen esku-hartzeak oreka lortu behar du lotura horiek mantentzearen eta haurra babestearen artean.

Maitasun loturak ez dira bakarrik haurraren eta gurasoen artean daudenak, horren barruan sartzeko baitira, era berean, anai-arreben artekoak. Horregatik, irizpide orokor gisa, eta kontrain-

dikatua ez dagoen bitartean, bereiztu beharreko kasuetan, ahaleginak egin beharko dira anai-arrebak elkarrekin egon daitezen, eta haien artean ahalik eta harreman estuen izan dezaten.

4. PLANA BERRAZTERTzea

Udaletako eta lurraldeko Gizarte Zerbitzuek (kasua koordinatzen duena nor den) Esku hartzeko Plana berraztertuko dute aldiro: kasuari buruz jaso den informazio berria aztertu eta baloratu egingo da; baita familiaren eta haurren eboluzioa eta esku-hartzeak emandako emaitzak ere, betiere Planean aurreikusitakoa kontuan hartuta. Hori oinarri hartuta, baloratu egingo dira Planaren helburuen definizioa aldatzeko beharra, baliabideak esleitzea edo Planaren barruan dagoen beste edozein alderdi. Hori guztia idatziz jaso beharko da kasuaren espedientean. Horretarako **“Esku hartzeko Plana Berraztertzea”** egiteko protokoloa erabili ahal izango da. Protokolo horrek Esku hartzeko Hasierako Planaren egitura bera dauka, lehenengo hiru ataletan izan ezik, horietan berraztertzeak informazio berria edo gertatutako aldaketak bakarrik jasotzen dituztelako.

Esku hartzeko Planaren berraztertzea sei hilabete behin gehienez ere egin beharko litza-teke, lau urtetik gorako haurrak direnean, eta lau hilabete behin gehienez ere, lau urtetik beherako haurrak direnean.

5. KASUA KOORDINATZEN DUEN ZERBITZUA ALDATzea


Babesik gabeko egoeraren larritasun mailan aldaketa nabarmenak gerta daitezke, esate baterako:

- arinetik edo ertaintetik larria izatera igarotzea, edo
- larria izatetik ertaina edo arina izatera igarotzea,

Horrelakoetan, espedientea lekualdatuko da aldaketaren emaitzari dagokion zerbitzura, eta ondorioz, esku-hartzean dagoen koordinazioa ere aldatu egingo da (Ikus “Udaletako Gizarte Zerbitzuen eta lurraldekoen artean kasuak desbideratzea” atala). Zerbitzu berriak beste koordinatzaile bat izendatuko du teknikarien artean, kasuaz arduratzeko; koordinatzaile horrek ordura arte burutzen ari zen esku hartzeko plana berraztertuko du eta, egonez gero, egindako aldaketak sartuko ditu.

VI. Atala

**Udaletako Gizarte
Zerbitzuetan eta
lurraldekoetan beharrezkoak
diren baliabideak, Babes
Berezia behar duten haurrei
arreta eskaintzeko**



Esku hartzeko planek errealistak izan behar dute, hau da, gauzagarriak izan behar dute. Hori, besteak beste, erabilgarri dauden baliabide edota zerbitzuen baitan dago. Batzuetan, familia batek hainbat baliabide edo zerbitzu behar dituela erabaki daiteke, baina baliabide edo zerbitzuak erabilgarri ez egotea gerta daiteke, edo ez dituztela behar diren baldintzak. Horrelakorik gertatzen denean, beharrezkoa da beste alternatiba batzuk aurkitzea, kasuaren beharrei erantzuteaz gain, bideragarriak ere badirenak.

Babes berezia behar duten haurrei laguntza egokia eskaini ahal izateko, Gipuzkoako udaletako Gizarte Zerbitzuek eta lurraldekoek hurrengo osagarriak eduki beharko lituzkete: (a) lehen mailako arretarako zerbitzu sare osatua, eta (b) ondoko berariazko baliabide edo zerbitzuak:

A) UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUETAN BEHARREZKOAK DIREN BALIABIDEAK:

- Bertako teknikariak¹ (gizarte langileak eta, ahal delarik, psikologoak), hurrengo eginkizunak betetzeko:
 - Babes berezia behar duten balizko egoerei buruzko jakinarazpenak jasotzea; jakinarazpenak jasotzeari dagozkien egitekoak burutzea, eta fase horri lotutako erabakiak hartzea.
 - Beren eskumenekoak diren kasuen ikerketa eta ebaluazioa egitea, eta fase horiei dagozkien erabakiak hartzea.
 - Beren eskumenekoak diren kasuetan esku hartzeko planak diseinatzea.
 - Beren eskumenekoak diren kasuetan esku hartzeko planen exekuzioa zuzentzea eta koordinatzea; emaitzak ebaluatzea; eta fase horri dagozkien erabakiak hartzea. Beharrezkoa den une jakinetan, profesional horiek haur eta familiekin zuzeneko esku-hartzeak ere gauzatu ahal izango dituzte.
 - Udaletako gizarte zerbitzuek, babes berezia behar duten haurrei dagokienez, dituzten gainerako eginkizunak burutzea.
- kerketa eta ebaluazio eginkizunetarako laguntza taldeak.
- Gurasoen Gaikuntzarako Familia Programa burutzeko esku hartzeko taldeak. Ondokoak dira programa horiek osatuko dutenak:
 - Familia hezitzaileak.
 - Laguntza edo tratamendu psikoterapeutiko laburreko zerbitzuak (familia osoarentzat edo kideentzat), zerbitzu horiek beren komunitatean eskaintzen ez direnean.
 - Ahal bada, hezkuntza eta laguntza taldeak, aita eta amentzat.
- Familia hezitzaileak eta kaleko hezitzaileak, udaletako gizarte zerbitzuetako teknikarien babes eta osagarri gisa, “Adingabeei berariazko laguntza ematea” eta “Haurraren eta familiararen egoeraren segimendua eta kontrola” izeneko programetan, beharrezkoa denean.

B) LURRALDEKO GIZARTE ZERBITZUETAN BEHARREZKOAK DIREN BALIABIDEAK:


- Diziplina anitzeko bertako taldeak, gizarte langileek eta psikologoek gutxienez osatuak, eta hurrengo eginkizunak betetzen dituztenak:
 - Larritasun egoerei buruzko jakinarazpenak jasotzea; jakinarazpenak jasotzeari dagozkien egitekoak burutzea, eta fase horri lotutako erabakiak hartzea.
 - Beren eskumenekoak diren kasuen ikerketa eta ebaluazioa egitea, eta fase horiei dagozkien erabakiak hartzea.
 - Beren eskumenekoak diren kasuetan esku hartzeko planak diseinatzea.

¹ Gomendagarria da bost mila biztanleko gizarte langile bat egotea (Arartekoak Eusko Legebiltzarrari emandako aparte txostenean: “Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoera, EAEn”, 1999).

- Beren eskumenekoak diren kasuetan esku hartzeko planen exekuzioa zuzentzea eta koordinatzea; emaitzak ebaluatzea; eta fase horri dagozkien erabakiak hartzea. Beharrezkoa den une jakinetan, profesional horiek haur eta familiekin zuzeneko esku-hartzeak ere gauzatu ahal izango dituzte.
- Lurraldeko gizarte zerbitzuek, babes berezia behar duten haurrei dagokienez, dituzten gainerako eginkizunak burutzea.
- Gurasoen Gaikuntzarako Familia Programa burutzeko esku hartzeko taldeak. Ondokoak dira programa horiek osatuko dutenak:
 - Familia hezitzaileak.
 - Laguntza edo tratamendu psikoterapeutiko laburreko zerbitzuak (familia osoarentzat edo kideentzat), zerbitzu horiek beren komunitatean eskaintzen ez direnean.
 - Ahal bada, hezkuntza eta laguntza taldeak, aita eta amentzat.
- Sexu abusuak daudenean tratamendu programak garatzeko taldeak.
- Familia harrera: gizartea sentsibilizatzeko, harrera eskaintzen duten familiak antzemateko, hautatzeko eta trebatzeko programak eta zerbitzuak; harrera ondoan laguntzeko eta segimendua egiteko programak.
- Egoitza harrerako zentroak.
- Emantzipaziorako prestakuntza eta laguntza programak.
- Adoptzioa: behar bereziak dituzten haurrentzat, adopzio familiak antzemateko programak; familiak hautatzeko eta trebatzeko zerbitzuak; adopzio ondoan laguntza emateko zerbitzuak.

VII. Atala

Udaletako Gizarte Zerbitzuen eta lurraldekoen artean kasuak bideratzea



KASUAK ELKARREN ARTEAN BIDERATZEKO PROZESUAREN INGURUKO GAI GARRANTZITSUAK

Udaletako gizarte zerbitzuen eta lurraldekoen artean kasuak bideratzea esku hartzeko prozesuaren une ezberdinetan gerta daiteke:

1. Kasu bat jaso ondoren, lehenengo informazioek gogortasun eta larritasun mailari buruz nahikoak diren datuak ematen dituztenean, eta horrek esku hartzea beste zerbitzu batek egin behar duela pentsarazten duenean.
2. Ikerketaren ondoren, kasuaren larritasuna egiaztatzen denean.
3. Esku hartu bitartean, kasuaren larritasunean aldaketak gertatzen direnean (arin edo ertaina izanda larri bilakatzen denean, edo alderantziz); edo familia egoerari buruzko datu berriak jaso direnean, eta horrek gogortasun maila berriro sailkatzera behartzen duenean.

Egoera horietako edozeinetan, baina bereziki 3. puntuan azaldutakoetan, garrantzitsua da kontuan hartzea kasuak elkarri bideratzea ez dela ekintza administratibo hutsa, berehala gauzatzeko dena; aitzitik, **prozesu** bat baitago, **oso garrantzitsua den hasierako fasea** duena, eta hasierako fase horretan udaletako eta Lurraldeko gizarte zerbitzuen artean, koordinazio, analisi eta akordioak egiten direla, eta familiak trebatzen direla. Horretarako denbora behar da, eta fasea kontu handiz antolatu eta burutu behar da. Era horretan bakarrik lortu ahal izango da bideratzeak arrakasta edukitzea, eta esku-hartzea eraginkorra izatea.

UDALETAKO GIZARTE ZERBITZUETAKO KASUAK LURRALDEKOETARA BIDERATZEKO PROZEDURA

1. KASU LARRIETARAKO PROZEDURA

- ➡ Jakinarazpenak Jasotzeko Saileko (Foru Aldundia) arduradunei telefonoz hots egingo zaie, kasuari “larria” sailkapena eman behar zaiola jakinaraziz; sailkapen horren arrazoiak zein diren adieraziko da, eta baita ordura arte egindako ekintzak ere. Elkarrizketa horretan, egin beharreko ekintzak, informazioa transmititzeko prozedura barne (faxa, posta elektronikoa, posta, eta abar), adostuko dira.
- ➡ Jarraian, Udaleko Gizarte Zerbitzuak Foru Aldundira idatziz igorriko duen informazioa azaltzen da:
 - Kasua bideratzeko dauden arrazoiak, eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak egindako balorazio bat, Foru Aldundiak egin beharreko jarduketa baloratzen duena, adierazteko idatzi bat.
 - Txosten laburra, hurrengo puntuak garatuko dituena:
 - kasuaren larritasuna eta premia (Ikerketari buruzko atalean deskribatutako irizpideen arabera),
 - zerbitzuak alde aurretik egindako jarduketak,
 - guraso edo legezko arduradunek beren arazoan aurrean adierazten duten kontzientzia maila eta gizarte zerbitzuekin noraino ari diren elkarlanean,
 - kasuari buruzko informazioa eskain dezaketen edo Foru Aldundiarekin esku hartzean parte har dezaketen beste pertsona edo zerbitzu batzuk,
 - garrantzitsutzat hartzen den beste informazio bat (barne dago zerbitzuan dagoen familiari buruzko historia, alde aurrekoa).
 - Egongo balira, garrantzitsuak diren beste txosten batzuen kopia (esate baterako, jakinarazpenerako protokoloa, edo jakinarazpenak jasotzeko protokoloa, txosten medikoak, eskolako txostenak).

Foru Aldundiak jakinarazpen horiei berehalako erantzuna eman behar die.

2. KASUAK ELKARRI BIDERATZEA IKERKETAREN ONDOREN: larriak diren kasuak

Foru Aldundira, hurrengo datuak dituen txosten bat bidaliko da:

- ➡ Kasua bideratzeko dauden arrazoiak, eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak egindako balorazio bat, Foru Aldundiak egin beharreko jarduketa baloratzen duena, adierazteko idatzi bat.
- ➡ Ikerketa protokoloaren kopia, eta horrekin batera, haurraren egoerari buruzko nahiz bere guraso edo legezko arduradunek haurraren aurrean daukaten jokaerari buruzko informazio zehatza duten txostenen kopia.
- ➡ Zerbitzuak alde aurretik egindako jarduketak.
- ➡ Hurrengo alderdiak jasotzen dituen balorazioa: guraso edo legezko arduradunek beren arazoan aurrean adierazten duten kontzientzia maila eta gizarte zerbitzuekin noraino ari diren elkarlanean.
- ➡ Kasuari buruzko informazioa eskain dezaketen edo Foru Aldundiarekin esku hartzean parte har dezaketen beste pertsona edo zerbitzu batzuk.
- ➡ Garrantzitsutzat hartzen den beste informazio edo txosten bat –edo batzuk– (barne dago zerbitzuan dagoen familiari buruzkoa, alde aurrekoa).

Gutziz komenigarria da bideratze horren aurretik telefonoz dei egitea, eta ondoren bi zerbitzuetako teknikarien artean bilera bat egitea, kasuaren egoera zehatz-mehatz analizatzeko edo egin beharreko jarduketa zehazteko.

3. UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN ALDETIK ESKU-HARTZEA IZAN DUTEN KASU LARRIAK BIDERATZEA

Jarraian, Udaleko Gizarte Zerbitzuak Foru Aldundira idatziz igorriko duen informazioa azaltzen da:

- Kasua bideratzeko dauden arrazoiak, eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak egindako balorazio bat, Foru Aldundiak egin beharreko jarduketa baloratzen duena, adierazteko idatzi bat.
- Bideratzeko unean, familiak zuen egoerari buruzko ikerketa txostena (Hasierako Ebaluazioari buruzko txostenaren gidoiari jarraiki), hurrengo puntuak garatuko dituena:
 - a) haurren egoera, arlo fisiko, kognitibo, sozial eta emozionalean,
 - b) guraso edo legezko arduradunek haurrari emandako tratua, zaintza eta arreta, eta
 - c) babesik gabeko egoera larritzat jotzeko dauden adierazle zehatzak (Ikerketari buruzko atalean azaldutako irizpideetan oinarrituta).
- Guraso edo legezko arduradunek beren arazoan aurrean adierazten duten kontzientzia maila eta gizarte zerbitzuekin noraino ari diren elkarlanean.
- Kasuari buruzko informazioa eskain dezaketen edo Foru Aldundiarekin esku hartzean parte har dezaketen beste pertsona edo zerbitzu batzuk.
- Garrantzitsutzat hartzen diren beste txosten edo informazio batzuk.

Gutziz komenigarria da bideratze horren aurretik telefonoz dei egitea, eta ondoren bi zerbitzuetako teknikarien artean bilera bat egitea, kasuaren egoera zehatz-mehatz analizatzeko edo egin beharreko jarduketa zehazteko.

LURRALDEKO GIZARTE ZERBITZUETAKO KASUAK UDAL ZERBITZUETARA BIDERATZEKO PROZEDURA

1. KASUAK ELKARRI BIDERATzea IKERKETAREN ONDOREN: arinak edo ertainak diren kasuak

Udaleko Gizarte Zerbitzura igorriko da:

- Kasua bideratzeko dauden arrazoiak, eta Foru Aldundiak egindako balorazio bat, Udaleko Gizarte Zerbitzuak egin beharreko jarduketa baloratzen duena, adierazteko idatzi bat.
- Jakinarazpen eta jakinarazpenak jasotzeko protokoloaren kopia bat.
- Egongo balira, eta egokia izango balitz, beste txosten batzuen kopia.

2. KASUAK ELKARRI BIDERATzea IKERKETAREN ONDOREN: arinak edo ertainak diren kasuak

Udaleko Gizarte Zerbitzura, hurrengo datuak dituen txosten bat bidaliko da:

- Kasua bideratzeko dauden arrazoiak, eta Foru Aldundiak egindako balorazio bat, Udaleko Gizarte Zerbitzuak egin beharreko jarduketa baloratzen duena, adierazteko idatzi bat.
- Ikerketa protokoloaren kopia, eta horrekin batera, haurraren egoerari buruzko nahiz bere guraso edo legezko arduradunek haurraren aurrean daukaten jokaerari buruzko informazio zehatza duten txostenen kopia.
- Hurrengo alderdiak jasotzen dituen balorazioa: guraso edo legezko arduradunek beren arazoan aurrean adierazten duten kontzientzia maila eta gizarte zerbitzuekin noraino ari diren elkarlanean.
- Kasuari buruzko informazioa eskain dezaketen edo Udaleko Gizarte Zerbitzuarekin esku hartzean parte har dezaketen beste pertsona edo zerbitzu batzuei buruzko informazioa.
- Garrantzitsutzat hartzen diren beste txosten edo informazio batzuk (barne daude sailean egon daitekeen familiari buruzko alde aurreko informazioa).

Gutziz komenigarria da bideratze horren aurretik telefonoz dei egitea, eta ondoren bi zerbitzuetako teknikarien artean bilera bat egitea, kasuaren egoera zehatz-mehatz analizatzeko edo egin beharreko jarduketa zehazteko.

3. LURRALDEKO GIZARTE ZERBITZUEN ALDETIK ESKU HARTZE BEREZIA IZAN DUTEN KASUAK BIDERATzea

Udaleko Gizarte Zerbitzura, hurrengo datuak dituen txosten bat bidaliko da:

- Kasua bideratzeko dauden arrazoiak, eta Foru Aldundiak egindako balorazio bat, Udaleko Gizarte Zerbitzuak egin beharreko jarduketa baloratzen duena, adierazteko idatzi bat.
- Bideratzeko unean, familiak zuen egoerari buruzko ebaluaketa txostena (Hasierako Ebaluazioari buruzko txostenaren gidoiari jarraiki).
- Guraso edo legezko arduradunek beren arazoan aurrean adierazten duten kontzientzia maila eta gizarte zerbitzuekin noraino ari diren elkarlanean.
- Kasuari buruzko informazioa eskain dezaketen edo Udaleko Gizarte Zerbitzuarekin esku hartzean parte har dezaketen beste pertsona edo zerbitzu batzuei buruzko informazioa.
- Garrantzitsutzat hartzen diren beste txosten edo informazio batzuk.

Bideratze horren aurretik telefonoz dei egingo da, eta ondoren bi zerbitzuetako teknikarien artean bilera bat egingo da, kasuaren egoera zehatz-mehatz analizatzeko edo egin beharreko jarduketa zehazteko.

A group of young women are sitting together, smiling and talking. They are wearing colorful, patterned scarves and sweaters. The background is a light, neutral color.

5

Eranskinak




I. Eranskina

Babes Berezia Behar duten Haur eta Gazteak

GIZARTE ZERBITZUEK ZAINDU BEHARREKO POPULAZIOA: BABES BEREZIA BEHAR DUTEN HAUR ETA GAZTEAK

1. BABES BEREZIA BEHAR DUTEN HAURRAK ETA GAZTEAK, FAMILIA EGOERA DELA-ETA, EDOTA GURASO EDO LEGEZKO ARDURADUNEN JOKAERA DELA ETA.



1. BABESIK GABEKO EGOERA GERTATZEKO ARRISKUA

Babesik gabeko egoera gertatzeko arriskua sor daiteke haurren familia eta gizarte ingurunean krisi egoera edo arazoak gertatzen direnean (esate baterako, arazo ekonomikoak; gizarte bazterketa; estres maila handia; gurasoak nerabeak izatea; gizarte isolamendua), eta aurreikusten denaren arabera, guraso edo legezko arduradunek beren seme-alabei behar bezalako arreta eskaintzeko gaitasunean era negatiboan eragin edo gaitasun hori mugatu dutenean, eta ondorioz etorkizun hurbilean haurren babesik gabeko egoera bultza dezaketenean.



Lehen mailako arreta edo udaletako gizarte zerbitzuen ardura nagusia dira egoera horiek.

2. BABESIK EZA

Haurrek babesik ez edukitzea lau egoera motaren ondorioz gerta daiteke:

Haurrek babesik ez duten egoerak

- 2.1. Guraso edo legezko arduradunek babes betebeharrak betetzeko ezintasuna, aldi baterako edo behin betiko.
- 2.2. Guraso edo legezko arduradunek babes betebeharrak ez betetzea.
- 2.3. Guraso edo legezko arduradunek haurrak era desegokian tratatzea (ekintzez edo ez-egitez): Tratu txarrak / familia barruko abandonoa:
 - Larritasun handia (Babesgabetasuna eta babesgabetasuna gertatzeko arrisku handia)
 - Larritasun ertaina
 - Larritasun arina
- 2.4. Guraso edo legezko arduradunek haurra beste pertsona batzuen erasoetatik edo tratu desegoki eta larrietatik babesteko ezintasuna:
 - Larritasun handia (Babesgabetasuna eta babesgabetasuna gertatzeko arrisku handia)
 - Larritasun ertaina
 - Larritasun arina

- 2.1. **Guraso edo legezko arduradunek babes betebeharrak betetzeko ezintasuna, aldi baterako edo behin betiko** (hil delako, preso dagoelako, ezgaitasuna eragiten duen gaixotasun fisikoa, mentala edo toxikomania duelako, edo antzeko arrazoiengatik), eta haurra bere gain hartzen ez duen seniderik ez egotea.



Egoera horiek babesgabetasuna sor dezakete, edo haurren zaintzaz arduratzeko beharra. Lurraldeko zerbitzuen ardura dira.

- 2.2. **Guraso edo legezko arduradunek babes betebeharrak ez betetzea:** amatasun edo aitatasunari uko egitea, edo hori ez onartzea; haurra erabat abandonatzea, edo antzeko arrazoia.



Egoera horiek babesgabetasuna sor dezakete. Lurraldeko zerbitzuen ardura dira.

- 2.3. Guraso edo legezko arduradunek haurrak era desegokian tratatzea (ekin-tzez edo ez-egitez):** Tratu txar edo abandonu egoerak: tratu txar fisikoak; abandonu fisikoa; tratu txar emozionala; abandonu emozionala; sexu abusua; galbideratzea (sexu esplotazioa eta delinkuentziara bultzatzea); galbideratzea, gurasoen eredu asozialak bultzatuta; lan esplotazioa; jaio aurreko tratu txarra; gurasoek haur edo nerabearen jokaera kontrolatzeko ezintasuna; beste batzuk (ikus definizioa II. Eranskinean).



Larritasunaren arabera, egoera horiek arriskua edo babesgabetasuna sor dezakete, edo haurren zaintzaz arduratu beharra gerta daiteke. Horren arabera, udal gizarte zerbitzuen edo Lurraldekoen ardurara izan daitezke.

“Tratu desegokia” gertatzen denean, hainbat larritasun maila izan dezake tratu horrek. Jarraian, deskribatu egingo ditugu maila horiek, eta mailak ebaluatzeko erabili beharreko irizpideak. Nolanahi ere, garrantzitsua da kontuan hartzea arazo horiek dituzten familien egoerak alda daitezkeela; horregatik, babesik gabeko egoerak duen larritasun maila ere alda daiteke, hau da, handitu edo urritu daiteke. Horrek esan nahi du familietan esku hartzeaz arduratzen diren zerbitzuak ere alda daitezkeela, eta horrela, udal gizarte zerbitzuetatik lurraldeko zerbitzuetara igaro daiteke, edo alderantziz.

Larritasun mailak hurrek jasaten dituzten tratu desegokien egoeretan:


- ➡ **Haurrak jasaten dituen tratu txar/abandono egoerak oso larriak dira:** haurraren, kalte nabarmena sortu duten edo epe laburrean sor dezaketen egoerak, kalte fisiko, psikologiko, kognitibo edota gizarte alorrekoa delarik, eta haurraren garapenean eragin handia sortu dutenak; edo horren ondorioz haurrak dituen arazoak konpontzeko berriazko tratamendu bereziak behar dituztenean edo horien beharra izango duenean (tratamendu medikoa, tratamendu psikiatrikoa, garapenean atzerapenak konpontzeko berriazko programak, eta abar). Hurrengoak dira egoera horien adibide adierazgarriak:
 - ◇ Babesik gabeko egoeren tipologia antzeman diren eta “larria” sailkapena emateko baldintza guztiak betetzen dituzten kasu guztiak (ikus Babesik gabeko egoeren tipologiei buruzko eranskina), guraso edo legezko arduradunek arazoa dagoelako kontzientzia nahikorik ez dutenean, eta/edo zerbitzuekin elkarlanean aritzeko nahia adierazten ez dutenean.
 - ◇ Sexu abusua dagoela susmatzen denean, edo egoera egiaztatuta dagoenean (familia barruko sexu abusua izan, nahiz familiarik kanpoko sexu abusua izan, eta guraso edo legezko arduradunek haurra gerta litezkeen abusetatik babesteko gauza ez direnean, edo horretarako daukaten gaitasunak zalantzak sortzen dituztenean).
 - ◇ Gurasoek edo legezko arduradunek uko egitea.
 - ◇ Sindrome alkoholiko fetalaz edo abstinentzia sindromeaz jaiotako haurrak (metadona tratamendua egiten ari diren amen kasuak izan ezik).
 - ◇ Delituzko ekintzak eta prostituzioa egitera bultzatutako edo sexu esplotazioa pairatzen duten haurrak.
 - ◇ Oinarrizko beharrak bete gabe dauzkaten haurrak, edo babesik gabeko egoeren tipologiaren bat pairatzen dutenak, eta horren ondorioz, hurrengo arazoetako bat edo batzuk dituztenak:
 - Ume txikiengan, garapenaren atzerapen nabarmena. Jokaeraren eredu arbuigarria, edo inhibizio handia eta gizarte uzurtasuna.
 - Jokaera bortitza, disruptiboa edo bere buruarentzat edo besteentzat arriskutsua dena.
 - Haurrak bere rola betetzeko eragina duten hiperaktibitate jarraibideak maiztasunez azaltzea edo kronikoak izatea.

- Bere buruaz beste egiten saiatzea, edo horri buruzko adierazpenak egitea. Bere buruari kalte egiteko joera eta jokabideak.
- Droga edo alkohola maiz kontsumitzea edo horien menpekotasuna izatea.
- Etxetik edo eskolatik maiz ihes egitea.
- Delituzko jokaeretan parte hartu duela adierazten duten lehenagoko edo egungo txostenak.
- Nahasmendu psikiatriko larria edukitzea, diagnosia daukana.

Haurrek babesik ez duten egoera oso larrien barruan, bi bereiztu behar dira:

- Tratu txar edo abandonu larria, banatzeko neurriaz (babesgabetasuna): egoera hori gertatzen da haurra bere familia ingurunetik aldi baterako edo behin betiko banandu beharra dagoenean, haren babesa bermatzeko (zaintza edo tutoretzaren bitartez), hurrengo arrazoiak aintzat hartuta:

- a) babesik gabeko egoera larria da,
- b) haurraren eta familiaren ingurune naturalean ez dago nahiko babes eta kontrol faktorerik,
- c) familiaren egoera aldatzeko pronostikoa, epe laburrera behintzat, negatiboa da, eta
- d) guraso edo legezko arduradunek ez dute nahikoa elkarlanik eskaintzen haurtzaroa babesteko zerbitzuekin, edo ez dago elkarlana behar diren baldintzetan egingo dela ziurtatzeko bermerik.



- Babesgabetasunaren arrisku handia, ondoko egoeretan gertatzen da:

- a) babesik gabeko egoera larria da,
- e) haurraren eta familiaren ingurune naturalean ez dago nahiko babes eta kontrol faktorerik,
- b) familiaren egoera aldatzeko pronostikoa, epe laburrera behintzat, negatiboa da, eta
- c) guraso edo legezko arduradunek espezializatutako esku-hartze trinkoa onartzen dute banatu ordez, haien elkarlana zalantzazkoa izan badaiteke ere.

Kasu horietan, haurrak familian jasotzen dituen tratuan eta arretan berehala edo epe laburrean hobekuntzarik ikusten ez baldin bada, babesik gabeko egoera dela erabaki eta haurra familiatik bananduko da.



- Haurrak jasaten dituen tratu txar/abandono egoerak larritasun ertainekoak edo arinekoak dira:

- a. Larritasun arina: Egoerak ez du haurraren kalterik sortu, eta ez da aurreikus-ten sortuko duenik (kalte fisiko, psikologiko, kognitibo edo gizarte alorreko) edo, kalteren bat sortu badu, ez da garrantzitsua (hau da, ez du eragin handirik haurraren garapenean), edo ez da aurreikusten etorkizunean izango denik. Hori gerta daiteke:
 - tratu txarra edo abandonua maila txikikoa delako, edo
 - tratu txarra edo abandonua maila ertainekoa izan daiteke, baina gogortasuna baxua da, eta noizean behin bakarrik gertatzen da.

b. Larritasun ertaina: Egoerak kalte handiagoa sortu du esparru horietan, edo sortuko duela aurreikusten da. Hala ere:

- haurren garapena ez dago arriskuan, eta haurrak ez du berriazko tratamendu trinkorik arazoak konpontzeko (tratamendu medikoa, tratamendu psikiatrikoa, garapenaren atzerapenak konpontzeko berriazko programak eta abar), edota
- haurren garapenean sortutako egungo kaltea edo balizko kaltea handiagoa da, baina familia errehabilitaziorako pronostikoak positiboa dirudi, guraso edo legezko arduradunak (1) beren arazoan jakitun daudelako (bai hasieratik, bai udal gizarte zerbitzuetako profesionalak egindako kontzientziazte lanaren ondorioz), eta (2) guraso edo legezko arduradunek haurren egoera hobetzearren komunitateko zerbitzuekin elkarlanean aritzeko prestasuna azaltzen dutelako.



Legeak Arrisku Egoera izendatzen ditu egoera horiek, eta udaletako gizarte zerbitzuen ardura nagusia dira

2.4. Guraso edo legezko arduradunek haurra beste pertsona batzuen erasoetatik edo tratu desegoki eta larrietatik babesteko ezintasuna. Guraso edo legezko arduradunek pasibotasuna agertzen dute edo argi eta garbi ezintasuna daukate beste heldu edo adingabe batzuek haurrari egindako larritasun ertaineko eta handiko tratu txar edo abandonu egoeretatik babesteko orduan (2.3. atalean deskribatutako larritasun irizpideak erabili).



Egoera horiek udaletako edo Lurraldeko gizarte zerbitzuen eskumena izango dira, haurrak pairatutako babesik ezaren larritasunaren arabera (2.3 atalean deskribatutako irizpideetan oinarrituta)

3. BABES BEREZIA BEHAR DUTEN HAURRAK ETA GAZTEAK, GURASO EDO LEGEZKO ARDURADUNEK KONTROLATU EZIN DITUZTEN ARAZO EDO EGOERA SOZIOEKONOMIKOAK DIRELA ETA.

Multzo honetan sartzen dira izaera sozio-ekonomikoko zailtasun handiak dituzten komunitateetan bizi diren haurrak eta familiak; egoera horiek, guraso edo legezko arduradunen kontroletik kanpo daude, eta haurrek eta gazteek oinarrizko premiak bete gabe edukitzea eragiten du, nahiz eta guraso edo legezko arduradunen nahia seme-alabei behar bezalako babesa eskaintzea den. Adibide dira komunitate guztiz deprimituetan bizi diren familiak, txirotasun eta langabezi maila altuak, gizarte laguntzarik ia gabe, haurren hezkuntzarako aukerarik gabe, edo gerra egoeran dauden komunitateetan, alegia. Gurean ez da horrelako egoerarik maiz aurkitzen, daukagun Gizarte Babesaren sistemak garapen handia duelako, eta ongizate eta egonkortasun maila handia lortu dugulako.

Nolanahi ere, gertatuz gero, egoera horiei aurre egitea udaletako gizarte zerbitzuen ardura izango litzateke, betiere lehen mailako arretako zerbitzu sarearekin koordinaturik, eta ardura ere elkarrekin partekaturik. Egoera horiek haurren zaintza edo tutoretzaz arduratzea beharrezko bihurtzen duten urritasun larriak eragiten dituztenean bakarrik esku hartuko dute lurraldeko zerbitzuek; zerbitzuok kasuaren erantzukizun nagusia beren gain hartuko dute, eta neurri horiek mantenduko dituzte familia eskasiaren egoera konpontzeko behar den denboran soilik.



II. Eranskina

Ikerketa

Babesik gabeko egoeraren adierazleak

Haurren beharrak

(F. López, 1995)

IZAERA FISIKO ETA BIOLOGIKOA DUTEN BEHARRAK

<i>Beharrak</i>	<i>Asebetetasun adierazleak</i>	<i>Urritasun adierazleak</i>
<i>Elikadura</i>	<i>Ama, haurdunaldian eta edoskitzaroan, behar bezala elikatzea. Nahikoa den elikadura, era askotakoa, denboran segida duena, adinari egokituia.</i>	<i>Fetua kaltetzen duten substantziak jatea. Desnutrizioa edo gehiegi elikatzea (obesitatea). Adinerako egokia ez den elikadura.</i>
<i>Temperatura</i>	<i>Etxebizitza eta jantzien baldintza egokiak</i>	<i>Hotza etxebizitzan; hezetasuna; oinetakorik ez edukitzea; jantzirik ez edukitzea.</i>
<i>Higienea</i>	<i>Gorputzaren, etxebizitzako, elikaduraren, jantzien eta ingurunekeo higieena.</i>	<i>Zikinkeria; ingurunearen kutsadura; germen infekziosoak; parasitoak eta karraskariak.</i>
<i>Loa</i>	<i>Espazio giroa babestua eta isila; nahikoa lo egitea, adinaren arabera, eta ume txikia bada, siestak barne.</i>	<i>Ziurtasun eza; zarata kutsadura; maiz etetea; nahikoa lorik ez egitea; egunez atsedean egiteko leku eta betarik gabe.</i>
<i>Jarduera fisikoa: ariketa eta jolasa</i>	<i>Espazioan mugimendu askatasuna edukitzea; jostailu eta beste haur batzuk espazioan egotea; natura elementuekin harremana izatea (ur, lur, landare, abere eta abarrekin); paseoak, ibilaldiak, txangoak, e. a.</i>	<i>Gorputza mugitzerik ez edukitzea; espaziorik eza; objekturik eza; jostailurik eza; geldirik egotea; egoneko bizitza.</i>
<i>Arrisku errealetatik babestea. Osotasun fisikoa.</i>	<i>Etxea segurtasuna kontuan hartuta antolatuta egotea (entxufeak, garbigarriak, tresnak eta lanabesak, eskailerak eta abar). Azterketa: Haurren eta dauden lekuaren arteko harremanak ezagutzea eta kontrolatzea.</i>	<i>Etxeko istripuak. Haurrak istripuak izaten ditu, edo erasoak pairatzen ditu, inork gainbegiratzen ez duelako.</i>
<i>Osasuna</i>	<i>Adin eta osasun egoeraren araberako azterketa medikoak; txertoak.</i>	<i>Osasun kontrolrik eza; sintomak eragitea; txertorik ez jartzea.</i>

BEHAR KOGNITIBOAK

<i>Beharrak</i>	<i>Asebetetasun adierazleak</i>	<i>Urritasun adierazleak</i>
<i>Zentzumen estimulazioa</i>	<i>Zentzumenak estimulatzea; estimuludun ingurunea (ikusizkoak, ukimenekoak, entzunezkoak); estimulu kopurua, aniztasuna eta kontingentzia; familiar jolas elkarreragina; hizkuntza estimulazioa.</i>	<i>Gabetasun sentsoriala; eskasia sentsoriala; estimulu monotonia; erantzunaren kontingentziarik eza; hizkuntza estimulaziorik eza.</i>
<i>Esplorazio fisiko eta soziala</i>	<i>Ingurune fisiko eta sozialarekiko harreman aberatsa objektu, jostailu, elementu natural eta pertsona alorretan; ingurune fisiko eta sozialak esploratzea; "txikienei segurtasun oinarritzkoa" eskaintzea; haiekin esperientziak partekatzea.</i>	<i>Ingurune pobrea; esplorazioan laguntzarik ez eskaintzea; helduekin eta haurren adinekoekin esperientziak ez partekatzea.</i>
<i>Errealitate fisiko eta soziala ulertzea</i>	<i>Galderak entzun eta erantzun kontingentziaz; egia esatea; haurrak bizitzaren ezagutzan, sufrimenduan, plazerean eta heriotzan parte har dezan bultzatzea; bizitza, harreman eta loturen ikuspegi positiboa eskaintzea; transmititzen diren jokoera, balio eta arauak gizartearen aldeko eta moldakorrek izatea; desadostasun eta desberdintasunekin (beste sexu edo arraza batekoak direnekin, minusbaliotasunak dituztenekin, eta abarrekin) tolerantzia edukitzea.</i>	<i>Ez entzutea; ez erantzutea; egokia ez den unean erantzutea; gezurrak esatea; errealitatea ezkatzea; bizitza, harreman eta loturen ikuspegi pesimista edukitzea; balio antisozialak transmititzea; dogmatismoa, arrazakeria.</i>

BEHAR EMOZIONAL ETA SOZIALAK

<i>Beharrak</i>	<i>Asebetetasun adierazleak</i>	<i>Urritasun adierazleak</i>
<i>Emozio segurtasuna</i>	Baldintzarik gabeko atxikimendua (onespena, prestasuna, irisgarritasuna, eskaeretara egokitutako erantzuna eta gaitasuna); harreman intimoa (ukitzean, ikusizkoa, hizkuntzaren aldetik, e. a.); kontrolerako gaitasuna; babeserako gaitasuna; gatazkak moral inductiboz konpontzea; adinaren araberako azalpenak eta eskakizunak; koherentzia eskakizunetan; haurrak erabakiaren aurrean protesta eginez gero berrikusteko aukera.	Errefusa; absentzia; irisgarritasunik eza; ez antzematea; ez interpretatzea; ez erantzutea; ez erantzutea kontingentziaz; erantzunak koherentziarik ez edukitzea; haurra kontrolatzeko gaitasunik eza; arriskuetatik babesteko gaitasunik eza; nagusikeria; ez maitatzeko mehatxua.
<i>Gizarte harremanen sarea</i>	Adiskide eta kidesun harremanak bera bere parekoak direnekin (parekoak direnekiko harremana eta elkarrenergina bultzatzea, familia ingurunean eta eskolan; harremanetarako denbora, eta abar); harremanei jarraipena ematea; seme-alabak dituzten beste familia batzuekin batera jarduerak egitea; haur talde edo elkarteetan sartzea.	Gizarte isolamendua; lagunengandik luze bananduta egotea; lagunekin harremanetan jarraitzeko ezintasuna; lagunak edukitzea debekatzea; arrisku-kideak.
<i>Pixkanaka parte hartzea eta autonomia edukitzea</i>	Haurrak parte hartzea familian, eskolan eta gizartean jasotzen dituen eraginean, eta bere buruaren alde eta gainerakoan alde egin ditzakeen gauzen kudeaketan.	Haurrari ez entzutea; haurra kontuan ez hartzea; menpekotasuna.
<i>Jakin-mina, imitazioa eta sexu ukipenak</i>	Galderei erantzutea; sexu jolas eta auto-estimulazioa onartzea; abusuetatik babestea.	Ez entzutea; ez erantzutea; engainatzea; haurraren sexu adierazpenak zigortzea; sexu abusua.
<i>Irudizko arriskuetatik babestea</i>	Haurraren beldurrak entzutea eta ulertzea, eta erantzuna ematea (abandonuari beldurra, senideen arteko lehia, heriotzari beldurra); beldurra adierazteko aukera; beldurra areagotzen duten adierazpenak edo jokaerak saihestea (hitzezko bortizkeria edo bortizkeria fisikoa, egokiak ez diren eztabaidak, ahozko mehatxuak, kontrola galtzea, koherentziarik eza jokaeran).	Ez entzutea; ez erantzutea; ez lasaitzea; emozio inhibizioa; hitzezko bortizkeria; bortizkeria fisikoa ingurunean; harremanetan koherentziarik ez egotea.
<i>Jolas elkarreragina</i>	Familian, jolas elkarreragina, gurasoekin eta beste senideekin; jolasak parekoak direnekin.	Gurasoek astirik ez edukitzea; gurasoak irisgarriak ez izatea; gurasoen bizi tonua tristea edo motela izatea; parekorik ez egotea; jostailurik edo objekturik eza; egokiak ez diren jostailuak.

Haurrei egindako tratu txarren tipologiak

1. TRATU TXAR FISIKOA

“Haurrari kalte fisiko larria edo gaixotasuna eragiten dion edo jasateko arriskuan jartzen duen edozein ekintza guraso, tutore edo zaintzaileek nahita egitea”.

Tratu txarren barruan dauden jokaerak (adierazle fisikoak haurraren):

- Mailatuak edo ubeldurak aurpegian, ezpainetan edo ahoan; gorputz enborraren zabale-
ra handian, bizkar, ipurmasail edo izterretan; orbaintze maila ezberdinekin edo arruntak
ez diren formak dituztenak; multzoak osatuz, edo eraso egiteko erabili den objektuaren
formak edo markak dituztenak.
- Erredurak, objektu zehatzen forma argiak dituztenak, edo puru edo zigarroenak; ur bero-
tan sartu izanaren adierazgarri izan daitezkeenak.
- Sudur edo masaila hezurra haustea; hezur luzeak espiralean haustea.
- Lokadurak edo zaintiratuak.
- Zauriak edo urratuak, ahoan, ezpainetan, hortzoietan eta begietan, edo beso, hanka edo
gorputz enborraren atzealdean egindakoak.
- Pertsonen haginkaden seinaleak, argi eta garbi helduren batek egindakoak eta behin eta
berriro agertzen direnean.
- Ebakiak edo ziztadak.
- Barruko lesioak, buru hezurra haustea, garuneko erasana, hematoma subduralak, itola-
ria eta itomena.

Tratu txar fisikoa egin dela igartzeko, hurrengo baldintzetako bat gutxienez bete behar da:

- a. Behin gutxienez antzeman da adierazleetako bat. Lesio fisikoak ez dira “ohikoak”, adin
horretako eta ezaugarri horiek dituzten haurraren aurreikus daitezkeen barruan (bai
maiztasunagatik edo indar handiz eginak direlako, bai agi denez azalpenik ez duten lesio-
ak direlako edo haurrak edota guraso edo tutoreek emandako azalpenekin bat ez dato-
zelako, e. a.)
- b. Aipatutako adierazleetako bat ere ez da antzeman argi eta garbi; baina, ziurra da hau-
rrak, guraso, tutore edo zaintzaileen jardunaren ondorioz, aipatutako lesio fisikoetakoren
bat jasan duela.
- c. Ez dago lesio fisikorik; baina, ziurra da guraso, tutore edo zaintzaileek gehiegizko gorputz
zigorra erabiltzen dutela, edo adingabeak jipoiak pairatzen dituela. Bi ekintza horiek tratu
txar fisikotzat hartu ahal izateko, hurrengo faktoreak ere gertatu behar dira:
 - Aita, ama edo zaintzailearen erreakzioaren indarra ez dator bat haurraren jokaerak
daukan larritasunarekin. Edo emandako diziplina ez da egokia, edo ez dator bat
haurraren interesekin, haurraren adin edo garapen mailaren arabera.
 - Guraso, tutore edo zaintzaileak bere erreakzioa kontrolatu ez zuela dirudi, eta
zigorra gelditu ez zuela.
 - Aurrekoaz gain, haurrak justifikatu gabeko emozio tentsioaren erreakzioa dauka.

Larritasun mailak:

1. Arina: Tratu txarrak ez du inoiz haurraren lesiorik eragin. Edo adingabeak kalte edo
lesio minimoa jasan du, tratamendu medikorik behar izan ez duena.
2. Ertaina: Tratu txarrak neurrizko lesio fisikoak eragin ditu haurraren, edo diagnosi edo
tratamendu medikoren bat behar izan dutenak. Haurrak orbaintze edo sendatze fase
ezberdinetan dauden lesioak ditu.
3. Handia: Haurra ospitaleratu beharra izan da, edo berehalako arreta medikoa behar izan
du, tratu txarrak eragindako lesioak direla-eta. Haurrak lesio larriak ditu, orbaintze fase
ezberdinetan daudenak.

2. ARDURAGABEKERIA

“Haurrarekin bizi diren pertsonetako inork ez ditu betetzen adingabearen oinarrizko behar fisiko eta kognitiboak (arriskutsuak izan daitezkeen egoeretan elikadura, jantziak, higiena, babeseta eta zainketa; zainketa medikoak; hezkuntza, estimulazio kognitiboa), aldi baterako edo era egonkorrean gerta daitekeelarik”.

Ondokoak dira arduragabekeriaren barruan dauden jokaera motak:

1. Elikadura: Ez zaio behar duen elikadura ematen. Gosetuta egoten da.
2. Jantziak: Eguraldira egokitzen ez diren jantziak. Haurra ez dago hotzetik ondo babestuta.
3. Higiena: Beti egoten da zikin, gorputz higiena eskasa da.
4. Zainketa medikoak: Arazo fisiko, gaixotasun edo beharren arreta medikorik ez dago edo oso atzeratzen da. Errutinazko zainketa medikorik eza.
5. Ikuskatzea: Haurra luze egoten da helduren batek ikuskatu edo gainbegiratu gabe. Etxeko ezbehar ugari gertatzen dira, argi eta garbi haurraren guraso, tutore edo zaintzaileen arduragabekeriaren ondorio direnak.
6. Etxeko baldintza higienikoak eta segurtasunekoak arriskutsuak dira adingabearen osasun eta segurtasunerako.
7. Hezkuntza arloa: Eskolara ez da joaten, ez dago horretarako justifikaziorik eta behin eta berriro gertatzen da.
8. Estimulazio kognitiboa: Ez dago adin horretan, eta dituen eskaera eta beharrei erantzuten dien eta haurrak behar duen estimulazioa.

Arduragabekeria fisiko edo kognitiboa dagoela baieztatzeko, goian adierazitako egoeretako bat edo batzuk gertatu behar dira, behin eta berriro edota era jarraituan.

Larritasun mailak:

1. Arina: Arduragabekeriakzko jokaera ematen da, baina haurrak ez du pairatzen ondorio negatiborik bere garapen fisiko edo kognitiboan, edo bere gizarte harremanetan.
2. Ertaina: Haurrak ez du lesio edo kalte fisikorik jasan guraso, tutore edo zaintzaileen jokaeraren ondorio zuzena denik eta, hortaz, ez du zainketa medikoaren beharrik. Hala ere, gurasoen arduragabekeriakzko jokaera haurraren aurrean errefusa egoerak gertatzearen erantzule zuzena da (eskolan, pareko taldean, e. a.).
3. Handia: Haurrak lesio edo kalte fisikoak jasan ditu zuzen-zuzenean guraso, tutore edo zaintzaileen jokaeraren ondorioz, eta horregatik zainketa medikoa behar izan du. Edo gurasoen arduragabekeriakzko jokaerak eragin du haurrak bere garapenean (intelektual, fisiko, sozial eta abarrean) arreta edo tratamendu berezitua eskatzen duten atzerapen garrantzitsuak edukitzea.

3. TRATU TXAR PSIKIKO EDO EMOZIONALA

“Familiako edozein kide helduk irain, iseka, arbuio, gaitzespen edo abandonatzeko mehatxu modura hitzez egindako eraso iraunkorrak, eta elkarren arteko loturak ezartzeko haurrak egindako saioak etengabe blokeatzea (haurra saihestetik, itxita edo giltzapean uzteraino)”.

Ondokoak dira tratu txar psikiko edo emozionalen barruan dauden jokaera motak:

1. Errefusa. Guraso, tutore edo zaintzaileek haurra errefusatzeko edo arbuiatzeko hitzezko edo bestelako ekintzak egitea da. Horren barruan daude:
 - . Arbuiatzea, makurraraztea, eta tratatzean etsaitasuna edo gaitzespena adierazten duten eta fisikoak ez diren beste trataera batzuk ematea.
 - . Haurra lotsaraztea edota barregarri uztea, ohikoak diren emozioak –maitasuna, mina edo tristura– adierazteagatik.
 - . Beti haur bat hautatzea kritikatzeko eta zigortzeko, etxeko lan gehienak egiteko, edo sari gutxiago emateko.
 - . Jendaurrean beheratzea.

2. Izutzea. Haurra honela mehatxatzea da, berarengan izugarrizko beldurra sorrarazteko: zigor gogor batez, edo zigor zehaztugabe baina maltzurraz; haurra abandonatzeaz edo hiltzeaz. Edo haurra edo haurrak maite dituen pertsonak edo objektuak nabarmen arriskutsuak diren egoeretan jartzea, hala nola:
 - . Haurra aurrez jakin ezin diren edo kaotikoak diren egoeretan jartzea.
 - . Haurra argi eta garbi arriskutsuak diren egoeretan jartzea.
 - . Haurraren irmoegi edo errealistak ez diren itxaropenak jartzea, eta horiek lortu ezean galtzeko, mintzeko edo arriskuan jartzeko mehatxua egitea.
 - . Haurraren aurkako bortizkeriaz mehatxatzea edo gauzatzea.
 - . Haurrak maite dituen pertsonen edo objektuen aurkako bortizkeriaz mehatxatzea edo gauzatzea.
3. Isolamendua. Haurrari beste haur edo heldu batzuekin elkarreragina gauzatzeko eta komunikatzeko aukerak etengabe ukatzea da, etxean bertan edo etxetik kanpo:
 - . Haurra giltzapetzea edo bere ingurunean mugitzeko askatasunari zentzuzkoak ez diren eragozpenak jartzea.
 - . Haurrari zentzuzkoak ez diren eragozpenak edo mugak jartzea, komunitatean beste haur edo heldu batzuekin harremanak izateko.
4. Etxeko bortizkeria, izugarrizkoa edota kronikoa: Guraso, tutore edo zaintzaileen artean, eta haurra aurrean dagoela, etengabe gertatzen da bortizkeria fisikoa edota hitzen bidezkoa.
5. Sobreprotección: Haurrari eragozte bere adinean egokia den autonomia eta partaidetza maila lortzea.

Garrantzitsua

Tratu txar emozionala dagoela baieztatu ahal izateko:

- a) goian azaldutako egoeretako bat gutxienez gertatu behar da, behin eta berriro edo etengabe,
- b) adierazle horiek argi eta garbi antzeman behar dira, eta
- c) kalte emozionala eragiten duten jokaerak larriak izan behar dira; hau da, jokaera horiek etengabekoak izan behar dira, oso gogorak, haurraren emozio egoeran kalte handia sortu behar dute, haurraren garapenean oztopo larriak sortu behar dituzte, eta haurrari berehalako tratamendu espezializatua eman behar zaio.

4. ABANDONO PSICOLOGIKOA EDO EMOZIONALA

“Guraso/tutore edo haurren ardura duten helduek ez erantzutea haurrak hurbiltzeko eta elkarreragina gauzatzeko azaldutako seinale, emozio adierazpen, eta jokaerei, eta heldu horiek elkarreragina eta harremanak izateko ekimenik eza”.

Ondoko jokaerak daude abandonuaren barruan:

1. Aintzat ez hartzea. Guraso, tutore edo zaintzaileek aintzat ez hartzea da haurrak elkarreragina egon dadin egiten dituen saioak eta dituen beharrak, eta haurraren harremanetan inolako emoziorik ez azaltzea (haurrari maitasun, kezka eta estimu adierazpenik ez egitea), hala nola:
 - . Haurraren atzetzea eta inplikaziorik ez egotea, bai ezintasuna daukatelako, bai motibaziorik ez daukatelako.
 - . Elkarreragina sortzea guttiz beharrezkoa denean bakarrik.
 - . Haurrari maitasun, kezka eta estimu adierazpenik ez egitea.

2. Arreta psikologikoa ukatzea: Guraso, tutore edo zaintzaileek haurren emozio edo jokaera arazoren bat tratatzen hasteari uko egitea da, adituak diren profesionalak gomendatutako tratamendu baliabidea erabiltzea daukatenean.
3. Arreta psikologikoan atzerapena egotea: Guraso, tutore edo zaintzaileek ez dute laguntza psikologikorik eskaintzen edo bilatzen haurren emozio edo jokaera aldaketa konpontzeko, profesionalen laguntza beharrezkoa argi dagoen muturreko egoera batean (esate baterako, depresio larria, bere buruaz beste egiten saiatzea).

Garrantzitsua

Tratu txar emozionala dagoela baieztatu ahal izateko:

- a) goian azaldutako egoeretako bat gutxienez gertatu behar da, behin eta berriro edo etengabe,
- b) adierazle horiek argi eta garbi antzeman behar dira, eta
- c) kalte emozionala eragiten duten jokaerak larriak izan behar dira; hau da, jokaera horiek etengabekoak izan behar dira, oso gogorak, haurren emozio egoeran kalte handia sortu behar dute, haurren garapenean oztopo larriak sortu behar dituzte, eta haurrari berehalako tratamendu espezializatua eman behar zaio.

5. SEXU ABUSUA

Hautzaroa babesteko zerbitzuen ikuspegitik, sexu abusua honela definitzen da: "Haur eta helduen arteko edozein sexu harreman edo elkarreragin mota, helduak definizioz duen haurra mende hartzeko botere edo aginteaz baliaturik haurra erabiltzen duenean bere, haurren edo beste pertsona baten sexu estimulaziorako. 18 urtetik beherako pertsonak ere egin dezakete sexu abusua, biktima den haurra baino dezente zaharragoa denean, edo haurra mende hartzen duen botere edo kontrola duenean" ("National Center on Child Abuse and Neglect", 1978, egokitu). Ohi kanpoko salbuespenak alde batera utzita, jokaera horiek sexu abusutzat hartzeko, abusatzailea haur-biktima baino bost urte zaharragoa izan behar da gutxienez, eta biktima baino hamar urte zaharragoa, biktima nerabea denean.

Sexu abusu motak:

1. Familia barruko sexu abusua edo intzestua: Sexu izaerako harremanak dira (ukipen fisiko egonda edo egon gabe), heldu eta haur baten artekoak, odolkidetasun lineala dagoenean (aita, ama, aitona, amona), edo anaia/arreba, osaba/izeba edo ilobak direnean. Barne dago guraso rola era iraunkorrean betetzen ari den heldua (adibidez, guraso adoptiboak, aita edo amaordea, etxean bizi den aitaren edo amaren laguna). Egoera edo jokaera bat intzestua izan dadin, haurren guraso edo legezko arduradunek (a) abusuan era aktiboan parte hartu behar dute, (b) era aktiboan bultzatu behar dute abusua gertatzea edo abusua antolatu behar dute, edota (c) jakin behar dute abusua gertatu dela edo gerta daitekeela eta ez dute neurririk hartu hori saihesteko eta haurra babesteko, betiere hori egiteko gaitasun osoa daukala egiaztatzen bada.
2. Familia kanpoko sexu abusua: Sexu izaerako edozein elkarreragina da, abusua ustez egiten duena adingabearen familiako kidea ez denean.

Sexu jokaera mota:

1. Sexu abusua ukipen fisikorik gabe: Ahozko sedukzio esplizitua haurrari (haurrari eskatzea sexu jardueran parte hartzeko, ukipen fisikorik gabe); helduaren sexu organoak agertzea, sexu atsegin edo kitzikatzea lortzeko (exhibizionismoa); haurra aurrean dagoela, masturbazioa edo koitoa nahita egitea, sexu atsegina lortzeko; haurrari pornografia materiala erakustea edo haurrarekin horri buruz hitz egitea.

2. Sexu abusua ukipen fisikoaz: haurraren zona erogenoak nahita ukitzea; haurra heldua-
ren zona erogenoak ukitzera behartzea, bultzatzea edo hori baimentzea; behatza aluan
edo uzkiean sartzea; objektu bat aluan edo uzkiean sartzea; sexu organoak ahoaz ukitzea;
gizonezkoen sexu organoa aluan edo uzkiean sartzea; aluan, ahoan edota uzkiean zerbait
sartzen saiatzea; haurra behartzea abereekiko sexu harremanetan sartzera.

Larritasun mailak:

1. Arina: Ukipen fisikorik gabeko sexu abusua, adingabearen familiakoa ez den pertsona
batek egina, behin bakarrik gertatu dena, eta haurrak guraso edo legezko arduradunen
babesa duenean.
2. Ertaina: Sexu abusua, ukipen fisikorik gabe, adingabearen familiakoa ez den pertsona
batek eginda, hainbat aldiz gertatu dena, eta haurrak guraso edo legezko arduradunen
babesa duenean.
3. Handia: Intzestua (ukipen fisikoa egonda edo egon gabe). Familia kanpoko sexu abusua,
ukipen fisikoa eginda.

Goian aipatutakoaz gain, abusua diren ekintzak eta ez direnak desberdintzeko, baliagarriak izan daitezke hurrengo irizpideak:

- Gehienetan, abusua gertatzen da botere bereizgarria dagoen egoeran, hau da, alde batek (abusua egiten duenak) bestea (biktima) kontrolatzen du. Boterea helduak haurra-
ren aurrean daukan rolean oinarrituta egon daiteke: guraso, irakasle, monitorea, e. a.;
edo abusua egiten duena fisikoki handiagoa izatean, edo biktimak baino ahalmen fisiko
nahiz psikiko handiagoa izatean.
- Ekintza bat abusutzat har daiteke alde batek (abusua egiten duenak) sexu ekintzaren
esanahia eta ondorioak era sofistikatuagoan ezagutzen dituenen. Oro har, ekintza abu-
sutzat hartzeko, onartuta dago abusatzailea biktima baino bost urte zaharragoa izan
behar dela gutxienez, eta biktima baino hamar urte zaharragoa, biktima nerabea denean.
- Atsegin bereizgarria: Sexu harremanaren helburua ez da izaten elkarri atsegina ematea;
helburua abusatzaileak sexu atsegina lortzea izaten da. Batzuetan, abusua egiten dute-
nek lortzen dute biktimari sinistaraztea haren atseginerako egiten dutela, eta horrela bik-
timari egozten diote abusuaren erantzukizuna.

6. GALBIDERATZEA

a) Sexu esplotazioa

“Helduak haurra erabiltzea prostituzioan edo pornografia egiteko, onura ekonomiko edo antzekoa edo beste era batekoa lortu ahal izateko”.

Pornografia adingabearen familiako kideek, ezagunek edo profesionalek egina izan daiteke. Norberaren erabilerarako, komertzializatzeko, talde txikien artean saltzeko, edo eskala handian saltzeko. Haur pornografia haur bakar batekin egin daiteke, jarrera gordinak edo probokatzaileak dituelarik, edo hainbat haur, sexu jarduera elkarrekin egiten ari direlarik, edo haurrak eta helduak, sexu jarduerak egiten ari direla.

Haur prostituzioa guraso edo legezko arduradunek bultzatzea, familiakoek, haurraren ezagunek, edo prostituzioan bitartekari lanak egiten dituzten pertsonak. Era berean, gerta daiteke haurrek, etxetik ihes egin ondoren edo abusuak pairatu ondoren, prostituzioan nahita hastea, helduek zuzenean bultzatu gabe. Prostituzioan ari diren haur txikiak daudenean, guraso edo legezko arduradunak izaten dira, oro har, abusua antolatzen dutenak.

b) Delinkuentziara bultzatzea

“Guraso, tutore edo zaintzaileek bultzatzen eta indartzen dituzte antisozialak edo okerrak diren jokaerak (berezi oldarkortasuna, sexualitate eta drogen alorretan), eta horrek eragozten du adingabearen garapen arrunta eta gizarteratzea. Era berean, barne daude beste egoera batzuk, hala nola, guraso, tutore edo zaintzaileek haurra erabiltzea delituzko ekintzak burutzeko (esate baterako, droga garraiatzeko, ebasketak egiteko).”

Larritasun mailak:

1. Arina: Guraso edo legezko arduradunek haurraren jokaera antisozial goiztiarrak indartzten edota onartzen dituzte.
2. Moderado: Guraso edo legezko arduradunek haurra bultzatzen dute bere buruari lesioak egitera, eta antisozialak edo delituzkoak diren ekintzak egitera.
3. Severo: Guraso edo legezko arduradunek haurraren sortzen eta indartzen duten jokaera ereduak gizarte disfuntzio egonkorra edo iraunkorra pairatzeko arriskuan jartzen du haurra.

7. GALBIDERATZEA GURASO EREDUAK ASOZIALAK DIRELAKO

“Haurra bizi den etxean bere garapen arrunterako desegokia den bitzta eredu dago, jokaerazko jarraibide asozialak edo nork bere buruari kalte egitera bultzatzen dutenak dituelako”..

Honako jokaerak aurki daitezke:

1. Delituzko jokaerak, gainerakoei kalte egiten dietenak, batik bat.
2. Droga trafikoa.
3. Drogak kontsumitzea.
4. Nork bere buruari kaltea egitea.

Haurrarentzat desegokia den bizimodu eredu dagoela egiaztatzeko, hurrengo bete behar da:

- a) goian adierazitako egoeretakoa bat edo batzuk gertatu behar dira, behin eta berriro edota era jarraituan,
- b) argi eta garbi antzeman behar da,
- c) haurrak argi eta garbi antzeman behar du eredu desegokia eguneroko harremanetan,
- d) haurrak ereduaren aurreko ahultasun baldintza nahikoak eduki behar ditu: nahikoa den gaitasun kognitiboa eta garatzen ari den arrazoiketa morala.

Larritasun mailak:

1. Arina: Etxean, haurrarentzat asoziala den eredu egotea indarrrik gabe uzten du egokia den beste eredu bat egoteak.
2. Ertaina: Eredu asoziala haurraz nagusiki arduratzen dena da, eta etxean ez dago bestelako eredu egokirik. Hala ere, ez dirudi haurra jarraibide asozialak edo nork bere buruari kalte egitera bultzatzen dutenak imitatzeak eraginda dagoenik.
3. Handia: Eredu asoziala haurraren zaintzaile nagusia da, eta etxean ez dago bestelako eredu egokirik. Haurra arrazoiketa morala imitatzeko edota ikasteko orduan oso eragin dago, ereduak jarraibide asozialak edo nork bere buruari kalte egitera bultzatzen dutenak dituelako.

8. LAN ESPLOTAZIOA

“Guraso edo legezko arduradunek haurra derrigortzen dute etengabe lan (etxekoa izan edo ez) egitera, eta lan horiek (a) ohikoak direnetatik kanpo daude, (b) helduek egin beharko lituzkete, (c) haurraren gizarte eta eskola jardueretarako eta beharretarako eragozpenak dira argi eta garbi, eta (d) guraso edo legezko arduradunentzat, edo familia egiturarentzat, onura ekonomiko edo antzekoa lortzeko helburuz agintzen zaizkio adingabeari”.

Larritasun mailak:

1. Arina: Haurra hamahiru urtetik gorakoa da, eta egoera denboraldi batzuetan bakarrik gertatzen da (produktu naturalak biltzen direnean, adibidez); aldi horietan, haurrari erabat

eragozten zaio bere eboluzioaren arabera beharrezko dituen gizarte eta eskola jardueretan aritzea. Egoera horren ondorio negatiboak (atzerapena eskolan, adibidez) ez dira garrantzitsuak edo erraz berreskura daitezke.

2. **Ertaina:** Egoera aldi baterako gertatzen da, eta haurraren eboluzio aldian beharrezko dituen gizarte eta eskola jardueretan aritzea eragozten dio.
3. **Handia:** Egoera iraunkorra da, eta haurrari guztiz edo argi eta garbi eragozten dio bere eboluzio aldian beharrezko dituen gizarte eta eskola jardueretan aritzea.

9. JAIO AURREKO TRATU TXARRA

“Haurdunaldian drogak edo alkohola hartu izanagatik, haurra ohikoa ez den hazkuntzaz, patroï neurologiko anomaloiez, substantzia horiekiko menpekotasun fisikoaz, edo amak hartu dituen droga edo alkoholak eragindako bestelako gorabeherak dituela jaiotzea”.

10. HAZKUNTZAN ORGANIKOA EZ DEN ATZERAPENA

“Pisua normaltasunez hartzen ez duten haurrak adierazteko diagnosi medikoa, gaixotasun organikorik ez dagoenean”.

Hurrengo alderdiak kontuan hartuta egiten da diagnosis:

- Pisua, garaiera eta buru-hezurraren diametroa 3. perzentiletik behera egotea, hazkuntza normatiboa jasotzen duten taulen arabera.
- Erietxean dagoen bitartean pisua nabarmenki irabaztea.
- Haurrari ondo zaintzen zaion giroan bilakaeraren atzerapena desagertzea.

11. MUNCHAÜSEN SINDROMEAREN AHALORDEZ

“Guraso edo tutoreek haurra behin eta berriz ospitaleratu eta mediko azterketak egitera behartzen dute, gezurrezkoak diren edo guraso edo tutoreak berak propio eragindako (esaterako, haurrari zenbait substantzia inokulatuz) sintoma fisiko patologikoak dituela esanez”.

12. GURASOEN EZINTASUNA HAUR EDO NERABEAREN JOKAERA KONTROLATZEKO

Azken kasu mota berez haurren tratu txarra ez bada ere, egokia da azaltzea, askotan iristen direlako haurtzaro zerbitzuetara. Egoera horietan, “guraso edo legezko arduradunek adierazten dute, edo argi eta garbi frogatzen dute, euren seme-alaben jokaera moldatzeko moduan kontrolatzeko eta bideratzeko ezintasun erabatekoa daukatela”. Askotan, guraso edo legezko arduradunak berak dira haurtzaro zerbitzuetan zuzenean laguntza eskatzen dutenak, zenbaitetan seme-alaba familia bizilekutik irten dadin eta babes zentro batean sar dadin eskatuz.



III. Eranskina

Ikerketa

Arriskugarritasuna ebaluatzeko irizpideak haurra babesik gabeko egoeran dagoenean

M.I. Arruabarrenak, J. De Paúlek eta B. Torresek landua (1993)

SASI Proiektua, Adingabekoaren Babes Juridikorako Zuzendaritza, Gizarte Gaietako Ministerioa

ARRISKURIK EZ / ARRISKU BAXUA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU HANDIA
1. TRATU TXAR EDO ABANDONUAREN GOGORTASUNA ETA MAIZTASUNA		
<ul style="list-style-type: none"> - Haurrak ez du tratu txar edo abandonurik pairatu. - Bakandutako gertaera izan da. - Tratu txar edo abandonuak ez du haurraren kalte edo lesio fisikorik eragin, edo ez dago hori era nabarrian antzematerik. <u>Edo</u> adingabeak kalte edo lesio oso txikia jasan du, sendagilearen arreta edo tratamendua behar ez duena. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haurrari, lehenago, egokia ez den zigor edo diziplina ezarri zaio, edo gehienetan helduren batek gainbegiratu gabe egoten dela susmatzen da. - Haurrak neurritzkoa den kalte edo lesioa pairatu du, edo azalpenik ez duen lesioa dauka, sendagilearen diagnosi edo tratamenduren bat behar duena. Orbaintze edo sendatze fase ezberdinetan dauden lesioak ditu. <u>Edo</u> zainzaileak haurraren gutxieneko beharrak -medikoak, elikadurakoak, babes edo emozioakoak- betetzeko gauza ez dela susmatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gertaera edo egoera, haurra zaintzen dutenen ekintza edo ez-egitekoek eragindako kalteen eredu kronikoaren barruan, azkena da. <u>Edo</u> adingabeari, lehenago ere eta era jarraituan, zigor edo diziplina gogorrek ezarri zaizkio, edo gainbegiratu gabe egon da denbora tarte luzeegietan. - Haurra berehala ospitaleratu behar da, edo tratamendu medikoa behar du. Beste anai-arrebaren batek jasandako tratu txarrak haren heriotza eragin du, edo disfunzio iraunkorra sortu dio. Hainbat sendatze edo orbaintze faseetan dauden lesio larriak. <u>Edo</u> jakin da, zainzaileak ez dagoela prest adingabeak dituen gutxieneko beharrei erantzuteko -medikoak, elikadurakoak, babes edo emozio beharrak-. - Edozein motatako sexu abusua gertatu da.
2. GERTAERAREN HURBILTASUNA DENBORAN		
<ul style="list-style-type: none"> - Haurrak ez du tratu txar edo abandonurik pairatu. - Haurrak pairatutako gertaera edo egoerarik hurbilena duela gutxienez urtebete gertatu zen. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haurrak pairatutako gertaera edo egoerarik hurbilena duela sei aste baino gehiago gertatu zen, eta azken urtearen barruan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haurrak pairatutako gertaera edo egoerarik hurbilena, ezaguna dena, duela sei aste baino gutxiago gertatu zen.
3. LESIORIK DAGOEN EDO EZ, ETA NON DAGOEN		
<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago lesio edo kalterik. - Hezur zonetan: belautan, ukondo zango bizkarrean. Ipurmasailletan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gorputz enborrean, oinetan, izterretan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Aurpegi, buru, sudurrean; barruko lesioak, uzkiek, sexu organoetan.

ARRISKURIK EZ / ARRISKU BAXUA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU HANDIA
<p>4. ALDEZ AURREKO TRATU TXAR EDO ABANDONUARI BURUZKO TXOSTEN HISTORIA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dago aurreko txostenik, Haurtzaro Zerbitzuan edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan, tratu txar edo abandonuari buruz; edo familia gertutik ezagutzen duten pertsonak ez dute inoiz ikusi edo ez dute gogoratzen familian ezaugarri horietako gertakizunik gertatu denik. - Azken urtean egindako txostena dago, familia horri buruzkoa, Haurtzaro Zerbitzuan edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan; baina, jakinarazitako tratu txar edo abandonu egoera gertatu ez zela egiaztatzen zen ("Oinarririk gabeko" txostena). 	<p>ARRISKU ERTAINA</p> <p>"Oinarririk gabeko" txosten bat baino gehiago dago familiari buruz, azken urtean Haurtzaro Zerbitzuan edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan jasotakoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Azken urtean egindako "oinarririk gabeko" txosten bat dago, haurraren anai-arrebaren bat hil zela edo kalte handia jasan zuela adierazten duena. - Ikertu gabeko txostenak daude, familia aurkitu ezin delako. - Adingabeak, sei hilabetetan, ezbeharrek sortutako hiru lesio baino gehiago jasan dituela jakin da; horrek iradokitzen du ez dela aztertu. - Adingabeak azalpenik ez duten ezbeharrak edo lesioak izan ditu, edo horiei buruzko informaziorik ez dago. - Familian larritasun ertaina edo larritasun ahula duen tratu txar edo abandonua gertatu dela egiaztatzen duten aldez aurreko txostenak. 	<p>ARRISKU HANDIA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Familian larritasun handikoa den tratu txar edo abandonua gertatu dela egiaztatzen duten aldez aurreko txostenak. - Haurra, familia edo ustez abusuak egiten dituen aipatzen dituzten tratu txar edo abandonuari buruzko txosten ugari.
<p>5. ABUSATZAILEA HAURRARENGANA IRISTEKO ERRAZTASUNA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Abusuak egiten dituen ezin da haurraren gaitasuna iritsi. Edo - Haurra etxeik kanpo dago, eta abusatzaileak bisita egiteko eskubide mugatua dauka. Bisitaldian adingabeak babes ditzakeen pertsona arduratsu batek gainbegiratu daude. - Haurra familiaren etxean dago, edo familia hedatuarekin, eta abusatzailea haurraren gaitasuna iritsi badaiteke ere, ez da ezinezkoa. Edo adingabea babes dezakeen pertsona arduratsu batek ikuskatzen du etengabe. 	<p>ARRISKU ERTAINA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haurra familiaren etxean dago, edo familia hedatuarekin, eta abusatzailea haurraren gaitasuna iritsi badaiteke ere, ez da ezinezkoa. Edo adingabea etxeko beste pertsona batek gainbegiratzen du era zorrotzean, baina pertsona horrek adingabea abusatzailearen aurrean babesteko gaitasuna zalantzarikoa da, aurrekusi ezin dena, edo mugatua. 	<p>ARRISKU HANDIA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haurra familiaren etxean dago, edo familia hedatuarekin, eta abusatzaileak haurraren gaitasuna iristeko askatasun osoa dauka. Edo abusatzaileak mugarik gabeko bisitaldiak egiteko eskubidea dauka, edota inork gainbegiratu gabe egiten ditu bisitak.. - Haurra beste heldu batzuen zaintzapean dago etxean (senideak); baina zalantzarikoa da horiek gauza izango diren abusatzaileari haurraren gaitasuna iritea eragozteko (batez ere familiak Haurtzaro Zerbitzuan esku-hartzea eragin zuen gertaera edo egoera ukatzen duenean).

ARRISKURIK EZ / ARRISKU BAXUA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU HANDIA
6. HAURRAREN ADINA ETA BESTE BATZUEK HAURRA KOMUNITATEAN IKUSTEKO AUKERA		
<ul style="list-style-type: none"> - Haurra familiakoak ez diren pertsonen ikus dezakete (irakasle, auzokoeak, e. a.), haurraren adina kontuan hartuta espero daitekeenez. Baimena dauka bere adinari egokituutako jardueretan etxetik kanpo parte hartzeko. - Adingabea 12 urtekoa da edo 12 urtez gorakoa, <u>eta</u> gehienetan, irakasleek eta beste batzuek ikusten dute. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haurra 5 eta 12 urte bitartekoa da, <u>eta</u> - Etxetik kanpo ikusten duten pertsona bakarrak eskolako langileak dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haurra bost urteik beherakoa da (hamabi hilabetetik beherako haurrak ahultasun edo arrisku bereziki handiko haurrak dira), <u>eta</u> - Ez da eskola, haurtzaindegi edo familiakoak ez diren pertsonen ikus dezaketen beste leku batzuetara joaten.
7. HAURRAK BERE BURUA ZAINTEZKO DUEN GAITASUNA		
<ul style="list-style-type: none"> - Haurra 12 eta 17 urte bitartekoa da, eta bere burua zaintzeko eta babesteko gauza da, helduen laguntza eskasa izanda, edo laguntzarik gabe. Ez dauka eragozpen fisikorik, ezta mentalik ere. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haurra 5 eta 11 urte bitartekoa da. <u>Edo</u> - Zaharragoa da, baina helduen laguntza edo gainbegiraketa behar du aldiro edo maiz bere burua zaintzeko eta babesteko, eragozpen fisiko edo mental arina edo garapenean atzerapena daukalako. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haurra bost urteik beherakoa da. <u>Edo</u> - Zaharragoa da, baina helduen laguntza edo gainbegiraketa behar du etengabe bere burua zaintzeko eta babesteko. Eragozpen fisiko edo mental larria edo kronikoa dauka, edo garapenean atzerapen handia.
8. HAURRAREN JOKAERAREN EZAUGARRIAK		
<ul style="list-style-type: none"> - Haurraren jokaera egokia da bere adina kontuan hartuta. Ez dauka hiperaktibitate historia ezagunik. Ez du droga edo alkoholik hartzen. Erregularitasunez joaten da ikastetxera. Ez dauka ihes edo delituzko jokaeraren historiarik. Ume txikia baldin bada, jateko eta lo egiteko ohitura egokiak ditu. - Haurraren jokaera, oro har, egokia da bere adina kontuan hartuta. Hiperaktibitate arina izaten du. Droga edo alkohola hartu du behin. Puntualtasun arazo arinak edo inoiz eskolara ez joatea gertatu da. Ihes egiteko mehatxuak, gauzatu ez direnak. Izaera arineko delituzko jokaerari buruzko txosten bat dago. - Ezagutzen diren jokaera arazoei behar bezala heldu diete guraso edo tutoreek, edota profesional aditu bat tratatzen ari da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haurraren jokaera disruptiboa eta kontrolaezina da. Besteekiko elkarrekintzetan eragin negatiboa duten hiperaktibitate eta haur jokaeraren jarraitibideak azaltzen ditu, maiztasunez. Eskolan, lagunekin edo etxean arbuigarrria den jokaera ereduak izaten du. Noizean behin drogak edota alkohola hartzen ditu, eta horrek erabakitze gaitasuna mugatzen dio. Aldiro, ihes egiten du edo berandu iristen da eskolara. Askotan, ihes egiten du denbora laburrean, baina bere borondatez itzultzen da. Ume txikia baldin bada, exijentziak eta urduritasunez portatzen da, arazoak ditu lo edo janariarekin, eta horrek zaintzaileei estres handiagoa sortzen die. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haurra oso bortitza da, eta jokaera disruptibo edo arriskutsua dauka. Hiperaktibitate larria edo kronikoa dauka, horrek bere roletan funtzionatzeko gaitasunean eragin negatiboa sortzen duelarik. Bere buruaz beste egiten saiatu da, edo gaur egun arazonik gabe hitz egiten du horretaz. Bere buruari kalte egiteko joera eta jokaerak azaltzen ditu. Droga edo alkoholarekin menpekotasuna dauka edo maiz hartzen ditu. Ez da eskolara joaten (eta joan behar du). Oso luzeak diren ihes kronikoak, eta inoiz ez da bere borondatez itzultzen. Lehenagoko edo egungo txostenak, delituzko jokaera gogor edo arriskutsuak dituela adierazten dutenak. Ume txikia baldin bada, koliko larria dauka, negaraldi luzeak, jateko eta lo egiteko ohitura irregularrak.

ARRISKURIK EZ / ARRISKU BAXUA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU HANDIA
<p>9. HAURRAREN OSASUN MENTALA ETA ESTATUS KOGNITIBOA</p>		
<ul style="list-style-type: none"> - Haurrak bere rolak normaltasunez mantentzen ditu familiaren barruan, eskolan eta lagunen artean; estres maila arruntak ditu, adimen atzerapena edo gaixotasun mentalaren sintomak agertzen dituen edo ez alde batera utzita. - Emozio alorrean osasuntsua da. Ez dago gaitz emozionalaren diagnostikorik edo ez dirudi behar denik. <u>Edo</u> bere egoerak estresa sortu du, baina zuzendu egin da eta seguruen arazoak ez du okerrera joko, baita tratamendurik jasotzen ez badu ere. - Atzerapen edo gaitz mentalaren sintoma ertainak ditu, beregan eta familian estresa sortzen ari direnak, behar berezi ugari dituelako. - Gaitz emozionalaren sintoma ikusgarriak ditu, diagnostirik ez egon arren. Egoerak ez du oraindik arazo handirik sortu, baina, seguruen, okerrera joko du, tratamendurik jarritzen ez bazaio. 	<ul style="list-style-type: none"> - Emoziozko egoera edo ikasteko berriazko ezgaitasuna dauka, familian, lagunen artean eta eskolan normaltasunez bete behar dituen rolak betetzea oztopatzen dutenak, baina ahaleginak eginda, rolak betetzen jarrai dezake. - Gaitz emozionalaren sintoma ikusgarriak ditu, diagnostirik ez egon arren, bete behar dituen rolak betetzearan eragin negatiboak sortzen dituztenak. Arazoak, seguruen, okerrera joko du, tratamendurik jarritzen ez bazaio. 	<ul style="list-style-type: none"> - Garapenean okerrera jo du, atzerapena dela-eta, edo diagnostia duen ikasteko ezintasuna dela-eta. Estu gainbegiratu behar zato, bere buruari edo beste batzuei kalte egitea saihesteko. Arazoa oztopoa da bere jolas jardueretarako edo familiarekin egiten dituen jardueretarako. - Diagnostia duen gaitz emozionala dauka.
<p>10. ZAINZAILAIREN GAITASUN FISIKO, ADIMENEKOAK ETA EMOZIONALAK</p>		
<ul style="list-style-type: none"> - Zaindariaren osasun fisikoak, adimeneko gaitasunek eta osasun mentalak ez daukate haurrari arreta eta zainketa eskaintzeko gaitasuna mugatzen duen ezintasunik (beste ezintasun batzuk egon daitezke, gaitasun horretan eragiten ez dutenak). Zaintzaileak trebetasuna daukala dirudi, eta buru ahalmenak osorik ditu. Ez du laguntzaren beharrik bere burua eta adingabea zaintzeko. - Gaixotasun edo eragozpenen bat dauka, haurra behar bezala zaintzeko gaitasunean eragina sor dezakeena, bere burua zaintzeko gauza baldin bada ere. Ezintasun fisiko, mental edo adimeneko txiki bat dauka, batzuetan adingabea zaintzeko orduan eragina daukana. Laguntza zerbitzuak izanda (haurtzaindegia, etxeko laguntza), gauza izan daiteke haurra behar bezala zaintzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak gaixotasun edo nahasmendu bat dauka, haurrari behar bezalako arreta eskaintzeko gaitasuna era nabarmenean eragozten edo mugatzen duena. Tratamendu espezialduta emanda ere, ez dirudi etorkizun hurbilean bere gaixotasunak hobera joko duenik. Laguntzarako zerbitzu trinkoak izanda (haurtzaindegia, etxeko laguntza), haurra zaintzeko ardurara mantentzeko. <u>Edo</u> Txikiak diren arazo fisiko edo mentalak ditu, okerrera jotzen ari direnak, eta ez da onartu laguntza zerbitzurik edo tratamendurik. 	<ul style="list-style-type: none"> - Haurrentzat guztiz arriskutsua den gaixotasun edo nahasmendu larria edo kronikoa diagnostikatu zaio zainzaileari, eta eragozpen horrek erabat mugatzen du adingabea zaintzeko zainzailearen gaitasuna (baita laguntza osagarria izanda ere); bestalde, ez da espero etorkizun hurbilean hobera jotzerik. - Zaintzailea bere behar edo arazoei begira dago (arazo fisiko, mental edo emoziozkoak), eta ezin da espero bere burua ez den beste pertsona bat zaintzeko gauza izatea. - Hurrengo baldintzetako bat edo gehiago diagnostikatu zaizkio: errealitatearen kontzeptu eskasa edo psikosia dauka; bere buruaz beste egiten saiatu izan da; eldarnio eta haluzinazioak; adimenean atzerapen ertaina.

ARRISKURIK EZ / ARRISKU BAXUA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU HANDIA
<p>11. ZAINZAILAAREN ADINARI LOTUTAKO GAITASUNAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zaintzailea heldua da (25 urtetik gorakoa), arduratsua eta gaitasun handikoa. - Zaintzailea heldua da (25 urtetik gorakoa), eta haurra zaintzeko hainbat eragozpen ditu, baina kanpoko laguntza positiboa dauka, edo arduratsua, gaitasun handikoa eta bera babesten duen beste heldu batekin bizi da. - Zaintzaileak 20 eta 25 urte bitartekoa da. Bakarrik bizi da, edo bere adinekoa den lagun batekin, eta kanpoan era positiboan laguntzen duten helduak ditu. Edo arduratsua, gaitasun handikoa eta bera babesten duen beste heldu batekin bizi da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzailea 20 urtetik beherakoa da. Bakarrik bizi da, edo bere adinekoa den lagun batekin, eta kanpoan era positiboan laguntzen duten helduak ditu. - Zaintzailea 25 urtetik gorakoa da. Bakarrik bizi da, beste heldu batzuekin edo bere familia hedatuarekin, baina ez dauka laguntza positiborik. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzailea 25 urtetik beherakoa da. Bakarrik bizi da, beste heldu batzuekin edo bere familia hedatuarekin, baina ez dauka laguntza positiborik. - Edo familia hedatuarekin bizi da, baina inor ez du argi eta garbi haurraren ardura hartzen.
<p>12. ZAINZAILAEK GURASO EGINKIZUNA BETETZEKO DITUEN GAITASUNAK ETA HAURRARENGANAKO ITXAROPENAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak guraso eginkizuna betetzeko gaitasun egokiak eta haurraren hazkuntza eta garapen prozesuari buruzko ezagupen zuzenak dituela adierazten du. - Haurraren gaitasunen aurrean, eta haurraren bilakaera aldiari ohikoak diren jokoaren aurrean, itxaropen egokiak ditu. - Haurrak dituen behar emozionalak, ikasteko eta estimulatu izateko beharrak ezagutzen ditu eta bete egiten ditu. - Haurrari behar bezala irakasten dizkio gizarte arauak. - Adingabearen beharrak lehenetasuna daukate, bere beharren aurretik.. - Zaintzaileak haur garapenari buruzko gutxieneko ezagupenak edo ezagupen onargarriak ditu; baina, batzuetan, haurraren ahalmena gainditzen duten eskaerak egiten dizkio eta haurraren seinaleak gaizki interpretatzen ditu; hala ere, ez du inoiz nahita baztertzen haurraren beharrak eta gaitasunak. - Haurraren eskaerak betetzeko zailtasunak ditu, bereziki laguntza emozional eta ikasteko egoera berriak eskaintzeari dagokionez. Hala ere, adingabeak badauzka etxean bere adinean egokiak diren materialak (jostailuak, liburuak, e. a.). 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak ezagupen eskasak ditu haurraren adinean egokiak diren jokoarekin buruz. Sarritan, itxaropen irrealak ditu haurrari dagokionez, eta haurrak bete ezin dituen eskaerak egiten ditu. - Zailtasun handiak ditu haurrarentzat emozioen estimulazio, ikaskuntza eta laguntza zein garrantzitsua den jakiteko eta hori era aktiboan bultzatzeko. Batzuetan, axolagabeki jokatzeko du, haurraren emozio garapen eta hazkuntzaren aurrean. Adingabeak ez dauka etxean bere adinean egokita den materialik (liburuak, jostailuak, e. a.). 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak ez dauka haurrak gutxieneko babesa izango duela bermatzen duten guraso eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoa den gaitasunik ezta haur hazkuntza eta bilakaera-garapenari buruzko ezagupenik ere. Adin jakin batean egokiak diren jokoerak era eskasean ulertzen ditu, edo uko egiten dio bere irizpideak aldatzeko edozein saiori. Haurrari, gehienetan, errealistak ez diren eskakizunak egiten dizkio. - Adingabeari jartzen dizkion arauak zorrotzegiak dira, edo ez dira zentzuzkoak, edo arau gutxi errespetarazien ditu eta oso gutxitan. - Haurrak guraso alorreko beharrak betetzea espero du. - Ez ditu onartzen haurrak dituen emozio, ikasteko eta estimulatu izateko beharrak, edo ez ditu ezagutzen. Etxean ez dago adingabearentzat material egokirik (jostailuak, liburuak, e. a.). Etxean ez da haurraren solasaldirik egiten aspalditik, eta era berean ez da familia jarduerarik edo jolasik egiten; ez dio haurrari maitasun adierazpenik egiten edo oso gutxitan.

ARRISKURIK EZ / ARRISKU BAXUA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU HANDIA
13. HAURRA ZIGORTZEKO ETA DIZIPLINA EZARTZEKO METODOAK		
<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak diziplina era egokian erabiltzen du. Ez zaio haurrari zigor fisikorik ezartzen, edo ipurdikoren bat ematen zaio, baina ez haurra behar ez bezala portatzen denean emandako lehenengo erantzun gisa. Gaitzespen adierazpena ahoz egiten da, era konstruktiboan. - Zaintzaileak, askotan, haurra jozen du, haurraren jokaera desegokiak gertatzen direnean, eta nagusikeriaz hitz egiten dio, nahiz eta areriotasunik ez azaldu. - Uste du haurrari diziplina ezartzea berari bakarrik dagokiola. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zigor fisikoa izaten da zaintzaileak duen lehenengo erreakzioa, haurraren jokaera desegokiaren aurrean, eta diziplina ezartzeko metodo nagusia da, baina ez dauka haurrari kalte egiteko asmorik. Oso gutxitan erabiltzen du egokia den diziplina; gehiegitan erabiltzen du indarkeria. - Zaintzaileak garrasi egiteko eta haurra mehatxatzeko joera dauka, haurraren jokaera zuzendu gabe edo haurra bideratu gabe. - Haurra barrengarri utz dezake, edo hari buruzko adierazpen negatiboak egin ditzake. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak uste du indarra boterearen erabilera egokia dela. Gorputz zigorra da diziplina ezartzeko erabiltzen den lehenengo metodoa eta erabiliena da. Haurra zigortzen ditu garrantzitsuak ez diren edo ezustean gertatu diren jokaeren aurrean, eta lesioak eragin dizkio, edo eragitea gerta daiteke. - Haurraren gaitzespena gorrotoa adierazten du, areriotasuna adierazten dio ahoz, ezin jakin daiteke aurretik zer egingo duen, irrazionala da.
14. DROGAK EDOTA ALKOHOL GEHIEGI HARTzea		
<ul style="list-style-type: none"> - Lehenago ez du droga edo alkohol menpekotasunik eduki edo ez du hartu; edo, halakorik gertatu bazen, arazoa tratamendu programa egin ondoren konponduta dagoela egiaztatuta dago. - Garai batean droga/alkohol gehiegi hartzeak edo egun era mugatuan hartzeak ez du zaintzailearen gaitasunik mugaizten, eta ez da arazorik haurra behar bezala hazteko. - Iragan hurbilean droga/alkohol gehiegi hartzea arazoa izan zen haurra zaintzeko orduan. Tratamenduak kontrolatu egin du kontsumoa, haurraren zainketa bermatzeko moduan, baina zaindaria berriro erori izan da. - Zaintzaileak drogak hartzen ditu noizean behin, baina horrek ez du oraindik eragin txarrik sortu bere guraso eginkizunetan. Onartzen ditu droga hartzeak haurrarentzat dituen arriskuak, eta errehabilitazio edo tratamendu prozesuan sartuta dago. - Droga edo alkoholaren erabilera desegokia dago, baina hori ez da arriskurik haurrarentzat. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egiaztatu egin da zaintzaileak droga edo alkohol gehiegi hartzen duela edo menpekotasuna daukala; baina hori ez da arriskutsua haurrarentzat: (a) zaintzaileak drogak hartzeagatik batzuetan haurra zaintzeko gauza ez izan arren, gai da aldi horietan laguntzaren bat adosteko; (b) haurraren beharrek lagunek edota familiakoek betetzen dituzte gehienetan, zaintzailea ezin delako haurraz arduratu. - Menpekotasun fisiko edo psikologikoa egon badaiteke ere, kontsumoa gora doa pixkanaka, eta zaintzaileak haurrari arreia eskaintzen zatola ziurtatzeko gaitasuna urrituz doa. - Zaintzaileak onartzen du alkohol edota droga gehiegi hartzen duela, eta tratamendua hasteko errezeloak ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak ezintasun kronikoa dauka haurra zaintzeko, droga edota alkohol gehiegi hartzen duelako. Bere bizitzaren gunea da kontsumo hori, ezin du kontrolatu eta bere beharrek haurraren beharren gainetik jartzen ditu. Zaintzailearen egoerak arriskuan jartzen du familiaren egoera ekonomikoa, eta eragina dauka haurraren oinarriko beharrei erantzuteko gaitasunean. Zaintzaileak uko egiten dio tratamenduari, edo etengabe boikotatu ditu hasitako errehabilitazio programak. - Amak drogak hartu zituen haurdunaldian, eta haurra abstinenzia sindromea eta horri atxikitako sintomak zituela jaso zen.

ARRISKURIK EZ / ARRISKU BAXUA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU HANDIA
15. JOKAERA BORTITZA, ANTISOZIALA EDO DELITUZKOAREN HISTORIA		
<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak ez dauka jarduera antisozial, bortitz edo kriminalen historiarik. Familian ez dago bortitzkeriaren historiarik. - Zaintzaileak goiko ezaugarriak dituen historia dauka; baina, gaur egun ez da arriskutsua haurarentzat; hira eta frustrazioa azaltzeko metodo onargarriak erabiltzen ikasi duelako. - Zaintzaileak duen iraganeko historian haurraren eraginik sortu ez duten delitu ez bortitzak agertzen dira. Legezko eskakizunak behar bezala bete ditu. - Bere historian haurren kontrako erasoak agertzen dira; baina, tratamendua egin du, eta profesionalen arabera positiboak izan dira emaitzak. Ez dago frogatuta, tratamenduaren ondoren, bortitzkeria edo babesik eza agertutako egoerarik bultzatu duenik. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gaur egun, zaintzaileak delitu jokaera izaten dituela susmatzen da, eta jokaera horiek haurraren gutxieneko beharrak betetzeko bere gaitasuna mugatzen dutela. - Onartzen du adingabeekin abusuzko jokaerak edo jokaera axolagabeak izan dituela; baina, ziurtatzen du arazo hori konpondu duela, inongo tratamendutan parte hartu duenik ezagutzen ez bada ere. Ez dago frogatuta, ondoren bortitzkeria edo babesi eza agertutako egoerarik sortu duenik, hori familiarik kanpoko informazioaz egiaztatzerik ez egon arren. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak epailetza espedienteren bat dauka, beste pertsonen aurkako indarra edo bortitzkeria erabiltzeagatik (heldu nahiz adingabeen aurka), edo sexu abusuegatik. Lehenagoko zigorrak daude, pertsonak iraintzeagatik. - Zaintzaileak duen delitu jokaera edo antisoziala oztopo handia da haurraren gutxieneko oinarritzko beharrak betetzeko eta haurra gainbegiratzeko gaitasunerako. - Ezkontideaz abusatu duela dioen historia ezaguna dauka, berak onartzen ez duena.
16. ZAINZAILIAK HAURTZAROAN TRATU TXAR EDO ABANDONUA PAIRATU IZANA		
<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak ez du haurtzaroan tratu txar edo abandonurik pairatu, eta guraso ereduak positiboak izan dira. <u>Edo</u> - Tratu txar edo abandonua pairatu zuen, baina bere guraso eginkizuna era positiboan garatzen ikasi du. - Zaintzaileak, txikitan, egoera bortitzak edo tratu txar edo abandonua pairatu zituen; baina kontrolatzeko gaitasuna duela adierazten du, eta saiatzeko frustrazioa haurraren eza proiektatzen. Era irekian hitz egiten du bere esperientziari buruz, eta arazoa gainditu duela frogatzen du, adingabea zaintzeko era egokiaren bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak, txikitan, egoera bortitzak edo tratu txar edo abandonua pairatu zituen. Ez du bere haurtzaroaz hitz egin nahi, eta ez dago horri buruzko daturik eman dezakeen beste ituririk. Kontrolatzeko daukan gaitasun zailtasunak da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak, haurtzaroan, tratu txarrik, zigor bortitzak edota axolagabetasuna pairatu ditu. Ez du helduen eredu positiborik izan; gurasoenganako aurkakotasuna adierazten du argi eta garbi, eta txikitan maitatua sentitu ez zela esaten du. Bere burua kontrolatzeko gaitasuna ahula da. - Haurtzaroan intzestua jasan zuen; ez du horretaz hitz egin nahi, edo ez du horren ondorio negatiborik gainditu.

ARRISKURIK EZ / ARRISKU BAXUA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU HANDIA
17. ZAINZAILAIREN ETA HAURRAREN ARTEKO ELKARRERAGINA		
<ul style="list-style-type: none"> - Elkarreraginak atxikimendu, maitasun eta onarpen egokiak adierazten ditu. Zaintzailearen aldetik haurraren maitasun lotura positiboa da; ondo hitz egiten du haurrari buruz ia beti; maiz eta berez adierazten du haurraren onarpena. - Zaintzaileak atxikimendu, maitasun eta onarpena adierazten dizkio haurrari, askotan berez eta era irekian ez bada ere. Batzuetan, adingabea zail, desberdin edo gaiztozat jotzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileak atxikimendu, maitasun eta onarpen egokiak adierazten ditu haurraren arteko elkarreraginean. Ez da eroso sentitzen haurraren ukipen fisikoa dagoenean, eta ez dio maitasun adierazpen askorik egiten. - Haurrari familia arazoak erria egotzen zaio, eta ume zailtzat hartzen dute. Behar den baino maizago zaintzaileak haurra kritikatzeko edo gaiztosten du. Gehienetan, haurraz hitz egiten du gorrotoz eta atxikimenduz. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago atxikimendu, maitasun edo onarpen adierazpenik zaindariaren eta haurraren artean. Ez dago bien arteko ukipen fisikorik, eta ez dago maitasun adierazpenik bien arteko elkarreraginean. - Haurraren huts egiteak edo ezintasunak nabarmendu egiten dira etengabe; zaintzailearentzat, haurra arazoa da, familian "arrozta", edo familialeko baten ezaugarri negatiboak dituen, herentziak. - Zaintzailearentzat haurraren presentzia mehatxu pertsonala da; edo zaintzaileak haurraren jokaera kontrolatzeko ezintasuna adierazten du.
18. BIKOTE HARREMANAK		
<ul style="list-style-type: none"> - Guraso bakarreko familia. - Bikotekideek maitasuna eta emozio laguntza positiboa adierazten dute haien elkarreraginean. Era positiboan komunikatzen dira. - Bikotekideek partekatzen dute agintea eta boterea haurrei arreta eskaintzeko erantzukizunak beteaz. - Gatazkek ez dute luze irauten, eta gehienetan konpondu egiten dituzte. - Ez dago haurra zaintzeko arazo edo eztabaidarik. - Gurasoen irudiak, orokorrean, eginkizun eredu positiboak dira haurrarentzat. - Bikotekideek, batzuetan, arazoak dituzte maitasuna eta laguntza emozionala adierazteko. Noizean behin gatazka adierazten dute ahoz. Gatazka horiek haurraren eragin negatiboa daukate, baina kanpoko laguntzaren bidez konpontzen dira, eta haurra zaintzean egon litezkeen gabeziak konpondu egiten dira. - Bikotekideen arteko harremana positiboa izaten da, oro har; hala ere, hainbat arazo daude, adibidez haurra hazteko moduan, eta eztabaida horiek kaltegarriak dira haurraren garapenerako. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bikotekideek oso gutxitan adierazten dute maitasuna edo emozio atxikimendua. Bien arteko harremana zaila da, orokorrean. Edo euren harremanetan elkar laguntzen dute, baina haurra kanpoan geratzen da, eta horrek eragin negatiboa sortzen du haurra zaintzeko orduan. - Haurra hezteko moduari buruzko desadostasun handiak daude, eta haurrari egotzen diote gurasoen arteko arazoak erria. - Bikotekide batek elkarrekin menperatzen du, eta aginte edo boterea dauka haurra hezteko, eta besteak bigarren mailako rola hartzen du. - Bikotekideak elkarren arteko borroka zuzenean ari dira haurraren maitasuna lortzeko; edo haurraren zaintza lortzeko eztabaida gogorrean sartuta daude. - Indarkeria fisikoa ematen da askotan, baina horrek ez du lesiorik eragin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bikotekideek ez dute inoiz adierazten maitasunik edo emozio atxikimendurik beren elkarreraginean. Bien arteko komunikazioaren oinarria eztabaida bortizak edo kalte mehatxuak dira. - Bikotekideen arteko harremanak menperatze-men egitea eredu dira; menperatzen duen bikotekideak haurrari zer diziplina ezarri eta nola zaindu erabakitzen du, eta bere aginte edo boterea erabiltzen du beste bikotekidea ikaratzeko edo betaz ahoz abusatzeko. - Adingabea erabiltzen dute beren arazoetan, eta gerta daiteke haurraren zaintza edukitzea borroka bortitza egitea. - Zaintzaile nagusiak bikotekide ugari ditu, gutxi irauten dutenak eta harremanetan gorabehera handiak dituztenak. - Bikotekideen arteko bortizkeria fisikoak lesioak eragin ditu askotan.

ARRISKURIK EZ / ARRISKU BAXUA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU HANDIA
19. LAGUNA EDO AITA EDO AMA ORDEZKATZEN DUEN PERTSONA EGOTEA		
<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaile nagusiak ez dauka lagunik, edo ez dago aita edo ama ordezkatzeko duen inor etxean. - Laguna edo ordezko ama edo aita etxean bizi da, eta bera hor egotea lagungarria eta egonkortzailea da. - Laguna edo ordezko ama edo aita oso gutxitan egoten da etxean, eta haurra zaintzeko ardurak txikia hartzen du bere gain. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lagunak edo ordezko aita edo amak emozio atxikimendu eskasa adierazten dio haurrari, ez du etxearen antolaketan laguntzen, edo eginkizun eredu negatiboa da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Laguna edo ordezko aita edo ama etxean bizi da, eta bera da haurrari tratatu txar edo abandonua jasanarazi diona. - Zaintzaile nagusiak haurra zaintzeko lanetan eragin negatiboa dauka lagunak edo ordezko ama edo aitak.
20. ETXEAREN EGOERA		
<ul style="list-style-type: none"> - Etxea egoera onean dago, eta ekipamendu egokia dauka. - Bertan bizi diren guztientzako espazio nahikoa dago. - Etxea segurua da. - Etxea egoera onean dago, baina segurtasun eta higiene alorretan hutsune batzuk ditu, haurraren kalte arinak sor ditzaketanak. - Oinarritzko ekipamendu eta osagarriak (ur beroa, berokuntza, e. a.) egoera onean egoten dira. - Espazioa eskasa da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Etxean arazo fisikoak daude, edo egituretan. - Hondatutako osagarriak daude, eta segurtasun eta higiene alorrean urritasunak, berehala konpondu behar direnak haurrak ezbehar edo gaixotasunak izan ditzan saihesteko. - Oinarritzko ekipamendu batzuk (komuna, esaterako) ezin dira erabili, baina konponentzen arri dira. - Pilaaketa dago; haurrek edota sexu berekoak ez diren helduek logela bera daukate. 	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeak dituen akatsak haurraren osasun edo segurtasunerako mehatxu hurbilak eta etengabeak dira.. - Oinarritzko ekipamendu batzuk (komuna, esaterako) ezin dira erabili, eta duela denbora luze ez dira konpondu. - Pilaaketa larria. Sexu berekoak eta familiakoak ez diren helduek eta haurrek logela bera erabiltzen dute. - Familiak ez dauka etxebizitzarik, edo laster galduko du.

ARRISKURIK EZ / ARRISKU BAXUA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU HANDIA
<p>21. GIZARTE LAGUNTZARAKO ITURRIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Familia behar duen laguntza ematen duten senide edo lagunengan babes handia dauka; eta beharrezkoa bada, pertsona horiek haurra zaintzen edo estrés edo gatazka egoerak konponitzen laguntzen dute. - Familia ez du kanpoko laguntza sistemen beharrik estresari aurre egiteko. - Zaindariak diru eta giza baliabide nahikoak dituzte, haurren oinarritzko beharrek betetzeko. - Familia estresa edo gatazka egoerak pairatzen ditu maiz, dituen baliabideak eta gehienetan erabilgarri dauden babes sistemek emandako laguntza erabiltzen dituztenak. - Zaintzaileen eta senide, lagun edo auzokoen artean, harreman arazo batzuk daude, batzuetan haurra behar bezala zaintzeko gaitasunean eragin negatiboa sortzen dutenak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza sistemek noizean behin ematen diote laguntza familiarri; baina ez horretaz jakitun egonda, edo ez daude beti laguntzeko prest. Familia bakarituta dago, komunitatean gizarteratu gabe, laguntzarako pertsona gutxi dituenak. - Zaintzaileak ez dira gauza estresa edo gatazkari aurre egiteko, kanpoko laguntzarik gabe. - Familia hedatuarekiko edo beste pertsona batzuekiko harremanetan arazoak dituzte, askotan haurra zaintzeko gaitasunean eragin negatiboa sortzen dituztenak. - Familiaren eta laguntza sistemen baliabideak ez dira nahikoak haurren oinarritzko beharrei erantzuteko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Familia ez dauka laguntza sistematik; edo dituenak ez dira gauza estres edo gatazka egoeretan behar den laguntza eskaintzeko. Guztiz bakarituta dago, edo gizarte errefusa pairatzen dute. - Familia hedatuarekin dauden gatazkak dira zaintzaileek haurra zaintzeko daukaten gaitasuna ahultzuten duten kausa nagusiak. - Ez familia, ez haren laguntza sistema ez dira gauza haurraren oinarritzko beharrei erantzuteko, eta horrek haurra jartzen du arrisku handiko egoeran.
<p>22. ESKU-HARTZEARI EMANDAKO ERANTZUNA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tratu txarra edo abandonua egin duen zaintzaileak bere gain hartzen du egindakoaren erantzukizuna, bere errua onartzen du edo damua adierazten du, eta esku-hartzean parte hartzera konprometitzen da. - Esku-hartzeak dituen helburuak onartzen ditu. - Tratu txarra egin duen zaintzaileak batzuetan beste batzuei egozten die bere zaitasunen errua; baina, azkenean egindakoaren erantzukizuna onartzen du. - Esku-hartzea planifikatzeko orduan parte hartzen du nahikoa den neurrian, baina ez da iristen maila egokira. - Esku-hartzearen helburu gehienak onartzen ditu; baina, ezin ditu eskaintako edo gomendatutako zerbitzuak modurik hoberean erabili. 	<ul style="list-style-type: none"> - Tratu txarra edo abandonua egin duen zaintzaileak zerbitzuak onartzen ditu ahoz, baina elkarlanean aritzeari (era aktiboan edo pasiboan) uko egiten dio. - Ez du ia parte hartzen zerbitzuetan. Profesionalek gainbegiraketa eta kontrol etengabe eta zuzenak egiten badituzte bakarrik nahasten da eta parte hartzen du. Profesionalek manipulatu eta horien kontrola saihesten saiatzen da. - Guztiz atsegina edo kontrakoa da. Esku-hartzean parte hartzen du bakarrik horretarako kanpotik egindako presioaren ondorioz. 	<ul style="list-style-type: none"> - Tratu txarra edo abandonua egin duen zaintzaileak uko egiten dio argi eta garbi esku-hartzearen plangintzan edo garapenean parte hartzeari. - Aurka egiten dio era aktibo edo pasiboan zerbitzuekin edozein parte hartze edo harreman mota edukitzeari. Zerbitzuaren edo esku-hartzearen helburuak boikotatzen ditu. - Profesionalek aurrean inheskorra da, hitzez erasotzailea, edo eraso fisikoak egiten dizkie edo egingo dituela mehatzatzen du. - Zaitasun handiak daude zaintzaileekin harremanetan hasteko edo harremanak mantentzeko. - Uko egiten dio argi eta garbi proposatutako tratamenduari.



IV. Eranskina

Ebaluazioa

HASIERAKO EBALUAZIOA EGITEKO GIDOIA

1. FAMILIA OSATZEN DUTENAK ETA EGITURA

- Identifikazio datuak (familiako kideak: izen-deiturak, jaiotze data, ahaidetasuna, lan-bidea).
- Etxetik kanpo dauden familia nukleoko kideak, etxean ez egotearen arrazoia, egun non aurkitzen diren.
- Haurrekin gaur egun bizi diren pertsonak.
- Haurren zaindari nagusien egitekoa duten pertsonak.
- Haurrek gurasoekin duten harremana, gurasoak etxe berean bizi ez badira.
- Genograma (hiru belaunaldi barne hartzen dituen).

2. KASUAREN HISTORIA GIZARTE ZERBITZUETAN

- Kasuaren historia gizarte zerbitzuetan; zehaztu egingo dira zerbitzuak familiarekin aldeztatik izandako harremana, datak, burutu diren esku-hartzeak, familiak esku-hartzeari emandako erantzuna, eta lortutako emaitzak.
- Tratu txar edo abandonuari buruzko txostenen historia; zehaztu egingo dira datak, kasuari buruzko jakinarazpenak (iturriak, jasotako informazioa, e. a.), burututako ekintzak eta lortutako emaitzak.

3. FAMILIAREN EGOERA SOZIO-EKONOMIKOA

- Bizilekuaren ezaugarriak: bizilekuz aldatzeko familiaren joera eta egungo bizilekuaren egonkortasuna. Familia bizi den auzoaren ezaugarriak, erabilera erregimena (gurasoen jabetza, familiako beste batzuen, alokairuan hartua den, e. a.); daukan espazioa eta espazioaren banaketa (gela bakoitzaren erabilera, familiako kideak nola banatzen diren lo egiteko, zenbat ohe dagoen, e. a.); etxebizitzak duen segurtasuna, higiena; oinarrizko zerbitzu eta ekipamendurik badagoen eta zein egoeratan dauden (oinarrizko elektrotresnak, ekipatutako bainugela, ur beroa, berokuntza, elektrizitatea edo gasa); oinarrizkoak diren altzariak badauden eta zein egoeratan dauden.
- Familiako kide helduen lan egoera: Lana duten helduak eta ez dutenak; egindako lana; kontraturik badagoen eta zein kontratu mota den; enpleguaren egonkortasuna; lan ordutegia; azpimarratzekoak diren lan bajak. Enplegurik gabeko helduak daudenean, horien motibazioa eta lana lortzeko burututako ekintzak.
- Egoera ekonomikoa: Diru sarreren kopurua, iturria eta erregularitasuna. Zorrik badagoen. Diru sarrerek noraino ahalbidetzen duten haurren eta gainerako senideen oinarrizko beharrak betetzea. Familia ekonomia moldatzeko egokitasuna, eta horretaz arduratzen diren pertsonak. Ekonomi alorrean familiak duen autonomia maila.
- Familiako helduen maila, hezkuntza eta kultura alorretan: Lortutako ikasketen maila, ulertzeko eta adierazteko gaitasuna.

4. FAMILIAKO KIDEEN EGOERA PERTSONALA

▣ Osasun fisikoa:

- Guraso edo tutoreak: Osasun fisikoaren maila, subjektuari behar bezala funtzionatzea eragozten dioten eta jatorri eta agerpen fisikokoak diren gaixotasun edo urritasunak. Droga, alkohol edo botika gehiegi hartzea. Gaixotasunaren, tratamenduen, bilakaeraren eta pronostikoaren historia. Gaixotasunak subjektuaren eta bere familiako gainerako kideen bizitzan izandako ondorioak. Familia plan-gintzarako metodoak.
- Haurrak: Anamnesia (jaiotza, txertoak, pisu eta garaieran izandako garapena, e. a.). Egungo egoera, pisu eta garaierari dagokien egoera. Zainketa medikoen maiztasuna eta egokitasuna. Haurraren gaitasuna mugatzen duen gaixotasun fisiko kroniko edota larririk, zentzumen edo mugimendu urritasunik badagoen. Ezgaitasun maila. Izandako zainketa fisikoen egokitasuna (elikadura, higieena, jantziak, gainbegiraketa, lo ohiturak, arriskuen kontrako babesa, e. a.), eta zainketa horiek eskasak izatearen ondorioz osasun arazorik badagoen. Arazo fisikoak egonez gero: hasiera eta iraupena, kontrol medikorik badagoen, behar duten tratamendua, e. a. Familiako gainerako kideengan sortutako ondorioak.

▣ Funtzionamendu psikologikoa eta jokaera:

- Guraso edo tutoreak: Funtzionamendu psikologiko orokorraren ezaugarriak (adibidez, burubide eta arrazoibide gaitasuna, heldutasun mentala, arazoei aurre egiteko eta irtenbidea emateko trebetasuna, estresaren aurrean subjektuak dituen ohiko erreakzioak, frustrazioaren aurreko tolerantzia maila, emozio egonkortasun eta heldutasuna, eraginak kontrolatzeko maila, auto-estima, harreman helduak izateko gaitasuna, e. a.).
- Haurrak: Haurrak etxean eta eskolan duen jokaeraren egokitasuna. Jokaerazko arazorik badagoen (adibidez, pertsona edo objektuen aurkako portaera erasokorrrak, hiperaktibitatea, oldarkortasuna, eskolara ez joatea, ihesa, delitu portaerak). Emozio arazoak izan daitezkeen sintomak (esaterako, auto-estima baxua, bere buruaz beste egiten saiatzea edo horren mehatxua egitea, aldarrearen bat-bateko aldaketak). Lo egiteko, jateko, esfinterrak kontrolatzeko arazoak, e. a.
- Guraso, tutore edo seme-alabek nahasmendu psikologikoak edukitzea, haien ohiko funtzionamendua oztopatzen dutenak; nahasmenduaren, tratamenduen, bilakaeraren eta pronostikoaren historia. Arazo psikologiko edo jokaerazkoek subjektuarengan edo familiako gainerako kideengan sortutako ondorioak.
- Guraso edo tutoreek haurren emozio beharrei eta itxuraz tratamendu psikologiko berezia jasotzeko eduki litzaketan beharrei eskainitako arreta maila.

5. HAURREN ESKOLA ALORRA ETA EGOERA KOGNITIBOA

- ▣ Haurrek, eskolara joaten hasi zirenetik, izan duten eskola bilakaeraren historia. Ikasketxe aldaketak eta arrazoiak. Ikaskuntza errendimenduan eta mailan izandako bilakaera. Eskolara zein maiztasunez joaten diren. Garapen kognitiboan arazorik badagoen, arazo horien arrazoiak, jasotako tratamenduak, bilakaera eta pronostikoa. Arazo horiek haurraren eta familiaren ohiko jardueretan duten eragina. Gurasoek noraino ezagutzen dituzten haurren hezkuntza eta estimulazio kognitiboaren beharrrak, behar horien maila. Guraso edo tutoreek beren seme-alaben eskola bilakaerari egiten dioten segimenduaren maila.
- ▣ Ikasketxeak haurren egoera hobetzeko burututako jarduketak. Guraso edo tutoreen erantzuna, lankidetzeta maila.

6. GIZARTE HARREMANAK ETA AISIALDIA

- ➡ Guraso edo tutoreen gizarte harremanak: Guraso edo tutoreekin hurbiltasun eta elkarren arteko laguntza harremanak dituzten pertsonak badauden; arazoak gizarte harremanetan (bakartasuna, zailtasun aipagarriak), adiskidetasun harremanen egonkortasuna; auzokoek, lagunek eta abar guraso edo tutoreei krisialdietan laguntzeko daukaten prestasuna; ematen dieten laguntza mota. Giro marjinal eta delitu giroko jendearekin harremanak badituzten eta abar.
- ➡ Haurren gizarte harremanak: Haurrek beren adinako haurrekin dituzten gizarte harremanak norainokoak diren; harreman horien ingurunea (eskola, kalea, denbora libreko jarduerak, e. a.). Alor horretan dauzkaten arazoak (bakartasuna, errefusa, erasokortasuna, e. a.); adingabearen lagunek izan dezaketzen eragin txarra (arazoak dituzten edo giro marjinaletako helduak edo neska-mutil zaharragoak, harreman bortitzak edota erasotzaileak). Guraso edo tutoreek seme-alaben lagunak noraino kontrolatzen dituzten. Guraso edo tutoreek haurren behar sozialak onartzen badituzten, eta behar horiek noraino betetzen diren.
- ➡ Aisialdia: Familiako kideek zer egiten duten denbora librean; elkarrekin familia jarduerak egiten diren; guraso edo tutoreek eta haurrek antolatutako gizarte jardueretan parte hartzen duten.

7. GURASO EDO TUTOREEN HISTORIA PERTSONALA. FAMILIA AURREKARIAK.

- ➡ Guraso edo tutoreen jatorrizko familien ezaugarriak. Gurasoek beren gurasoekin izandako harremanen kalitateari buruzko pertzepzioa; atxikimendurako irudi heldu eta positiborik egon zen haurtzaro eta nerabezaroan; txikitan babesik gabeko egoerarik bizi izan zuten (tratu txar edo abandonu fisikoa; tratu txar edo abandonu emozionala; sexu abusua, eta abar); txikitan egin ohi zituzten jarduerak; nerabezaroan egin ohi zituzten jarduerak.

8. GAUR EGUNGO HARREMANA FAMILIA HEDATUAREKIN

- ➡ Guraso edo tutoreek eta haurrek senideekin dituzten harreman maila. Senideek familia bizitzan daukaten eragin maila. Senideek eman dezaketzen laguntza. Harremanetan zailtasunik badagoen, eta zailtasunen arrazoiak.

9. BIKOTE HARREMANA

- ➡ Aurretik izandako bikote harremanak; harreman horien egonkortasuna; bukatzeko arrazoiak; arazo larriak edo bortizkeriarik gertatu den. Egungo harremanen egonkortasuna; botere banaketa; ohikoak diren zailtasunak eta nola konpontzen diren; bortizkeria arazorik badagoen; bikotekideen arteko lotura emozionala; bikotekide bakoitzak noraino betetzen dituen besteren maitasun beharrak. Bikote harremanen zailtasunek norainoko eragina sortzen duten seme-alabak zaintzeko eta babesteko guraso edo tutoreen gaitasunean. Bikotekideen arteko zailtasunetan haurrak erabiliak ote diren.

10.GURASOEN ETA SEME-ALABEN ARTEKO HARREMANA

- Atxikimendu harremana:

 - Haurrak, jaió zenetik, izan dituen tutoreak, eta alderdi horretan izandako aldaketan. Haurrak aldaketa horien aurrean azaldutako erreakzioak.
 - Gurasoak eta seme-alabak banandu diren, edo haurraren atxikimendurako garrantzitsuak izan daitezkeen gertakizunak. Haurraren adina gertakizun horien garaian. Haurraren erreakzioa.
 - Atxikimendu adierazpenak:
 - Bederatzi hilabete eta hiru urte bitarteko haurrak: Haurrak gozatu egiten du gurasoekin harreman fisikoa duenean?, egonezina azaltzen du?, helduaren laguntza, begirada, elkarreragina bereganatu nahi du?, gurasoek erraz kontsolatzen dute?, helduarengana jotzen du triste dagoenean, min hartzen duenean edo zailtasunak dituenen?, e. a.
 - Hiru urtetik gorako haurrak: haurrak maitasuna adierazten die gurasoei, eta horien maitasun adierazpenei erantzun egiten die; gurasoekiko harremana estutu nahi du (ahozkoa, fisikoa, ikusizkoa, e. a.); zailtasun, oinaze, beldur, segurtasunik eza, e. a. daukanean, gurasoen laguntza edo kontsolamendua bereganatu edo eskatzen du; gurasoek lasaitzen dute; gurasoen ondoan geratzeko nahia azaltzen du.
 - Guraso edo tutoreen eta haurren arteko maitasun loturaren ezaugarriak. Elkarrengana gauzatzean, maitasuna elkarri adierazteko modua.
 - Guraso edo tutoreek seme-alabei adierazten dieten pertzepzioa.
- Guraso edo tutoreen iritziak eta itxaropenak, seme-alabei dagokienez: Guraso edo tutoreek itxaropen egokiak badituzten, haurrek, adinaren arabera, dituzten gaitasunak (fisiko, intelektualak, bere gain har ditzakeen erantzukizuna, e. a.) eta beharrak (babes eta arreta, estimulazioa, menpekotasuna/autonomia, e. a.) kontuan hartuta.
- Iritziak eta diziplina: Guraso edo tutoreek erabilitako diziplinaren ezaugarriak, eta egokitasun maila.

11.ANAI-ARREBEN ARTEKO HARREMANAK

- Anai-arreben artean dagoen komunikazioa; gatazkarik badagoen; anai-arreba zaharragoren batek besteren bat menpe hartzen duen; anai-arreben arteko harremana adingabeentzat laguntza edo estres iturria ote den.

12.ESTRES ITURRIAK FAMILIAN

- Familian ohikoak diren eginkizun edo jarduerak eragozten dituzten edo eten egiten dituzten estres gertaerak edo egoerak. Bizimodu kaotikoa, edo familian etengabe gatazkak egotea. Ohituretan aldaketa aipagarriak, nahiko denbora laburrean. Gertaera horien larritasuna eta familiaren funtzionamenduan izandako eragina, eta bereziki, guraso edo tutoreek beren eginkizuna behar bezala betetzeko gaitasunean izandakoa.



U. Eranskina

Ebaluazioa

HASIERAKO EBALUAKETA EGITEKO TRESNAK: ALDERDI INDARTSU ETA ZAILTASUNEI BURUZKO GALDERA-SORTA (SDQ)¹

ZER DA SDQ?

SDQ hiru eta hamasei urte bitarteko haurrengan jokaera arazoak antzemateko tresna da. Hiru bertsio ditu: (a) bat, aita eta amentzat; (b) beste bat, irakasleentzat; eta (c) beste bat, haurrentzat. Bertsio bakoitzak hurrengo osagarrietako bat eta hiru bitartean dauzka:

A) Ezaugarri psikologikoei buruzko 25 item:

Bertsio guztiek dituzte 25 ezaugarri, batzuk positiboak eta beste batzuk negatiboak; ezaugarriok 5 azpiatal osatzen dute:

1. Emozio sintomak (5 item: 3.-8.- 3.- 16.- 24.)
2. Jokaera arazoak (5 item: 5.- 7.- 12.- 18.- 22.)
3. Hiperaktibitatea/Adi egoteko arazoak (5 item: 2.-10.-15.-21.-25.)
4. Berdinekin harremanak izateko arazoak (5 item: 6.-11.-14.-19.-23.)
5. Jokaera gizartekoia (5 item: 1.-4.-9.-17.-20.)

Lehenengo 4 azpiatalek, batuketa eginda, Zailtasunen Puntuaketa Osoa ematen dute (20 item).

Guraso eta irakasleentzako bertsioek item berak dituzte, eta haurrentzako auto-txostenetan, aldiz, hizkuntza desberdina erabili dugu, 25 ezaugarri berak neurtzen badituzte ere.

B) Eraginari buruzko gehigarria

SDQ galdera-sortaren bertsio zabalduak galdera-sortari erantzuten dion subjektuak arazoren bat daukan aztertzen dute; horrela bada, galdera gehiago egiten zaizkio kronikotasunari buruz, haurrengan sortzen duten ezinegonari buruz, gizarte harremanetan sortzen duten kalteari buruz, eta horik beste batzuentzat arazoa den. Galdera horiek baliagarria den informazio osagarria ematen dute.

ESKURA DAITEZKEEN BERTSIOAK

- Hiru eta lau urte bitarteko haurren ama eta aitentzako bertsioa.
- Lau eta hamasei urte bitarteko haurren ama eta aitentzako bertsioa.
- Hiru eta lau urte bitarteko haurren irakasleentzako bertsioa.
- Lau eta hamasei urte bitarteko haurren irakasleentzako bertsioa.
- Auto-txostena, 11 eta 16 urte bitarteko haurrentzat.

GALDERA-SORTEI EMANDAKO ERANTZUNEN PUNTUAKETA

SDQk 5 azpiatal ditu. Oro har, errazagoa da azpiatalak bereiztuta puntuatzea, zailtasunen puntuaketa osoa landu aurretik. Item gehienak honela puntuatu behar dira:

0 = Gezurra

1 = Ez da egia osorik

2 = Egia

¹ Goodman, R. (1997). The Strengths and Difficulties Questionnaire: A Research Note. *J. Child Psychol. Psychiat.*, 38, 581-586.

Salbuespenak 7., 11., 14., 21. eta 25. itemak dira, eta alderantziz puntuatu behar dira:

2 = Gezurra

1 = Ez da egia osorik

0 = Egia

Azpiatal bakoitzeko puntuaketa 0tik 10era da, eta puntuak zenbatuko dira bakar bakarrik 3 item gutxienez erantzun baldin badira.

Puntuaketa osoa: Azpiatal guztietako puntuaketa batuz egiten da, jokaera gizartekoiari buruzkoa kanpo dagoelarik. Emaitzako puntuaketa 0 eta 40 bitartekoa izan daiteke, eta puntuak batuko dira bakar-bakarrik 12 item gutxienez erantzun baldin badira.

EMAITZEN INTERPRETAZIOA

SDQ galde-sorta beste herrialde batzuetan oso erabilia eta onetsia izan bada ere (eta horrek esan nahi du, araututako puntuaketak dituela), Espainian ez da oraindik onetsi eta ez zaio baremorik ezarri. Baremoak ezartzeko prozesu hori egin arte, ez da araututako puntuaketarik gure herrialdean egongo.

Horregatik, SDQ erabiltzeko orduan, haurraren ohiko jokaera deskribatzeko baizik ez da erabili behar, arlo horretan arazoren bat egonez gero antzeman ahal izango dela ziur egonda. Era berean, SDQn jokaera arazorik antzematen ez bada, haurraren jokaera egokiaren adierazlea dela pentsa daiteke.

ALDERDI INDARTSU ETA ZAILTASUNEI BURUZKO GALDERA-SORTA (SDQ)***Auto-txostena 11-16 urte bitarteko haurrentzat***

Arren, marka itzazu *gezurra, ez da egia osorik*, edo *egia* adierazteko laukitxoak, esaldi bakoitzerako. Lagungarria izango litzaiguke esaldi guztiei ahal duzun hoberen erantzutea, oso ziur ez bazaude ere. Erantzutean, oinarritu zaitez zuretzat azken hilabeteotan gauzak izan diren moduan, mesedez.

Zure izena: Sexua: Gizonezkoa Emakumezkoa

Jaiotze data:

	Gezurra	Ez da egia osorik	Egia
1. Besteekin atsegina izaten saiatzen naiz. Haien sentimenduak kontuan hartzen ditut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Geldiezina naiz, ezin naiz luzez geldirik egon	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Buruko, urdaileko mina edo arazoak izaten ditut maiz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Gehienetan, besteekin partekatzen ditut gauzak (janaria, jostailuak, boligrafoak, e. a.)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Oso haserretzen naiz eta maiz izaten ditut kasketak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Sarritan, nahiago dut bakarrik egon eta bakarrik jolastu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Gehienetan, esaten didatena egiten dut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8. Biziki kezkatzen naiz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9. Laguntza eskaini ohi dut norbaitek min hartu duenean, egonezina duenean edo gaixo dagoenean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10. Etengabe mugitzen naiz eta keinuak egiten ditut, urduri egoten naizelako	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11. Adiskide on bat gutxienez badaukat	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12. Liskarretan aritzen naiz. Beste pertsona batzuk behar ditzaket nik nahi dudana egitera	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13. Askotan sentitzen naiz triste, adorerik gabe, edo negar egiteko gogoia izaten dut.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14. Oro har, nire adineko neska-mutilen gustukoa izaten naiz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15. Oso erraz galtzen dut arreta, zaila izaten zait kontzentratzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16. Egoera berrien aurrean, urduri jartzen naiz. Oso erraz galtzen dut segurtasuna	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17. Atsegina naiz ni baino gazteagoak direnekin	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18. Askotan egozten didate gezurrak esaten ditudala, edo engainatzen dudala	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19. Beste haur edo gazte batzuek ni zirikatu edo jo egiten naute	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20. Maiz izaten naiz beste batzuei laguntzeko boluntario (guraso, irakasle, haurrei)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
21. Zerbait ekin aurretik, gogoeta egiten dut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
22. Etxean, eskolan edo beste leku batzuetan, nireak ez diren gauzak hartzen ditut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
23. Hobeto moldatzen naiz helduekin, nire adineko haurrekin baino	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
24. Beldur ugari ditut, oso erraz izutzen naiz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
25. Hasten ditudan lanak bukatzen ditut. Arreta ondo mantentzen dut.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Ba al duzu bestelako adierazpen edo kezkarik?

Orokorrean, uste duzu zailtasunak dituzula hurrengo alorretako batean edo gehiagotan: emozioak, kontzentrazioa, beste pertsona batzuekiko jokaera edo harremanak?

Ez	Bai, zailtasun txikiak	Bai, zailtasun zehatzak	Bai, zailtasun handiak
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Baietz erantzun baduzu, arren erantzun zailtasun horiei buruzko hurrengo galderari:

- Zailtasun horiek zenbat iraun dute?

Hilabetea baino gutxiago	1 eta 5 hilabete bitartean	6 hilabete eta urte 1 bitartean	Urte 1 baino gehiago
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

- Zailtasun horiek aztoratzen edo gaizki sentiarazten zaituzte?

Inolaz ere ez	Zertxobait	Bai, dezente	Bai, biziki
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

- Zailtasun horiek eragina sortzen dute zure eguneroko bizitzako hurrengo arloetan?

	Inolaz ere ez	Zertxobait soilik	Bai, dezente	Bai, biziki
Etxeko bizimoduan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lagunekiko harremanetan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eskolako ikaskuntzan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Denbora libreko jardueretan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

- Zailtasun horiek eragozpenak jartzen dizkie zure inguruan daudenei (familia, lagun, irakasle, eta abarri)?

Inolaz ere ez	Zertxobait	Bai, dezente	Bai, biziki
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Zure sinadura

Gaurko data.....

ESKERRIK ASKO EMAN DIGUZUN LAGUNTZAGATIK

ALDERDI INDARTSU ETA ZAILTASUNEI BURUZKO GALDERA-SORTA (SDQ)**3 eta 4 bitarteko haurren ama eta aitentzako bertsioa**

Arren, marka itzazu *gezurra*, *ez da egia osorik*, edo *egia* adierazteko laukitxoak, esaldi bakoitzerako. Lagungarria izango litzaziguke esaldi guztiei ahal duzun hoberen erantzutea, oso ziur ez bazaude ere. Erantzutean, oinarritu zaitez zure seme-alabak azken 6 hilabeteotan izandako jokaeran, mesedez.

Haurraren izena Sexua: Gizonezkoa Emakumezkoa

Jaiotze data

	Gezurra	Ez da egia osorik	Egia
1. Besteen sentimenduak aintzat hartzen ditu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Geldiezina da, asko mugitzen da, ezin da luzez geldirik egon	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Buruko, urdaileko mina izatez edo gaizki sentitzeaz kexatzen da maiz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Gehienetan, berehala partekatzen ditu gauzak besteekin (janaria, jostailuak, boligrafoak, e. a.)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Oso maiz izaten ditu kasketak edo aldarte txarra	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Bakartia da, bakarrik jolasteko joera dauka	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Gehienetan, obeditu egiten du, eta helduek esaten dioten egiten du	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8. Kezka ugari ditu, askotan ematen du kezkatuta dagoela	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9. Lagundu egiten du norbait zauritu denean, egonezina duenean edo gaixo dagoenean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10. Etengabe mugitzen da eta keinuak egiten ditu, urduri egoten delako	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11. Adiskide on bat gutxienez badauka	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12. Askotan aritzen da liskarretan beste haur batzuekin, edo jo egiten ditu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13. Askotan sentitzen da triste, adorerik gabe, edo negar egiteko gogoia izaten du	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14. Orokorrean, beste hurrek maite dute	<input type="checkbox"/>		
15. Oso erraz galtzen du arreta, zaila izaten zaio kontzentratzea	<input type="checkbox"/>		
